



Kepa Akixo eskultoreari elkarrizketa

Sexu-desira pornoaren gain eraikiz nerabezaroan



## BESTE FUTBOL MOTA BAT ERE BADAGOELAKO

Markel Barrocalek eta Gorka Fernandezek futbola dute pasio, txikitatik, eta adimen urritasuna izateak ez die kirol horretaz gozatzea eragotzi. Futboleko Genuine ligan ari dira, Eibar taldearekin / 32

Markel Barrocal bergararra eta Gorka Fernandez antzuolarra, Bergarako Seminarioko patioan.

JAGOBA DOMINGO



ANTZUOLA 2021, EZ-JAIK / 21

### SINADURAK

	RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 8		ESTEBAN IRIUSTA MALLEA / 37
	RAMON UGALDE / 11		ANDER ETXEBERRIA / 48

**Hemen garbiketak**

Inoiz baino garrantzitsuagoa

### ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA  
T. 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

## Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70






## KORONABIRUSA

## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Bergara	18	3	1.623	107	139
Arrasate	14	6	3.133	141	90
Antzuola	9	3	254	116	550
Aramaio	7	1	179	120	540
Oñati	5	2	1.408	122	61
Aretxabaleta	5	1	803	113	84
Eskoriatza	2	0	401	97	48
Elgeta	0	0	64	56	0
Gatzaga	0	0	11	44	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>	<b>16</b>	<b>7.876</b>	<b>121</b>	<b>117</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Maialen Santos ARRASATE

Azken zazpi egunetan 60 kasu baieztatu dituzte Debagoiengan, joan den astean baino 44 gehiago. Iazko martxotik 7.876 lagun kutsatu dira eskualdean, eta 172 hil; horietako bi, azken astean –Arrasaten eta Bergaran–. Debagoiengo ospitalean bi lagun daude ospitaleratuta.

Kutsatu kopuruak gora egin du Debagoiengan eta, beraz, intzidentzia-tasa ere nabarmen igo da azken egunetan –atzo, 117an zegoen–. Antzera gertatu da Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan ere; guztietan egin du gora tasak. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da 17 eta 18 urteko gazten artean erregistratu dela intzidentzia-tasarik altuena; atzo, 2.179ekoa zen.

# Eskualdeko tasa bikoiztu egin da eta 17-18koen artean 2.179koa da EAEn

Debagoiengan gora egin dute kutsatuek, eta 60 izan dira azken astean. Intzidentziak ere gora egin du; baita lurraldeetan ere. Batez ere, 17 eta 18 urtekoen artean. 16 eta 29 urte artekoen txertaketa aurreratu egin dute, eta gaurtik har dezakete hitzordua

## Neurriak, bere horretan

Neurriak zorroztea aurreikusten bazen ere, Labi Aholku Batzordeak eguaztenean egindako bi-

leran arauak bere horretan mantentzea erabaki zuen. Hala ere, lehendakariak azpimarratu zuten debekatuta dagoela boti-

la-festak, ez-jaiak edota jende-pilaketak sor ditzaketen bestelako ekimenak egitea. Atzo argitaratutako dekretuan zehazten da

pertsonen pilaketak dakartzaten eta prebentzio-neurriak bete ezin diren ekitaldietan ezingo dela parte hartu. "Oso une delikatu gaude, eta zuhurtzia beharrezkoa da", esan zuen Iñigo Urkullu lehendakariak, bile-raren ostean.

## Hitzordua, gaurtik

Oraindik gainerako taldeen txertaketa amaitu gabe badago ere, 16 eta 29 urte arteko herritarren txertaketa aurreratzea erabaki du Osasun Sailak. Hain zuzen, gaurtik, egubakoitza, aurrera har dezakete hitzordua Osakidetzaen webgunearen bitartez.

Orain arte 1.351.687 lagunek jaso dute ziztada bat eta 994.095 dira txertaketa prozesua bukatu duten herritarrak EAEn.

**ERRESERBA EGIN, BERRIZ BIZI IZATEKO**

Zurekin, bizitzaz eta zioritasunaz gozatzen duzun arratsalde honetan, Oraindik ere hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horiek.

**#RESERVALARIOJA**  
www.lariojaturismo.com

Informazio gehiago

**LA RIOJA**



Artola –egungo alkatea– eta Elkoro –orduko alkatea–, eguaztenean. IRENE JAUREGI

## Euskal Herriko hautetsien topaleku, 45 urteren ostean

Bergara burujabetzaren topagune izan zela gogora ekartzeko ekimenak egingo dituzte uztailearen 21ean

**Maialen Santos** BERGARA

Duela 45 urte, 1976ko uztailearen 25ean, Euskal Herriaren izaeraren eta bere eskubide historikoetan oinarritzen den burujabetzaren elkargune izan zen Bergarako herria.

Foruen abolizioaren mendeurrena betetzen zela gogoratzeko, Euskal Herriko ehunka udal ordezkari elkartu ziren Bergaran, herri bat zirela eta burujabetzatik aurrera nahi egin zutelako adierazteko.

Jose Luis Elkoro eta Gorka Artolak, orduko eta oraingo alkateak –hurrenez hurren–, azaldu zuten urteurrenaren testuinguruan hainbat ekimen egingo dituztela. "Hasteko eta behin, Bergarako Udalak aitortza egin gura die, ekitaldi instituzional baten bitartez, garai hartako bailarako alkateei", zehaztu zuen Artolak. Uztailearen 21ean izango da hori, goizez, herriko udalletean. Eta zera gaineratu zuen: "Horrekin batera, erakusketa bat ere egingo dugu garai hartako irudiekin, egun horretan, arratsaldean".

**"Herria egiteko egarria"**

Adierazi zuten garai zailak bizi zituztela sasoi hartan, duela 45 urte; izan ere, berrogei urteko diktadura amaitzen ari zen. Are gehiago, azpimarratu zuten askatasunaren eta herria egiteko "egarria" nabaria zela, eta aukera hori baliatu zutelako Bergaran batu ziren udal ordezkariak.

Orduko alkateak, Jose Luis Elkoro, gehitu zuen ia bost

hamarkada geroago "pandemiak kolpatuta" dagoela Euskal Herria eta baita mundua ere: "Kolpatuta dago gure herria, baina zutik jarri nahi du. Zutik jarri behar du, aurrera egiteko. Helburu hori burujabetza ardatz hartuta bete behar dugu, askatasunaren bidean aurrera egiteko beharra daukagu". Eta gaineratu zuen azken urteetan ez dituztela helburuak lortu: "Saiakera ugari egin ditugu, baina ez gara gai izan. Egun, herri bezala bagaude eta bagara, baina ez dugu indarririk; beste batzuen menpe baikaude". Izan ere, uste du herri bezala indarra hartzea posible dela, alkateen eta udalen elkartasunaz baliatuta: "Gu ez gara ahulak txikiak garela; ahulak gara zatituta gaudelako. Garrantzitsua da elkartu eta indarrak batzea".

**Udal ordezkari dei**

Azkenik, Elkoro eta Artolak dei egin zieten Euskal Herriko udal ordezkari uztailaren 21ean Bergaran biltzeko. Hain zuzen, azpimarratu zuten udalak oso garrantzitsuak izan direla historikoki herriaren egitura administratiboan, eta herria berriro ere zutik jartzeko funtsezko zeregina dutela.

**UDAL ORDEZKARIEI  
BERGARAN BILTZEKO  
DEI EGIN DIETE  
ELKOROK ETA  
ARTOLAK**

## Bergarako alkate ohi Elena Lete legebiltzarkide izango da

Aitor Aldasoro ordezkatu du; egungo agintaldian EAJren udal taldeko buru zen, baina dimititu egin zuen

**M.S. BERGARA**

Aitor Aldasoro jeltzaleak legebiltzarkide izateari uko egin dio eta haren eserlekua Elena Lete bergararrak beteko du. Hala jakinarazi du EAJ alderdiak sare sozialen bitartez.

EAJren Gipuzkoako zerrendan hamabigarren postua bete zuen Bergarako alkate ohiak. Hain zuzen, 2016ko urtarriletik 2019ko maiatzera izan zen alkate; izan ere, hauteskundeetan alkate atera zen Juanje Alberdiren

tokia bete zuen. Egungo agintaldian EAJren udal taldeko buru izan da, baina martxoan dimititu egin zuen, arrazoi pertsonalak argudiatuta.

EAJren legebiltzarreko taldean beste bi debagoiendar ere badaude: Luis Javier Telleria antzuolarra eta Aitor Urrutia eskoriatzarra. EH Bildukoak, bestetik, bi dira: Lore Martinez aretxabaletarra eta Rebeka Ube- ra elgetarra. Azkenik, Alberto Alonso sozialista oñatiarra ere legebiltzarkideen artean dago.

**Aurrekontu  
Irekiak  
2021**

**Denona,  
erabakia.  
Denona,  
etorkizuna.**

**AUKERATU  
GIPUZKOAREN ETORKIZUNA  
ERAIKITZEKO PROIEKTUAK**

Herritarren proposamen ugari jaso ditugu eta proiektu bihurtu ditugu.

Aukera ditagun gure lurraldearentzat onuragarrienak direnak.

Parte hartu [gipuzkoa.eus/partaidetza](http://gipuzkoa.eus/partaidetza)

**Gipuzkoak badu etorkizuna.**

Proiektuen bozketa:

2021eko ekainaren 30etik uztailearen 25era



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro**



# Ikasturte zailari amaiera eman dio Auzokok

Ezohiko ikasturtearen baitako balorazio positiboa egin du Euskaltzaleen Topaguneak. Herrietako dinamizatzaileek azaldu dute helburuak bete dituztela, eta datorren ikasturtean Auzokoko kide izatera animatu dituzte debagoiendarrak

## Maialen Santos ARRASATE

Euskaratik gertu –auzotarrak– eta ez hain gertu –auzokideak– bizi direnen topagune den Auzoko egitasmoak dagoeneko eman dio amaiera ikasturteari.

Hizkuntza aniztasunetik eta kulturartekotasunetik eta euskara erdigunean jarrita bizikidetzarako espazioak eraiki gura ditu Auzokok, komunitatearen artean, eta Debagoienez, Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan dago martxan. Euskaltzaleen Topagunearen barruan Auzokoko arduradun Eider Gurrutzagak adierazi du ikasturtearen balorazioa "positiboa" dela, nahiz eta pandemiak eragin handia izan duen egitasmoan: "Zalantzarik barik, asko eragin digu. Edozein modutan, helburua lortu dugu: jendearen arteko harremana mantentzea". Eta gehitu du: "Saiotara jende gutxiago joan izan da kasu batzuetan. Egia da inplikazio maila handia eskatzen duela Auzokok, eta kontuan hartu behar da jende asko egoera irregularrean bizi dela eta beti ez dagoela saiotara joateko moduan". Oro har, pozik daude ikasturteak emandakoarekin.

Gurrutzagarekin bat datoz eskualdeko dinamizatzaileak, eta uste dute hilabeteetan egin-



Arrasateko taldeko kideak, Arantzazura egindako bisitan. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

dako lanak fruituak eman dituela amaierarako. Miren Zubiak, Oñatiko dinamizatzaileak, "giro ona" eta "laguntasuna" nabarmendu ditu guztiaren gainetik, eta Eskoriatzako dinamizatzaileak, Iratxe Arresek, esan du aurten zenbait lorpen egin dituztela, "eta baita helburuak bete ere".

## Jai bateraturik ez

Ikasturteari amaiera borobila emateko asmoz, Auzokoren jai bateratua egitekoak ziren joan den ekainaren 20an, Gasteizen.

Egoerak behartuta, baina, bertan behera utzi behar izan zuten jaiak, eta, horren truke, herririk herri egin zituzten ekintzak. Oñatin, esaterako, kantu baten bertsoia prestatu zuten egun hartarako, Zubiak adierazi duenez: "Nikaragua nikaraguita kantua moldatu genuen denon artean, eta horren bitartez saiatu ginen etorkinen istorioa kontatzen". Araotzera bisita ere egin zuten ekain hasieran, "eta, hori gutxi balitz, askari handi batekin (merendola) eman genion amaiera ikasturteari".

Eskoriatzako kideek, aldiz, arropa truke merkatua egin zutela esan du Arresek, "eta arropen izenak euskaraz ikasi genituen".

## Datorren ikasturtera begira

Urriko lehen astean hasiko dute ikasturte berria Auzokon, eta horretan izena emateko epea irailan zabalduko dute. "Baina hortik aurrera ere, urte osoan zehar izango da egitasmora batzeko aukera", esan du Eider Gurrutzagak. Hala, debagoiendarrak animatu gura dituzte auzokide edota auzotar gisa parte hartzera. "Gure helburu nagusia da euskaratik urrun bizi direnak gerturatzea, eta, horretarako, dagoeneko euskaratik gertu bizi direnen laguntza ezinbestekoa dugu", esan du Iratxe Arresek.

## Amaierarako, ekintza ugari

Ekainaren 20an Gasteizen jai bateratua egin ordez, herririk herri eman diote amaiera ikasturteari, eta, horretarako, hainbat ekintza egin dituzte.

Arrasateko kideek Arantzazura irteera egin dute taldean. Oñatikoak, bestalde, Araotzera bisitan joan dira, eta askari handia egin dute (merendola). Bestetik, Aretxabaletako taldeak Debara irteera egin du, eta Eskoriatzako auzokide eta auzotarrek arropa trukaketa egin dute, eta baita poema bateratu bat sortu ere.

## Beau 2021 Arkitektura saria, Dorleta eraikinarentzat

Mondragon Unibertsitateko Huzezi fakultateko eraikin berriak eskuratu du

## M.S. ESKORIATZA

Arkitekturako eta Hirigintzako Espainiako Bienalean (Beau 2021) saria irabazi du Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dorleta eraikinak. Hain justu, ikasturte honetan inauguratu dute eraikina, eta, atek ireki eta gutxira, lehiaketako hogeitarko arkitektura-lan onenen artean sailkatu zen, saria nagusia irabazteraino.

Fakultateko dekanok Nagore Ipiñak adierazi du saria irabazteak esangura handia duela fakultateko ordezkariarentzat: "Erreferentzialtasuna ematen digun saria da, eta, are gehiago, hezkuntza proiektuari indarra emateko modua ere bada".

Eraikinaren diseinua prozesu parte-hartzaile baten ondorioa izan da; bertan esku hartu dute ikasleek eta langileek. Prozesu horren eta diseinuaren zuzendaritza BeSte arkitektura taldearen eskuetan egon da, eta tartean izan da Itziar Imaz, fakultateko irakaslea.

Ipiñak gaineratu du Dorleta eraikinaren birmoldaketak erantzuten diola fakultateak abian jarritako "hezkuntza eraldaketa" proiektuari.

## D2030eko proiektuetako ordezkariak lan-saioa egin dute

Proiektuen artean sor daitezkeen elkarlan eta konexio aukerak identifikatzen hasteko lanketa abiatu dute

## M.S. OÑATI

Debagoiena 2030 ekimenak izako irailan martxan jarri zituen hamalau proiektuetako ordezkariak elkartu ziren atzo, egue-na, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Hala, proiektuen

artein sor daitezkeen elkarlan bideak aztertu zituzten. Proiektu edo prototipo horiek Portfolio deritzona osatzen dute; gizarte moduan gaur-gaurkoz dituzten errokeni –klima larrialdia, inklusioa, lanaren etorkizuna,

digitalizazioa...– erantzuteko proposamen berri bat. Estrategia horrekin, hainbat arlotan eragingo duten esku-hartze proposamenak jarri dituzte martxan, elkarren arteko eragin dinamikan jardungo dutenak.

D2030eko prototipo jabeek elkar ezagutu eta Portfolio ideia lantzen hasteko aukera izan zuten. Tartean ziren Saiolaneko, Emuneko eta D2030eko ordezkariak, eta baita prototipoak garatzen diharduten enpresetako eta erakundeetakoak ere.



Atzo, egue-na, goizean Arantzazun egindako lan-saioa. ITZIAR LARRAÑAGA





Ezkerrean Julen Herran 'Herrantxi' eta eskuman Asier Urzelai 'Binbi', atzo, Arrasateko Arruena parkean. MAIALEN SANTOS

# Karibea konkistatuz "ametsa" bete dute

Asteon amaitu da 'El Conquistador del Caribe' abentura 'reality'-a. Aurtengo parte-hartzaileen artean izan dira Bergarako Julen Herran 'Herrantxi' eta Eskoriatzako Asier Urzelai 'Binbi'. "Sekulako esperientzia" bizi izan dutela aitortu dute biek

## Maialen Santos ARRASATE

ETB2 katearen abentura *reality*-aren 19. edizioan parte hartu berri dute Julen Herranek eta Asier Urzelai, Dominikar Errepublikako Parque de los Haitises-en. Esperientziari amaiera eman berritan azaldu diote GOIENARI "sekulakoa" izan dela, nahiz eta "une oso gogorrak" ere bizi izan dituzten. "Bi zatitan

banatuko nuke: han bizitakoa eta telebistan ikusten dena. Oso ezberdina da han bizitakoa telebistan ikustea; eta, beraz, ni neu bizipenekin geratzen naiz", zehaztu du *Herrantxi*-k. Eta *Binbi*-k gehitu: "Abenturako minutu oro izan da garrantzitsua aurrera egiteko, eta egunak jendearekin elkarbanatzeak egin du eramangarriago".

## "Gauak amaigabeak ziren"

Biek ala biek adierazi dute uste baino hobeto eraman dutela gosea. Hori baino okerragoak izan dira "ordu hilak"; tartean, gauak. "Arratsaldeko seietan iluntzen zuen. Txoriak kantuan hasten zirenean jakiten genuen laster argituko zuela, baina izugarri luzeak izaten ziren gauak", argitu du eskoriatzarrak. Eta

hori gutxi balitz, eltxoek eta erosotasunik ezak askotan ez diete lorik egiten utzi. Edozelan ere, argi dauka zein izan zen guztietan momenturik okerrera: "Labirintoaren jokoa, zalantzarik barik. Begiak itxi zizkiguten eta sekulako estualdia bizi izan nuen, sentsazio izugarri txarra".

Kanpamenduan ematen zituzten orduak ere luze egin zaizkiela esan du bergararrak: "Izan ere, ez genuen aukera handik mugitzeko, eta zeregin handirik ere ez, aldi berean". Arrazoi horregatik, taldean "giro ona" izatea "ezinbesteko" zela uste dute biek. Eta hori bakarrik ez: burua hotz mantentzea ere izan da "gako garrantzitsuetako bat".

## Behin bizitzeko esperientzia

*Casting*-a bi urtetan egin ostean, aspalditik izandako "ametsa" bete dutela argi dute biek. Baina egonaldia errepikatuko ote luketen galdetuta, aitortu dute "bizitzan behin" izateko esperientzia dela. Edozein modutan ere, *Binbi*-k zehaztu du gonbidapena jasoko balu ezingo lukeela ezetz esan.

Dominikar Errepublikara joan aurretik luzaroan aritu dira fisikoki zein mentalki prestatzen. *Binbi*-k azaldu du konfinamenduan egunero entrenatzen zela, eta *Herrantxi*-k, aldiz, lanketa psikologiko handia egin duela. Aurrez egindako lanak, baina, eman du fruiturik; izan ere, egindakoeekin gustura sentitu dira biak, eta, orokorrean, ez lukete ezer aldatuko.

## Elkarren arteko aurkari

Hasieran, Corocote taldekoa –urdina– zen bergararra; eta, aldiz, Yocahu taldekoa –gorria– eskoriatzarra. Hirugarren talde bat ere bazen hasieran, nahiz

eta gero bat desegin eta bi talde egin zituzten –hor ere aurkari izan ziren–. Amaierarako, taldeak guztiz desegin zituzten, eta norbanako bakoitzarengan fokua jarri. Hain zuzen, azken urrats hori egin aurretik utzi zuen abentura Julen Herranek: "Ez nintzen *Unifikazioa* izeneko etapa horretara iritsi. Denera, hiru alditan izan nintzen etxera itzultzeko arriskuan, eta hirugarrenean kaleratu ninduten". Asier Urzelai, ostera, finaleraino iristea lortu zuen, eta baita hori jokatu ere. "Aurretik, behin izan nintzen etxera joateko arriskuan, baina, azkenerako, amaierara arte iristea lortu nuen", esan du. Finaleraino iritsi izanagatik eskertuta azaldu da eskoriatzarra, nahiz eta une hartan ez zuen disfrutatzerik lortu. "Ordurako gose handia nuen, indarririk gabe sentitzen nintzen, zorabiatuta eta ahul", dio.

Publikoaren faboritua aukeratzeko orduan hirugarren sailkatu zen *Herrantxi*, eta jendearen babesa eskertzen duela dio: "Hara joateko aukera beste eskertzen dut jendearen babesa". Berak zein *Binbi*-k gustura hartzen dituzte hitz egitera gerturatzeko zaizkienak.

## "FINALA EZ NUEN DISFRUTATU; ZORABIATUTA ETA AHUL NENGOEN"

ASIER URZELAI 'BINBI'

## "KARIBERA JOATEKO AUKERA BESTE ESKERTZEN DUT JENDEAREN BABESA"

JULEN HERRAN 'HERRANTXI'



Garibai etorbidea, 6 behea  
20500 ARRASATE  
Tfnoa: 943 25 80 86  
● begia\_optika



Udako eskaintza berezia!

%20ko  
DESKONTUA  
Eguzkitako  
betaurrekoetan\*

\* 99 € tik gorako erosketetarako, marka zehatz batzuetan (kontsultatu dendan). Sustapen hau 2021eko urtailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean (biak barne) egongo da indarrean. Erin da beste sustapen batzuekin metatu.



# Komunikazio Campusa, edizio berrietarako lehenengo urratsa egina

Mondragon Unibertsitateak eta Goienak elkarlanean antolatutako ekimenaren aurreneko aldiak emaitza politak eman ditu. Zazpi gaztek hartu dute parte, eta gustura amaitu dute, askotariko komunikazio diziplinen nondik norakoak ezagututa


**J. Iriondo M. de Zuazo** ARETXABALETA  
Fotokazetaritza izan zen astelehenean jorratu zuten gaia, Xabier Urzelarekin, eta irrati-gintza landu zuten bigarren egunean, Gazteako esatari Ainhoa Vitoria lagun. Aiora Mujika youtuberrak bere esparruko nondik norakoak azaldu zituen eguaztenean, eta saio bakoitzean hasi eta erabat itxi gabeko lanak amaitzeko eguna izan zen atzokoa. Gaurko, berriz, jai txiki bat eta egindako lanen aurkezpena zuten prestatuta.

Fotokazetaritzako saioa gidatzeaz gain, Goienaren izenean koordinatzaile jardun du Xabier Urzelai: "Egunez egun, gero eta konfiantza handiagoa lortu dute gazteek elkarrekiko, eta hori igarri da ariketak edo jolasak egiterako orduan". Jorratutako edukiak oso interesgarriak izan dira Urzelairen hitzetan, eta aukera paregabea Aiora Mujikak eta Ainhoa Vitoriak euren ezagupenak partekatu izana. Bere arloari dagokionez ere, pozik: "Pare bat gazte izan dira argazkilaritzak harrapatuta etorri direnak campusera".

## MUKOAK ere gustura

Unibertsitatearen partetik, Zuriñe Maguregik jardun du koordinatzaile, egindako ekintzetan laguntzen, besteak beste. Lehen edizioak emandakoarekin "oso gustura", ekimenarekin jarraitzea da asmoa: "Ikusiko dugu batzuek eta besteek ze balorazio egiten duten, baina, hurrengo urtera begira, eta aurtengoek errepikatzen nahiko balukete, pentsatu beharko genuke beste eduki batzuk ere ematea, aurtengoz gain". Campusean parte hartu duen Joanes Kortazarrek argi zioen: "Oso gustura ibili naiz, dena izan da interesgarria".

## Zer moduzko esperientzia izan da?




**LIBE ALONSO**  
PARTE-HARTZAILEA

"Oso ondo pasatu dugu. Argazkigintza ondo egon zen: kalera atera ginen, eta ikasitakoa praktikan jarri genuen. Irratiari buruzkoa, izugarri ondo; irrati-kazetariaren lanean jardun genuen. Batxilergo artistikoa egiten ari naiz, eta kazetaria izan nahi nuke; oinarri bat hartzeko etorri nintzen".



**AIORA MUJIKAK**  
YOUTUBERRA

"Nire ibilbidea azaldu diet, eta bideo bat egiteko kontuan hartu behar diren oinarriko gauzez jardun dut gero: gidoi bat egiteaz, grabatzerakoan kamera non kokatu eta ze hondo aukeratu, edizioa... Gero, bideoak grabatu dituzte, eta atera dira ideia interesgarri batzuk. Oso ekimen polita izan da campusa".



**MALEN GONZALEZ**  
PARTE-HARTZAILEA

"Probatzeko eta arlo hauek ezagutzeko etorri nintzen, eta oso gustura ibili naiz. Gehien gustatu zaidana Ainhoa Vitoriarekin podcasten gainean egindako saioa izan da. Gainera, campusa ondo dago, ikasi egiten dugulako, baina modu praktikoan. Talde txikia gara, eta konfiantza lortu dugu elkarrekin".



**AINHOA VITORIA**  
IRRATI ESATARIA

"Oso gustura ibili gara campusean. Irratiak eta podcastak aukera ugari ematen dituzte, eta erakutsi nahi izan diet zenbat erregistro dauden gauza bat kontatzeko; kontatu daiteke albiste baten moduan, modu serioan, edo istorio bat kontatuz. Editatzen ibili ginen, gidoia egiten ere bai, eta ondo moldatu ziren".



Xabier Urzelai, fotokazetaritzaz, lehen egunean. KOMUNIKAZIO CAMPUSA



Argazkia egiten. KOMUNIKAZIO CAMPUSA



Vitoria, azalpenak ematen. K. CAMPUSA



Grabaketa egiten. KOMUNIKAZIO CAMPUSA



Talde osoa, Aiora Mujikarekin, eguaztenean. KOMUNIKAZIO CAMPUSA



# GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

➤ Oñati gestio  
heziketa

MATRIKULA

Uztailaren 19tik 21era

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"><li>•Administrazioa eta Finantzak</li><li>•Zuzendaritza Idazkaritza</li><li>•Salmenta Kudeaketa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•Mekatronika Industriala</li><li>•Automatizazioa eta Robotika Industriala</li><li>•Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa</li><li>•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li><li>•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li></ul>

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
943 71 80 09  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
664 298 704 • 664 298 683  
[onarpena.lhm@mondragon.edu](mailto:onarpena.lhm@mondragon.edu)





ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

## Konkistatuak oraindik

Azkenaldian, Nafarroaren konkistaren inguruko UEUko ikastaro batean parte hartu dut eta ikusi ditut bi erakusketa: Noain 500 plataformak eta Orreaga Fundazioak elkarlanean egindakoa bata eta Nafarroako Gobernuak egindakoa bestea. Nahiz eta askorentzat ezezaguna izan, oraina baldintzatzen duen gertakaria izanik aipamen bat merezi du.

1512-07-21ean, Nafarroako Erresuma inbaditu zuen Gaztelak, 12.000 soldadutik gora eta artilleria kopuru abantaila handiarekin. Erasoari aurre egiteko ahaleginak alferrikakoak izan ziren, inbaditzaileak uztailaren 25ean sartu ziren Iruñera. Erresuma berreskuratzeko ondoren izandako kontraerasoek ez zuten fruiturik eman.

1521-06-30eko Noaingo guduak Erresuma berreskuratzeko aukerak agortu zituen. Gaztelarrek soldaduz hirukoizten zuten nafar armadak 5.000 hildako inguru jasan zituen.

### AITA SANTUAK BULDA EGIN ZUEN ESANEZ ERREGE-ERREGINAK PROTESTANTEAK ZIRELA

Konkista haren ondoren, Gaztelako erregeak Nafarroako erregetza eman zion bere buruari, horretarako Foruak betetzea zin egin ondoren, eta erregeorde bat ezarri zuen. Fernando *Katolikoa* erregeak eginahalak egin zituen


konkistaren *zilegitasuna* lortu eta justua zela agertzeko, eta, horretarako, Julio II.a aita santuarekin tratua egin zuen. Hark bulda bat egin zuen esanez Nafarroako errege-erreginak protestanteak zirela eta haiei laguntzen ziena eskumikatuko zuela.

Egoerak antzera iraun zuen Nafarroako Erresuma deuseztatu eta Nafarroa Garaia Espainiako probintzia soil bihurtu zuten arte, I. Karlistaldia galtzean, 1941ean. Prozesu hartan, erregeordea, gorteak eta gaitasun legegile eta judizialak kendu zizkieten, aduanak Ebrotik Pirinioetara eta kostara mugitu zituzten eta moneta propioa jaulkitzeari utzi zitzaion. 1876an, III. Karlistaldiaren ondoren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foruak ere deuseztatu egin zituzten.

Eskubide gabe, zuzenbidearen aurkako konkista izan zen. Galdera da ea zergatik jarraitzen duen gaur egun herritarrok onartu gabeko eta indarkerian oinarritutako menpeko egoera horrek.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Udara

#### IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Eguzkiak esnatzen zaitu goizean goiz, arropa dago zintzilik kanpoan haizearekin dantzan. Belar moztu usaina; akaso, arratsaldean hondartzara joateko plana. Kirola egin, jogotik izerditu, dutxa fresko bat, dantza pixka bat egin bazkaria prestatu bitartean John Mayer entzuten. Zeruko lainoak begiratu formaz aldatzen, ogia jarri txigortzen.

Kantu berriak ditut nirekin, eta gauzak zer diren, beti estreinatzen ditugu kantak sortu eta urtebetera, gutxienez, eta ordurako beste

batzuk ditugu buruan bueltaka, eta beti dut trifulka txiki bera, niretzat nobedade direnean ezin partekatu izatea publikoarekin, eta publikoarentzat nobedade direnean nik ja heldu ikusten ditudala abestiak. Baina badu bere horretan magia, gauzak etengabe zirrargarri bihurtzen dira hartzaile berri batera heltzen direnero. Eta bi -edo mila, milioika- bider gozaten ditugu, guk jasotzean eta zuek jasotzean. Eta bitartean bizitza, eta aldi berean hori bera da bitarterik gabe. Zenbat eta pozago egon, orduan eta nahasiago idazten dut, bularrean dudan zurrunbiloak hitzak borborka

aterako balitu bezala. Askotan sendatzen dugu pena, baina gutxitan ospatu poza, pozik egoteak berak presentzia guztia hartzen duelako, eta kabitzearen, kontzientzia bera ere ez da kabitzen. Baina ze pozik zauden konturatzean, ai, ze ederra den dena. Poza eta bestea.

Kantu bete udara, kantu berrien usain, ilusio, emozio eta estasian biziko dut udara. Kantuak nireak, udara denona, eta kantuak jaiotzean, publikoarengana heltzean, kantuenak zuenak, eta udara nirea. Eta den-dena gorde ezin dudanez, testu honetan bi kantu berriren izenburuak daude gordeta.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranzburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Arebaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Eredu ekonomiko berria behar du Europak"

ADRIAN ZELAIA EKAI CENTER-EKO PRESIDENTEA

**Larraitz Zeberio / T.M. ARRASATE**  
*El futuro de Europa. Bases para un nuevo modelo* liburua kaleratu du Zelaia (Bilbo, 1959). Europaren gainbeheraren hainbat gako aztertzen ditu bertan.  
**Zerk eragin du gainbehera hori?**  
 Gainbehera ekonomikoa oso nabaria izan da 70eko hamarkadako krisiaren ondotik. Komeniko litzateke aztertzea zergatik gertatu zen hain hazkunde handia eta orekatua gerra osteko garaian, eta, horrekin batera, zergatik hasi ziren gauzak hain txarto joaten neoliberalismoa martxan jarri zenean. Neoliberalismoaren hasierako helburua zen enpresen irabazi-tasa handitzea inbertitzen jarraitzeko eta ekonomia garatzen joateko. Baina ez du funtzionatu. Ekonomia ez zebilen ondo eta zorra metatzen joan gara. Sistema mantendu da, batez ere, gehiegizko zorpetzeari esker. Gero, ekonomiarentzat



Adrian Zelaia. TXOMIN MADINA

pizgarri oso handia izan da milioika emakumek etxean egindako lana eta gehiegizko esfortzua. Emakumeen laneratze prozesuarekin ikusi da hori. Hazkundea artifiziala izan da. Liberalismoa prozesu

progresiboa izan da; ongizate estatua zalantzan jartzea, sindikatuen aurkako jazarpena, soldatak ez igotzea... Neurriak etengabeak izan dira 40 urteotan, eta, hala ere, ez dira

lortu espero ziren ondorio ekonomikoak.  
**Ze alor aztertu dituzue liburuan?**  
 Esperientzia handien dugun alorrak aztertu ditugu. Diru politikarekin lotutako proiektu bat garatu dugu hiru urtez Bruselan. Banku-sistemaren inguruko azterketak ere egin ditugu. Arlo teknologikoa ere oso garrantzitsua da. Gertatu den garapen teknologikoak zergatik ez du espero zen garapen ekonomikoa ekarri? Azkenik, ezin dugu ahaztu energia iturrien gaia.  
**Eredu berriak zein oinarri izan beharko litzuzke?**  
 Ez dugu proposamen itxi bat egiten. Joera eta proposamen desberdinak daude, eta uste dugu gako garrantzitsuena arlo politikoan kokatu behar dela. Garapen bidean dauden herrialdeetatik planteatzen den moduan, ziurtatu beharko litzateke errebisatzen dela gobernuen eta enpresa handien arteko harremana. AEBetako arazorik inportanteena da praktikan gobernuak enpresa handien azpian daudela. Kontrakoa gertatzen da garapen bidean dauden herrialdeetan. Gobernu indartsuak dira – akaso, indartsuegiak –, baina enpresa handiak gobernu horien azpian geratzen dira.

Garapen eredu berria interes orokorraren arabera definitu beharko litzateke, eta ez enpresa handien interesen arabera. Hori da, nire ustez, oinarri garrantzitsuena.  
**Liburuan jasotzen dituzue identifikatuta dauden bost proposamen nagusiak.**  
 Hainbat daude, baina duten indar politikoarengatik bost nabarmentzen dira. Daude, esaterako, neoliberalismoan nahikoa sakondu ez dela defendatzen dutenak. Daude, baita ere, arrakastatsua izan zelako gerra osteko eredura itzuli behar dela defendatzen dutenak. Hirugarren proposamena litzateke Berrabiatze Handia aldarrikatzen dutenena. Garapen bidean dauden herrialdeetatik, berriz, desarrollismo emergentearen teoria dator, eta bosgarrena da desarrollismo kontserbatzailea edo nazionalista. Hor sartzen da, esaterako, trumpismoa.  
**Eredua aldatzen ez bada, zein da Europaren etorkizuna?**  
 Gero eta pisu txikiagoa du. Joera horrek jarrailu egingo luke. Sistema ez da sostengarria. Ondorio dira krisi demografikoa eta zorpetze krisia. Gure sistema demokratikoa zalantzan egon daiteke bost-hamar bat urtera.

## ITURRI ONETIK

## Urrirako zabalik Natur Eskola berritua

2018an hasi zituzten Oñatiko Natur Eskola birgaitzeko lanak bukatzeaz daude. Barruan altzari batzuk jarri, gelak atondu eta kanpoko urbanizazio lanak egitea falta da. Bitartean, Eltzia eraikinean eman dute Natur Eskolako zerbitzua, baina datorren ikasturtean ohiko tokian egongo dira; hasita dira lekualdatzea egiten. Bioeraikuntzan oinarrituta egin dituzte birgaitze lanak eta barruan harkaiztegi berezi bat egongo da. Urriari jarriko dute. Inaugurazioa ere orduan egingo dute.

## ALBISTE IZAN ZEN

2006-07-05

## 50 urte bete zuten Lezetxikiko indusketek

Arrasateko Garagartza auzoko Lezetxiki haitzuloan indusketa lanak egin zituzten uztailan zehar. Hain justu ere, 2006koan, 50 urte bete ziren Aita Barandiaran lehen aldiz egiten hasi zenetik. Duela hamasei urte egin zen hartan, Alvaro Arrizabalaga arkeologoaren gidaritzapean jardun zuten hamabost ikasleek. Euskal Herriko hainbat herritatik etorritakoez gain, baita Malagatik, Portugaldik eta Australiatik ere.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

## Ez-sanferminak izan dira hizpide sarean

*@duguna:* "Sanferminak berriro bizitzen ditugunean, gehiago gozatu eta baloratuko ditugu".

*@marrakatue:* "Iruñean 7 urte edo daramatzat eta inoiz ez naiz egon San Ferminetan. Bueno bai, baina beste aldean: tabernaria eta alde zaharreko bizilaguna bezala. Eta zer esango dizuet... Ez-sanferminak gustatzen zaizkit".

*@joxerrasenar:* "Ez-festak, ez-sanferminak... eta gaur entzun dut ez-txupinazoa".

*@joxeanurkiola:* "Gaur ere, nahiz eta jairik ez egon, ospakizuna etxetik; txupinazoa".



# 2022ko udarako, Garibai etorbidea oinezkoentzat

Garibaiko eta Jokin Zaitegiko bizilagunen eskaeraren harira, Udal Gobernuak aldatu egin du 'Ekobulebar' proiektua, eta Garibai etorbidea oinezkoentzat izango da; uztaile bukaeran hasiko dituzte lanak eta Zalduspeko geltokia "laster" jarriko dute martxan

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Udal Gobernuak bizilagunekin bildu ostean hartu du erabakia. "Guk oso garbi esan genien haien eskaerak guztiz bat egiten zuela *Ekobulebar*-aren filosofiarekin, baina aurrera begira planteatzen genuela hori. Dena den, eskaera egin izanak erabakia azkartu du", adierazi du Maria Ubarrena alkateak.

Modu horretan, Kontzezino kalearen eta Biteri kalearen artean izango da aldaketa nabariena, autobusak desagertu egingo baitira zati horretatik eta oinezkoek izango baitute lehen-tasuna. Beraz, Kontzezino kaleko bideturutzetik Iturbide ondoko garajeetaraino, baimendutako ibilgailuek bakarrik izango dute sartzeko aukera; hau da, garajeetako jabeek, Iturbidera doazenek eta zaborra biltzeko kamioiek. Garajeetatik Biteri kale pareraino, aldiz, erabat izango da oinezkoendako.

Bestalde, lur azpiko parkingeko irteera zuzenean Biteri kalera bideratuko dute, gero San Bixente Ferrer kaletik ateratzeko. Halaber, egun dauden zuhaitzak mantentzeaz gain, beste zuhaitz-lerro bat ere egingo dute, berdegune lineal baten baitan. "Berdegune lineal horrek babesa emango dio bidetegiari eta



Geltokia egiteko Gobernuaren proposamenetako baten muntaia. ARRASATEKO UDALA

ondo bereiziko ditu oinezkoak eta bizikletak, biak ibiliko diren esparrua izango delako", azaldu du Juan Antonio Urdangarinek, Hirigintza Saileko buruak.

## Kulturola parean, plataforma

Era berean, egun Garibain taxientzat eta motorrentzat dauden aparkalekuak zein zamaletarako erabiltzen dituztenak Biteri kalera pasako dituzte eta Biteri kaletik Nafarroa etorbidera irteteko aukera bakarra San Bixente Ferrer kaletik izango da; izan ere, Na-

farroa etorbideetik Biterirako sarrera norabide bakarrekoa izango da, gune horretan trafikoa murrizteko helburuarekin. "TAO sistema martxan jartzen denean, gune hori egoiliarrendako izango da. Beraz, zamaletara doazenek ez beste guztiek ez dute inguru horretan ibili beharrik izango eta, beraz, trafikoa murriztu egingo da", azaldu du Urdangarinek.

Bidetegia Garibai etorbideetik pasako da eta Biteri kaletik jarraituko du. Gero, Kulturola azpitik pasatuko da eta Kultu-

rola parean plataforma bakarra jarriko dute, Araba etorbidean eta Arrasate pasealekuan dagoen moduan –gehienezko abiadura 20 kilometro ordukoa izango da plataforma bakar horretan–.

Alkateak dio *Ekobulebar*-a "are *ekobulebarrago*" bilakatuko dela Garibai oinezkoentzako izateak: "Bizilagunek eta baita merkataritza-sareak eta oinezkoek ere hiri erosoagoa eta atsegina izango dute. Herrigunea herritarrentzako nahi dugu berreskuratu, kaleak bizi, eroso eta seguru".

## Uztailean hasiko dituzte lanak

Maalako biribilgune inguruko lanak amaitu dituzte dagoeneko eta ur-parkea martxan jarri zuten joan den astean. Beraz, Zaldibar kalerantz jarraituko dute lanekin eta Biteri eta Garibai inguruko lanak uztaile bukaeran hasiko dituzte. Zalduspeko autobus geltokia ere "laster" jarriko dute martxan, Garibai etorbidean esku hartu ahal izateko.

## Lehenik, Zalduspen proba

Autobusei dagokienez, herri arteko geltokiak Nafarroa etorbideko biak izango dira, bi noranzkoetan, eta geltoki nagusia, hasiera batean, Zalduspen geratuko da, baina, aurrera begira, lau leku posible daude mahai gainean: Zalduspen bertan, Laubide plazako berdegunean –EH Bilduren proposamena aintzat hartuz–, Laubide plazan baina lur azpian –parkinga aprobetxatuz– eta Arruena parkean.

Dena den, egun indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) ez du aurreikusten autobus geltokirik. "Behin betiko geltokia egiteko, lursailak birkalifikatu egin behar dira eta HAPOn txertatu, mu-

gikortasun plana berriz aztertzearekin batera. Beraz, oso garbi ikusten dugu erabaki hori datorren agintaldian hartu beharrezkoa izango dela, berrikuspena egiteko zortzi urteko epea pasa behar baita HAPO azkenean burutu zenetik; 2016an, kasu honetan", azaldu du alkateak.

## Abiapuntu ona, baina...

Oposizioan dagoen EH Bilduk lehen hausnarketa bat egin du, eta, "gaia sakonago aztertu bitartean", hiru ondorio nagusi ateratu ditu: batetik, Garibai oinezkoentzako izatea ondo ikusten du "lehenengo pauso" moduan: "Laubide proiektuan hala proposatu baitugu hasieratik, herritar askorekin kontrastatu ostean".

Abiapuntu hori, dena den, ez zaio nahikoa iruditzen, "beste gauza asko gelditzen baitira erdibidean esparru horretan; esate baterako, Biteri autorik gabeko gune izatea, bidetegi sare integral bat, inguruko kaleetako trafikoa birbideratzea, autobus geltokiaren izaera eta kokapena".

Azkenik, koalizioak esan du Gobernuak Laubide proiektuari "ezikusiarrena" egin diola hasieratik. "Baina ez zaio beste erremediorik geratzen ari herritarrekin landu dugun proiektu hau urratsez urrats gauzatu baino, nahi gabe ere EH Bilduri arrazoia emanen", gaineratu du. "Bejondeizuela, bejondeigula".

## BUS GELTOKI BERRIA EGITEKO, LAU AUKERA DAUDE: ZALDUSPEN, ARRUENAN ETA BI AUKERA LAUBIDEN

## Kulturolako horma, printzipioz, margotu gabe geratuko da

Kulturola eraikineko hormaren murla aukeratzeko lehiaketa publikoa jarri zuen martxan Udalak maiatzaren 12an. Zazpi proposamen jaso dira, baina epaimahaia aho batez lehiaketa hutsik uztea erabaki du.

Parte-hartzeilei eskerrak eman dizkiete epaimahaikideek, baina lehiaketa esleitu gabe uztea erabaki dute, honako arrazoi

hauengatik: "Aurkeztutako proposamen eta irudietan ez da ikusten lehiaketarako ezarritako helburuekiko korrespondentzia-adierazpen argi eta sendorik; ez dute proposamen-elementurik tokiko industria-tradizioaren eta Kulturolaren arteko sinbiosi artistiko nahikoa iradokitzeneko kultura-fabrikaren ideia gisa; ez dute garbiketa sintetikorik lehiaketaren helburuetara egokitzen eta bat ere ez da eraikin batean aplikatu daitekeen nortasun-ezaugarri".

## Datozen egunetan hasiko dira TAO guneak murrizten

Irail bukaeran edo urri hasieran jarriko dute martxan TAO sistema berria, baina guneak murrizteko lanek hiru hilabete inguru iraungo dutela aurreikusiko du Arrasateko Udal Gobernuak. Astelehenean ziren hasitekoak guneak murrizten, baina eguraldia dela-eta atzeratu egin dute eta datozen egunetan hasiko dira lan horiekin. Beraz,

autoa epe luzez geldirik utzi behar dutenei bestelako aparkaleku batzuk erabiltzeko eskaera egin du Gobernuak.

Gelmako biribilguneetik San Andreserainoko aparkalekuetan ezarriko dute TAO sistema, ospitalean eta Zalduspe gunean izan ezik. Hala, Aldain, Txatetan eta Zerrajeran, esaterako, jarriko dute. Era berean, Musakola, Erguin, Obenerreka, Makatzena, Santa Marina eta Santa Teresa, besteak beste, salbuetsita geratuko dira.

## Kirol azpiegituren mapa osatzeko prozesua aurrera doa

Hamahiru kirol klubek hartu dute parte ekainean, eta orain instalazioetako erabiltzaile-taldearekin eta herritar-taldearekin batzen hasi dira udal ordezkariak. Ausaz aukeraturako zortzi pertsonak osatzen dute erabiltzaile-taldea. Musakola kiroldegikoak lau dira; Iturripeko erabiltzaileak, bi; eta Uarkapeko erabiltzaileak, beste bi.



# Erguingo lau igogailuak erabilgarri daude atzotik

Dagoeneko inauguratu dute Erguin auzoko igogailu sistema. Aurrerantzean, 24 orduz egongo dira martxan lau igogailuak, segurtasun kamerekin, eta edozeinek erabili ahal izango ditu; Andoni Altzelai auzo-alkatea esan du aurrerapausoa dela auzoarentzat



Udal ordezkariak eta Andoni Altzelai, auzo-alkatea, hainbat bizilagunekin. E.A.

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Igogailu sistema jartzearekin batera, inguruak berrurbanizatu ditu Udal Gobernuak; Udalpe plaza, esaterako. Hori egiteko lanek hamazortzi hilabete iraun dute eta proiektuak 2.570.352,76 euroko aurrekontua izan du – BEZa barne-. "Auzo altu hauek jende nagusi asko bizi da, baita ezinduak eta umeen karrarekin doazan ere. Horiei guztiei egunerokotasuna erraztu egin behar zaie, eta irisgarritasun bertikalari garrantzia ematen diogu horretarako. Beraz, espero dugu igogailu hauekin egunerokotasuna eta kalitatezko bizimodua erraztu ahal izatea bizilagunei", adierazi du Maria Ubarretxena alkatea.

Andoni Altzelai auzo-alkatea pozik azaldu da dagoeneko igogailuak martxan izatearekin eta azpimarratu du auzoarentzat oso aurrerapauso garrantzitsua dela. "Herritar helduen kopurua altua da auzoan. Beraz, batzuek,

agian, ez dituzte igogailuak aprobetxatuko, baina gehienek bai". Erguin auzoan 6.000 herritar inguru bizi dira, Altzelaik azaldu duenez, eta bizilagunen partetik orain arte jaso duen erantzuna, oro har, positiboa izan dela aitortu du auzo-alkatea. "Hurbil bizi direnak oso pozik daude. Beste bizilagun batzuek adierazi digute ea zergatik ez dituzten jartzen beste leku batzuetan ere. Baina guztiondako izango da aukera ona".

## Lau igogailu, hainbat geraleku

Lehen igogailuarekin, Uribarri etorbideetik Urriburu kaleko bi mailetara iristen da; bigarrena Urriburu kaletik Erguin kaleraino doa; hirugarrena Erguin kaleko 20. ataritik Udalpe plazara doa, tartean Elizalde kalean ere geratuz; eta laugarrena, azkenik, Udalpe kaleko 10. atari ondok Anboto kalera igotzen da, tartean Anboto azpialdeko kalean ere geratuz.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

## Txiringituek

Lehenengo baten, pote bat hartzen ninguela hara zer botastuen ezagun batek: Ze pentzeta jak Toni Cantori emun tzien txiringitue?

Nor dok hori? Ez tok ezauketan? Bai, joder! "la Ayusok" montau jutzek txiringito bat Madrilen, 76.000 Euro. Madrileran fan barik pe hemen bajazak horrenbeste kobretan dauenak pa, nik. Bueno baina horreina lotzagarrixe dok, tipo horrek ezer in barik hori dirutzioi jaso bijok urtero.

Ta gurien etxak holakoik? Hemen? holakoik eztok ikusiko! harrotu dok, Debagoienien nik etxuat txiringitorik ezauketan. Kostau ingo jak diru publikue hemen baino zuzenau gastauko dan lekuren bat topetie munduen eta entxufaurik... ezta.

Madrilen etxabitzek bape ondo, sikera Almuđenalab ingo baleue, gurien Arantzazulab montau dauen moruen. Zera, "ikerketa gune" serixo bat, hausnarrien egoteko. "Esparru desberdinetatik datozen ezagutzak" konbinauko dittuena, jente preparaue. Azkeneko hau etxutzat oso ondo jaso baina lasaixau geratu nok. Eske benetan, madrileñuek pena emute juek.

ARRASATE  
BLUES

UZTAILAK  
15, 16, 17 ETA 18

UZTAILAK 15 • 19:00PM | HERRIKO PLAZA  
**ITZIAR YAGÜE  
QUINTETO**  
 UZTAILAK 16 • 19:00PM | EUSKAL HERRIA PLAZA  
**ERROMINTXELAK**  
 UZTAILAK 16 • 20:30PM | OTALORA LIZENTZIATUA  
**VOODOO CHARMS**  
 UZTAILAK 17 • 12:00PM | PORTALOI  
**ANIMAL JANE**  
 UZTAILAK 17 • 13:00PM | JOKIN ZAITEGI PLAZA  
**IKER PIRIS & SHEILAH CUFFY**  
 UZTAILAK 17 • 19:00PM | FERERIAS KALEA  
**NOA &  
THE HELL DRINKERS**  
 UZTAILAK 17 • 20:30PM | HERRIKO PLAZA  
**MISSISSIPPI QUEEN &  
THE WET DOGS**  
 UZTAILAK 18 • 12:00PM | PORTALOI  
**ESTITXU**  
 UZTAILAK 18 • 13:00PM | ARBOLAPETA  
**MARIO  
FERNANDINO**  
 UZTAILAK 18 • | KALEETAN ZEHAH  
**8,46 DIXIE BAND**  
 UZTAILAK 18 • 19:00PM | ARBOLAPETA  
**WILLY  
(LOS BRAZOS)**

Blues  
Km. 0

LAGUNTZAILEAK  
 NHI • ITZALA • EZKIÑA • KAJOI • MONTE •  
 1990 • IRATI • TALPA • DOKE • EUENJENA

www.ARRASATEBLUES.EUS  
 ©2021



# la 1.000 lagun mugiarazi ditu aurten Sasoibidek

Ignaziotar Bidearen lehen etapa eginda agurtu du ikasturtea Sasoibidek; pandemia urtea izan arren, 64 irteera egin dituzte eta 974 herritarrek hartu dute parte horietan; antolatzaileak "oso pozik" daude, hasierako kezak uxatuta, izan duten harrerarekin

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Ikasturte hasieran beldur zirela onartu du Margari Gorrotxategik, ekimenaren antolatzailetako batek. "Ez genekien ze neurri egongo ziren indarrean, zer egiteko aukera izango genuen, eta partaideetako askok esan ziguten ez zutela parte hartuko, beldurratetik. Bestetik, denbora askoan ezin izan gara Arrasatek irten eta kopuru txikietan antolatu behar izan dugu, neurriak errespetatuz. Beraz, buruhauste handiak eduki ditugu astero bi irteera antolatzeke, baina, emaitza ikusita, mezezi izan du", gaineratu du.

Esan moduan, 974 lagun mugitu dituzte ikasturte osoan -872 emakume eta 102 gizonezko-. "Iazko urteekin alderatuta, kopuru hori hazi egin da". Hasieran, eguenetan bakarrik egiten zizuten irteerak, baina iaz bigarren saio bat gehitu zuten, eguaztenetakoa, "jende askok" horretarako eskaera egin zielako. "Beraz, eguaztenetan 30 irteera egin ditugu eta eguenetan, 33. Bestalde, lilatoian ere hartu genuen parte, gure erara; hala, 64 irteera, guztira", nabarmendu du Gorrotxategik.

Oro har, 55 urtetik gorakoei zuzendutako ekimena da, baina, gehienbat, 69 eta 74 artekoek



Ignaziotar Bidea egiten, ikasturteko azken irteeran, Azkoititik pasatzen. SASOIBIDE

hartzten dute parte. "Hala ere, 80 urtetik gorako hiru pertsona ditugu, eta 55 urtetik beherako bat ere etorri izan da. Izan ere, prest egonez gero, adina ez da arazoa guretzat".

## Irteerak, harremanak, kultura...

Paseoen bitartez etxetik irten, harreman sozialak handitu eta alde fisikoa lantzea izan zen Sasoibideren helburua, 2018an sortu zutenean, eta gaur egun ere horretan dihardute. "Osakidetza erizain bat etortzen zaigu elikadura arloko aholku

batzuk ematera, TAFYDeko ikasleak ere izan ditugu lagun, arlo fisikoa lantzeko, eta Udaleko Kirol teknikariarekin ere saio bat egin dugu. Halaber, arnasketa, indarra eta erresistentzia lantzeko ariketak egin izan ditugu, baita bastoiak erabiltzen ikasteko saioak ere", dio Gorrotxategik. Horrez gain, kulturalki aberasteko ere balio die partaideei, Arrasateko historia eta kultura ere ezagutzen dutelako. "Arrasate gehiago ezagutaraztea eta Arrasateren balioak aintzat hartzea ere bada

helburuetako bat. Alde horretatik, ekimen osatua da gurea, arlo asko lantzen ditugulako".

## "Denon ekimena izan behar da"

Datorren ikasturtera begira gogotsu daude, eta "ezinbesteko" ikusten dute irteerak egiten jarraitzea. Dena den, arazo txiki bat dutela aitortu du Gorrotxategik. "Lorea eta biok gara guztia antolatzen dugunak, baina gura dugu ekimena guztiona izatea, ez gurea bakarrik. Beraz, zabaldu egin gura dugu datorren urtera begira. Ikusten dugu ekimenak oso harrera ona daukela, baina ez gure nahi, inoiz Lorea eta ni falta bagara, bertan behera geratzerik. Bloga ere sortu dugu, eta hori mantentzea gurako gure, eta, horretarako, jende gehiagoren laguntza beharko gure".

Bestalde, nolabaiteko elkarte egitura bat sortzea gurako lukete, herrian "topagune inportantea" direla iritzita. "Beraz, laguntza instituzionala ere beharko gure, Udalaren laguntza gehiago, beste sostengu eta egonkortasun bat izateko".

## Datorren ikasturtean, gehiago

Laster hasiko dira ikasturte berrirako prestatzen eta antolatzen. Izan ere, dagoeneko askotariko irteerak dituzte buruan, oraindik egiteke dituztenak. "Badirudi osasun egoera hobea izango dela datorren ikasturterako, eta gustatuko litzaziguke, Arrasatez gain, inguruko herriak ere hobeto ezagutu ahal izatea: Oñati, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, eta abar". Horrez gain, pandemiagatik eten behar izan zizuten hainbat irteera ere egin gura dituzte: Gasteizko katedrala eta inguruak eta Hondarribia, esaterako.

## Zertarako balio dizu zuri Sasoibidek?



MARIJE ETXEBARRIA  
SASOIBIDEKO PARTAIDEA

"Izugarrizko aurkikuntza izan da. Harreman berriak egiteko aukera eman dit, eta hori benetan ederra da. Ignaziotar bidearen etapa, esaterako, egun borobila izan zen, oso polita. Bereziki eskertzekoa da Margarik eta Loreak egiten duten lan zoragarria".



LOLI BALANZATEGI  
SASOIBIDEKO PARTAIDEA

"Pandemia dela-eta bisita gidatuak faltan igarri ditut, baina oso gustura aritu naiz. Leku berriak ezagutzeko zein harreman sozialak sendotzeko balio dit. Loreari eta Margariri eskerrik beroenak eman gura dizkiet. Hamarreko lana egiten dute".

## Freskura egitasmoko tailerretan izena eman beharko da

Uztaileko martitzen eta eguenetan askotariko tailerrak egingo dituzte Monterronen, 17:30ean hasita. Hilaren 13an, esaterako, makedo tailerra egingo dute; hilaren 15ean, zirku; hilaren 20an, txabola lehiaketa; eta 22an, ipuinen eguna. Haur eta familiei zuzendutakoak izango dira eta Freskura txokoan eman beharko da izena, Monterronen bertan.

## Auzo eta kaleetako jaiak bertan behera utzi dituzte

Uztaileko asteburuetan hainbat jai izaten dira Arrasateko kale eta auzoetan, eta, egoera ikusita, aurten bertan behera utzea erabaki dute. Santa Marina auzoko jaiak, esaterako, uztailearen 16tik 18ra izango zireratekeen, eta Zerrajerakoak ere bai. "Izango dugu denbora aurreko urteetan bezala dibertitzeko", dio Santa Marinako auzo-alkatetzak.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke



# Domina zaporeko agurra, garai bat atzean uzteko

Arrasate Dragoiko gimnastek urrea eta zilarra ekarri zituzten joan den asteburuan Valentzian jokaturako Espainiako txapelketatik. Gehienak unibertsitatera joango dira orain, eta ezin izango dira entrenatzen jarraitu: "Normalena da 17 urterekin uztea"

## Hasier Larrea ARRASATE

Gimnasia erritmikoa txiki-txikitatik praktikatu ostean, taria gainean aritzeari utziko diote Dragoi gimnasia taldeko kirolari nagusienek. "Pena" sentitzen dute, batez ere, klubarekin "harreman bikaina" izan dutelako, baina, kirol gogorra dela-eta, beste eginkizun batzuetan murgilduko dira aurrerantzean: "Urteekin gorputzak gero eta gehiago igartzen du esfortzua, eta 17 urtera arte aguantatzea merituzkoa izan ohi da", diote, aho batez, Nahia Ruiz, Irati Larrinaga, Uxue Azkue, Nahia Irazola eta Ekiñe Balanzategi arrasatearrek.

Aurten, aerobikean, taldeko kide gehienentzat ezezaguna zen modalitatean, espezializatu dira, gimnasia erritmikoan bakarrik aritzeak ez ziekeelako normaltasunez entrenatzea ahalbidetuko: "Pandemiagatik kirolari erdiprofesionalak izatea beharrezkoa zen jarduera ez eteteko;

ondorioz, aerobikeko kirolari bezala erregistratzeak bakarrik balio zigun".

## Laugarren onenak Valentzian

Horregatik hartu dute parte mota horretako txapelketetan azkenaldian, eta ez dira batere txarto ibili, nahiz eta onartzen duten gimnasia erritmikoak baino erresistentzia eta indar handiagoa eskatzen duela. Esanak esan, eta nahiz eta "klub txikia" izan, Espainiako txapelketan aritutako hamaika klubetan laugarren emaitza kolektibo onenak erdietsi dituzte, bikotekako N4 mailan txapeldun eta taldekako aerostep N3 mailan txapeldunorde izan direla ahaztu gabe.

Aerobikean gustura aritu direla aipatu dute Dragoikoek: "Giro polita dago, eta espero dugu klubak modalitate honi jarraipena ematea". Gazteagoei izan beharko da, eurek eman baitute zeukatena onena.



Gimnastak, aurreko astean lortutako dominekin, Uarkape kanpoaldean. H.L.



Nahia Irazola eta Uxue Azkue, Valentzian burututako saioan. ARRASATE DRAGOI

## Binaka, podiumaren gailurrera

Gimnasia erritmikoa eta aerobika uztartu dituzte azken zazpi urteetan Dragoi gimnasia taldeko Uxue Azkuek eta Nahia Irazolak. Iaz, Frantziara joan ziren, nazioarteko txapelketan lehenengoz lehiatzera, baina pandemiak bertan behera laga zuen torneo. Aurreko asteburuan kendu zuten orduko arantza.

Hemengoa izatea ona da

Badakizu zer esaten zion Mirenek bere amamari entsalada prestatzen zuenean?

kus ezazu hemen:

#IstoriodunProduktuak

Istoriodun produktak.

Eroski Natur

Euskadi

EROSKI NATUR Eusko Label Tomatea

Euskadi

EROSKI NATUR Bolavika Eusko Label uraza

Euskadi

EROSKI NATUR Euskal Baserri pipermina

Eroski Natur

Euskadi

EROSKI NATUR Eusko Label piperra

EROSKI ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE, Tel.: 943 71 10 30



# Akrobazien bidez, genero-rolak kolokan

Berdinki zirku konpainiak 'Mikra' izeneko obra aurkezten dihardu plazaz plaza, eta gaur Biterin egingo du geldialdia, 19:00etan, Udazabal egitarauarekin lotuta. Gorputz mugimenduak eta euskara uztartzen ditu ikuskizunak, adin guztiek ulertzeko moduan

**Hasier Larrea** ARRASATE

Euskarazko zirku egitea ez zen batere ohikoa duela gutxi arte. *Gure zirku*a proiektua mugarriz izan da eginkizun horretan, eta bertan bat egin zuten artistek ikusi dute hemen ere posible dela "zaletasuna ogibide duin" bilakatzea. Horren adibide da, hain justu, ekimen horretan akrobata-lanak egin zituzten Irati Gonzalezen eta Koldo Arakistainen kasua. 2019ko azaroan, Karrika plataformako finalistak izan ostean, Berdinki zirku konpainia eratzeko dirulaguntza jaso zuten, Gonzalezen esanetan, "pieza txikiak egitetik adierazpen sakonagoetara" pasatzeko.

"Pandemiaren krisia gainduta eta iaz emanaldi batzuk eginda", *Mikra* izeneko euren lehen obrarekin hamar saio egin zituzten ekainean. Orain, Arrasatera etorriko dira, "jendeari gustatu" egin zaion saioa aurkeztera: "Teknikari mezua erantsen diogu akrobazia, dantza eta antzerkiarekin; bisualki iruditegi berri bat sortzea da helburua, gorputz adierazpenak grabatutako soinuekin indartuz".

**Berdintasunaren bila**

Iruditegi berri hori bizitzan zehar ikasitako estereotipo, genero-rol eta etiketak zalantzan jarri

eraiki nahi dute. "Bi motatako akrobata daude, oinarria jartzen dutenak eta arinak direnak; bereizketa hori, ordea, ez dator bat artista bakoitzaren izaerarekin, eta ideia polita iruditu zitzaigun kontraesan horrekin jolastea", dio Gonzalezek.

Genero harremanetan oinarritutako desberdintasunak plazaratzeaz gain, hizkuntza ezberdinetan adierazten diren akrobazien berri ere emango dute, dramaturgian eta generoan adituak diren sortzaileen laguntzarekin ondutako emanaldian.

**Udazabalen hurrengoak**

Datorren egunean, hilak 14, Usaetxe plaza izango da Udazabal egitarauko protagonisten agertokia. Julen Alonso trikitalariak *Sutan dantzan* diskoko kantuak eskainiko ditu, musikari eta dantzari ugari alboan izango dituela. Eñaut Zubizarreta *Trigger* ere igoko da oholtzara. Eskoriatzarrak biolontxe loaren bidez sortzen ditu abesti propioak; gehiago jakiteko, aste honetako *Puntua* aldizkariko *Gure artistak* atalak dakar musikariari eginiko elkarrizketa.



Arakistain zarauztarrak eta Gonzalez irundarrak osatzen dute Berdinki. HODEI UNZUETA

## Aire zabaleko emanaldiz josiko dira kaleak hilaren 15etik 18ra

Blues doinuak, tokiko musikariak eta emakumeen presentzia esanguratsua ekarriko ditu Arrasate Bluesek

**H.L. ARRASATE**

Iazko aldian pilatutako esperientzia baliatuko dute Arrasate Blueseko antolatzaileek koronabirusarekin lotutako ezbeharrak ez gertatzeko jaialdiak irauten duen lau egunetan. Kontzertuak eskainiko diren zazpi guneen inguruko tabernetako terrazak handitu egingo dituzte emanaldiek iraun bitartean –Herriko Plaza, Arbolapeta, Otalora Lizentzia-duna, Portaloia, Euskal Herria plaza, Jokin Zaitegi plaza eta Ferrerías kalea–, eta mahai bakoitzeko lau eserleku egongo dira. Eta gel hidroalkoholikoak jarriko dituzte mahai-inguruetan sakabanatuta.

Detaleak zaintzea gustuko dute Ibai-artekoek; Jon Apraiz kideak esan duenez, gelei Arrasate Bluesen logoa eta euskarazko argibideak jarriko dizkiete, jaialdiko kamisetak egongo

dira salgai, gutxienez, Herriko Plazan jarriko duten postuan –Kajoi tabernan eskura daude, gaur-gaurkoz–, eta etiketa propiodun garagardoa ere eskuratu ahal izango da ekitaldian euren aletxoak jarri duten hamar establezimenduetan: "Zerbezamarkarekin akordioa loeginrtu dugu, tabernetan merkeago saltzeko".

**Egunean hasiko da**

Jesusi Etxebarria irakasleak "sorpresaz betetako omenaldia" jasoko du estreinako emanaldian. Herriko Plazan izango da hori, hilaren 15ean, 19:00etan hasita, eta Arrasate Musikaleko hiruzpalau taldek irekiko dute festibala. Ostean, Itziar Yague eta bere banda igoko dira oholtzara; abeslari gasteiztarra sakonago ezagutuko du *Puntua*-ko irakurleak *Kultura* atalean.

## Txakolin Eguna hilaren 17an

Uztailko hirugarren zapatuetan baserriarren azokan dastaketa egiteko postua jarri dute orain arte bailarako txakolin ekoizleek, baina aurten zabalkunde handiagoko izango du eskaintzak, Ibai-arteren esku-hartzeagatik. Arrasate Bluesekin bat egiten duenez, eta "denok gozatzeko moduko jai globala" egin guran, Seber Altubera mugatu baino gehiago, 42 establezimendutan eskatu ahaliko dute herritarrek ibarreko mahastietatik irteten den edaria, prezio berezian: "2,5 euroren truke, kopa bat txakolin eta gilda bat egongo dira salgai", aipatu du Apraizek.

Erdiguneko tabernetan ez ezik, Erguin, San Andres, Kontzezino, Munar eta Musakolakoetan ere egingo dute promozioa, txakolin ekoizleen lana "herrian lau haizeetara" hedatzeko asmoz.

## BIG BAND TALDEAREN KONTZERTUA

**GOIENA TELEBISTA**

UZTAILAREN 9AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
ARRASATE MUSIKALEKO BANDAK  
MONTERRONEN ESKAINITAKO KONTZERTUA



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# Erregistro berria dauka parrokiako organoak

Azken hilabeteetan San Martin elizako organoa berritzen ibili da Sergio del Campo otxandiarra. Erregistro berria ipini dio; izan ere, desagertuta zuen. Uztailaren 16an kontzertua eskainiko du parrokiaren Esther Ciudad organo-jotzaile zaragozarrak

## Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

San Martin parrokiako organoa berritu egin dute azken hilabeteetan. Azken ukituak ematen dabilta orain, hilaren 16rako prest egon dadin. Izan ere, Arabako Diputazioak antolatzen duen organoaren jaialdiaren barruan emanaldia egingo dute.

## XIX. mendekoa

Aramaiokoa iberiar estiloko organoa da, XVII. eta XIX. mendeen artean egiten zen organo mota; hain zuzen, 1832an egin zuen Manuel Amezua bilbotarrak. Honela dio organoaren barruan dagoen idatziak, gazteleraz: *Organo hau Manuel Amezagak egin zuen, sortzez Bilbokoa eta Nafarroako Erreinuako Etxalekun bizi denak, 1832an*. Hamazazpi erregistro ditu, eta 900 tutu. Teklatu bakarra duen organoa da, baxuekin eta tripleekin. Ondo kontserbatu den arren, hainbat konponketa egin zaizkio. Jose Ignazio Larramendi frantziskotarraren aginduetara sortu zuen organoa Amezuak.

Urrian hasi ziren organoa berritzen. "Jaungoikoari eskerrak, orain dela bost bat urte hil zen Maria Teresa Irasuegik diru kopuru bat utzi zion parrokiari. Kontuan hartuta nik organo ikasketak ditudala, organoa berritzea erabaki nuen", azaldu du Enrike Vazquez parrokoak. Organoa ez zegoela egoera txarrean nabarmendu du, baina orain dela urte batzuk konturatu zirela erregistro bat desagertuta zegoela, eta aprobetxatu egin dute erregistro hori jartzeko. Erregistroaren bitartez organoak soinu ezberdinak atera ditzake —flauta soinu, klarinete, tronpa...—. Berritzea egiteko, 12.000 bat euro parrokiak jarri ditu eta 6.000 euro gotzaindegia.

## Organogilearen lana

Sergio del Campo otxandiarrek berritu du organoa. "Garai har-



Organogilea eta parrokoa, organoaren alde banatan. A.E.G.

## 1832. URTEAN EGIN ZUEN IBERIAR ESTILOKO ORGANOA MANUEL AMEZAGA BILBOTARRAK

tan egiten zen ohiko organoa da. Teklatu bakarra du, erdibituta, eta bi zati horiek batuz nahi beste kontraste egin daitezke", azaldu du. Azken 25 urteetan organogile lanetan dihardu del Campok. Ikasketak Torquemadan eta Ingalaterran egin zituen, eta gaur egun Euskal Herrian ibiltzen da organoak konpontzen.

## Mendialdua organo-jotzailea

Aramaioko parrokiako organo-jotzailea Bittor Mendialdua da azkeneko urte luzeetan. Domeketan eta hileta elizkizunetan jotzen da organoa Aramaion, eta, parrokoaren esanetan, organoa egoera onean mantentzeko onena izaten da erabiltzea. Geldi egonez gero, hondatu egin da. Hala, datorren egunean egongo da organoaren soinu berria entzuteko aukera.

## Esther Ciudad musikariaren emanaldia

Arabako Diputazioak antolatzen du Arabako Organoaren Jaialdia. Aurtengoa 35. aldian izango da; urtebeteko etenaldiaren ondoren, gogotsu ekingo diote berriro ere jaialdiari. Atzo, eguna, hasi zuten jaialdia, Gasteizen. Hurrengo geldialdia uztailaren 15ean izango dute, Gasteizko El Carmen elizan, eta uztailaren 16an, berriz, Aramaioren txanda izango da.

Esther Ciudad organo-joleak egingo du emanaldia, 19:00etan, San Martin parrokiaren. Bost pieza eskainiko ditu. Esther Ciudad zaragozarrak da, eta han egin zituen piano ikasketak; ondoren, Bartzelonan eta Europako hainbat hiritan ibili da teknika lantzen.



El Exterminio de la Raza del Mono, zapatuko emanaldian. IMANOL SORIANO

## Herriko musikariaren emanaldiek izan dute arrakasta handien

Eguraldia lagun, jende asko ibili da 'trantsizio jaietan'. Udalak "arduraz eta zentzuz" jokatu izana eskertu du

## A.E.G. ARAMAIO

"Gogotsu" hartu dituzte aramaiokorrek *trantsizio jaiak*. Antolatu diren ekitaldietan jende asko ibili da, eta segurtasun arauak errespetatuz "jai giro elegantea" izan dutela nabarmendu dute Jai Batzordeko kideek. Nabarmenezkoa da musika emanaldiek izan duten arrakasta. Zapatuan herriko taldeen emanaldiaz goatzera "espero baino jende gehiago" joan zela dio Unai Etxenautia antolatzaileak, eta astelehenean Idoia Asurmendik eskaini zuen emanaldia "polita eta hunkigarria" izan zela.

## Erantzun ona

"Antolatzaileek ezarritako arauak errespetatu egin dira eta herritarren erantzuna izugarria izan da", dio Etxenautiak. Txosnaguneko arauak errespetatu egin direla nabarmendu du. Antola-

tu dituzten beste zenbait ekintza ere nabarmendu ditu aramaiokorrek: "Mus txapelketan adin guztietako jendeak parte hartu zuen, eta *street boulder* ekimenean aparteko giroa egon zen".

Etxenautiak dio astelehen gauerako txosnetan zuten jeneroa amaitu egin zela: "Beste urte batzuetan gertatu izan den moduan".

## Udalaren balorazioa

Udalak egin du balorazioa: herritarrek eskertu gura ditu, "arduraz eta zentzuz" jokaturik lau egun hauek posible egin dituztenei. Hala ere, Udalak eskatu du besteekiko errespetua eta inguruak garbi uzteko. Izan ere, ekintzak amaitu ondoren eta txosnagunea eta tabernak itxi ondoren, "kanpokoek eta herritarrek zikintasuna eta zarata eragin dute, aste bukaera askotan bezala".

## San Martin kopako finalak jokatu dituzte domekan

San Martin txapelketako pilota partiduak jokatu dituzte domekan, 11:00etan hasita. Lehenengo, Arabako lau eta erdiko finalerdiak jokatu dituzte: Olaizolak Arriolabengoaren aurka eta Del Campok Jausororen aurka. Ondoren, San Martin kopako finalak: Aitzol eta Anje Eñauten eta Xabaten aurka eta Ur Oinatzen aurka.

## Bertsolaritza eta musika bat eginda, egunean, parkean

Bertsoa eta musika uztartuko dituen ekitaldia izango da *Altxa kopla hori!* Arabako bertsozale elkarteak antolatuta, uztailaren 15ean izango da emanaldia, 20:00etan, parkean. Irati Anda, Manex Agirre, Xabier Antia eta Orlando Arreitunandia izango dira bertsolariak; musikariak, aldiz, Mikel Goikouria eta Unai Mendibil.





Mitarte kalean jarritako terraza bat. MIRARI ALTUBE

## Zabalik terrazak jartzeko laguntzak eskatzeko epea

Udalak abian jarri duen dirulaguntza berriak establezimenduek egindako material erosketen edo inbertsioen %30 arte finantzatu du, gehienez 3.000 euro bakoitzeko, eta eskaera egiteko epea irekita dago, urriaren 29a arte

### Mirari Altube ARETXABALETA

Ostalaritzari laguntzeko beste programa bat jarri du abian Aretxabaletako Udalak. Terrazak pandemiaren aurkako prebentzio neurrietara egokitzeko herriko ostalariak egin behar izan dituzten gastuak arintzeko izango da. Inbertsioaren %30era arte finantzatu da, eta gehienez 3.000 euro emango dizkiote negozio bakoitzari.

Udalak 90.000 euroko partida bideratu du zuzeneko dirulaguntza programa horretarako, eta hori 2021eko aurrekontuetan dago jasota. Eskaerak aurkezteko epea dagoeneko zabalik dago eta urriaren 29an bukatuko da.

### Egindako inbertsioak laguntzea

Laguntza horiek bideratu dizkiete herriko ostalaritza jardueri, eta baita, sektore horretakoak izan gabe, terraza zerbitzua dutenei ere. Pandemiaren ondorioz egindako inbertsioak laguntzea du helburu, 2020ko

martxoaren 14tik 2021eko urriaren 29ra bitartean egindako erosketak edo moldaketak finantzatzea, hain zuzen ere; horien artean daude toloak, eguzkitakoak, haimak, berogailuak eta bestelako altzariak.

### Beste laguntza batzuk

Pandemiak ostalaritza sektorea "astindu" du. Eta Udalak hainbat neurri hartu gura izan ditu osasun krisiak taberna eta jatetxeetan izan duen eragin ekonomikoa murrizteko. Ildo horretatik, jarduerari eta enpleguari eusteko dirulaguntzak eman zituzten: 2020ko bi hiruhilekoren baliokidea zen zaborraren tasa ez zitzaien kobratu, eta terrazaren tasa kendu egin zen iaz, baita

**2020KO MARTXOAREN 20TIK 2021EKO URRIAREN 29RA ARTEKO INBERTSIOAK LAGUNDUKO DITUZTE**

2021ean ere. Gainera, bide publikoan terrazak jarri ahal izateko lehenengo udal ordenantza onartu zuten.

### Ostalariak zain

Terrazaren erabilera "erregulatu beharra" zegoelako egin zutela ordenantza adierazi du Unai Elkoro alkateak: "Ostalariak inbertsioak egiterakoan berme bat izan dezaten ere bai". Dena den, kontua asko aldatu dela azken asteotan uste du eta egoeraren bilakaeraren zain daudela ostalariak: "Orain arte terrazek garrantzi handia izan dute, baina hemendik aurrera ikusi egin behar. Izan ere, terrazetan fundamentuzko zerbait jartzeak inbertsio potoloa eskatzen du eta ondo pentsatu beharra dago".

Ostalariren batek edo bestek proiektuaren bat buruan izan duela adierazi du, baina aurrekontuari begiratu barik: "Bada-kit baten bat interesatuta dagoela, baina oraindik eskaerarik ez dugu jaso".

## Nerabeen artean dagoen alkohol kontsumoarekin kezkatuta

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako eta DBHko gaztetxoaren gurasoei gutuna bidali die Udalak

### M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaleko Gazteria, Prebentzio eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak kezkatuta agertu dira substantzien "kontsumoari buruz herrian egiaztatu dituzten kasuekin". Horren berri emateko gutuna bidali die 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoen gurasoei, ikastetxeen bitartez. Eta zera adierazi dute han: "Dagoeneko Lehen Hezkuntzako 6. mailako artean alkohol kontsumoak egiaztatu dira, eta DBHko lehen-dabiziko mailetan ere gorakada

izugarria eduki du, koma etili-koak barne".

Gurasoei eskatu diete "adi" egoteko: "Gazteak etxeratzean ez badu nahi ezer partekatu edo afaldu gabe zuzenean gelan sartzen bada, saiatu zaitzete harekin hitz egiten; lagunduko dizue nola dagoen antzematen eta, beharrezkoa, bada neurriak hartzen".

Laguntzeko gertu daudela ere adierazi dute, eta hona hemen horretarako bideak: 688 64 44 35 zenbakira *whatsapp*-a bidaliz edo *ongizate@aretxabaleta.eus* helbidera idatziz.



SUHILTZAILAK

## Urrexolagarai baserria erre da

Goroeta auzoko Urrexolagarai baserriak su hartu zuen astelehen goizean. Suhiltzaileak iritsi zirenerako teilatua erreta eta jausita zeukan eta ezin izan zuten askorik egin etxea "salbatzeko"; batez ere, sua ingurura ez hedatzeko lanetan jardun zuten. Ez da inor bizi bertan eta su hartu zuzenean ere ez zegoen inor.

### Andramaixen gainean jarduteko batzarra deitu dute biharko

Atxabaltako gazte mugimenduko kideek andramaixetako lehen batzar erraldoia egingo dute bihar (11:30), Kurtzebarri eskolako pistan. Bazkaltzera geratuko dira han *-Zuk in, zuk jan-* eta gero, bingo musikatua izango dute. Arratsaldean, *Gazteok oraina eraikitzen* goaz lelodun batzarra izango da (16:30), baita kontzertu akustikoak ere.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Aisialdiarekin gozaten, herriko udalekuei esker

Ez aspertzeko aukera ugari dituzte neska-mutikoen astelehenaz geroztik; umeek udaleku irekietan dihardute, nerabeek Udaero egitasmoan murgildu dira eta futbola gustuko dutenek UDAk antolatutako jolasak dituzte

## Mirari Altube ARETXABAETA

Astelehenean eman zieten hasiera udaleku irekiei Aretxabalean, eta 3 eta 12 urte bitarteko 325 neska-mutikok dihardu horietan, 37 begiralaren gidaritzapean. Hamarreko taldeak osatuta dabilta lanean, eta astean, kamisetak margotu dituzte, eta hainbat eratako jolasak egin. Auzo eta inguruetako parajeak aprobetxatuko dituzte hurrengo bi asteetan jarduerekin jarraitzeko.

## Nerabeek, irteeraz irteera

Atxagazte gaztelekuak, ostera, Udaero egitasmoari ekin zion martitzenean, eta nerabe talde bat Zarautzen izan zen surfeko eskolak jasotzen; eguraldiak ez lagundu arren ederto jardun zutela adierazi dute. Datozen egunetan beste irteera batzuk egingo dituzte; besteak beste, Usakora joango dira bizikletan, eta paintballean jolastera.

## Futbola ardatz

UDAk antolatutako campusak, berriz, futbola du ardatz, beste behin. 55 neska-mutiko elkartu dira, txanda ezberdinetan, eta bost entrenatzaileekin dihardute jolasean eta ikasten. Uztaila bukatu bitartean elkartuko dira, Ibarra futbol zelaietan.



Udaero egitasmoko nerabeek, Zarautzen, martitzenean. GAZTELEKUA



UDArekin futbol jolasen campusean diharduen talde bat, astelehenean. UDA



Udaleku irekietako ume talde bat, kamiseta margotuekin. LORATU

# Erre Produkzioak-en antzezlanaren umeentzat eguaztenean

'Piraten istorio bat' keinuen bidezko ikuskizuna eskainiko die; nerabeek, ostera, filma izango dute gaur

## M.A. ARETXABAETA

Kaleko ikuskizunei eskainitako hilabetea hasi da eta Trapu Zaharrak eskainitako antzezlanaren ostean Erre Produkzioak dator umeentzat antzezlanarekin. Piraten istorio bat keinuen bidezko ikuskizuna da, arina, dibertigarria eta familian gozatzekoa eta edozein umek amets egiten duen abenturatan murgilduko dituzte; eguaztenean uztailearen 14an izango da, Herriko Plazan (19:00) –eguraldi txarra eginez gero Iturrigorri pilotalekuan–.

## Gaur 'Jumanji' filma

Bestalde, zinemari ere egingo diote lekua kalean, eta bereziki nerabeei zuzendutako bi film emango dituzte datozen bi egu-bakoitzetan, 22:00etan, Herriko Plazan. Gaur, hilak 9, *Jumanji: el siguiente nivel* filma izango dute, eta hilaren 16an, *Bad boys for life*.

Kultura Saileko ordezkariak adierazi dute haiek egindako proposamenak kontuan hartu gura izan dituztela eta hortik etorri dela uztaileko zinema antolatu izana.

## Gaurko batzar orokorrera deitu ditu bazkideak UDAk

Ohiko batzar orokorra egingo du Aretxabaleta kirol elkarteak gaur, uztaileak 9, Arkupen (18:00). Pandemiak baldintzatu zuen 2020-2021 denboraldiaren jardunaren eta diru kontuen berri emango dute zuzendaritza batzordeko kideek, eta ondoren, datorren denboraldirako asmoak aurkeztu. Galderak eta proposamenak egiteko aukera ere eskainiko diete bazkideei.

Behin hori bukatuta (19:00), ezohiko batzarrari ekingo diote eta bi puntu aztertuko dituzte: aldaketak estatutuetan eta zuzendaritza batzorderako hauteskundeak. Hautagai bakarra egongo delakoan daude oraingo zuzendaritzako kideak.

## Bakarrizketa saioa eta elektrotzaranga, Loramendiren eskutik

Loramendi elkarteak uztaileko gertatu duen egitarauaren berri eman du. Datorren egunean, hilaren 15ean, Ion Martinez *Txiki* aktoreak *40 urte eta aldapan behera niek* bakarrizketa saioa eskainiko du udaletxe zaharren aurrealdean (19:00) –eguraldi txarra bada, atarian–. 40 urtekoen belaunaldia izango du hizpide eta umorea ardatz duen hausnarketarekin barre eragingo die elkartutakoei.

Uztailearen 23rako, egubakoitza, ostera, Matraka elektrotzaranga gonbidatu dute Loramendiko kideek. Herriko kaleak girotzeko eta aretxabaletarrek dantzan jartzeko asmoz etorriko da Bidasaldeko taldea.

<b>Odontologia estetikoa</b>	<b>Ortodontzia</b>
<b>Endodontzia</b>	<b>PADI zerbitzua</b>
<b>Inplantologia</b>	<b>Hortz protesiak</b>

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55





Udaero egitasmoaren barruan paintballen aritu zirenen talde argazkia. LEIRE LEZETA

## Paintballarekin hasita, ekintza mordoa aurretik

DBH-1 eta DBH-4 arteko ikasleei zuzendutako Udaero aisialdi programa hasi da asteon, eta, uztaila amaitu arte, ekintza ugari dituzte antolatuta: Alabitarra gaua pasatzera, Gatz Bidea egitea eta Zarautzen surf ikastaroa egitea, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Martitzenean hasi zen Udaero, nerabeendako oporraldira begirako aisialdi eskaintza. Hiru begiraleren gidaritzapean, astelehenean egin zuten lehenengo irteera nerabeek, eta adrenalina askatuz eman diote hasiera gazteek egitasmoari. Ondo baino hobeto pasatu zutela adierazi dute begiraleek, eta hasi bakarrik egin direla gaineratu dute; izan ere, uztaila bukatu arte, ekintza mordoa dituzte antolatuta.

Paintballa egitera Galarretara joan ziren, bertako Iturgutxi Paintballera. 38 nerabe batu ziren bertan jolasa gauzatzeko, eta, bi taldetan banatuta, kolorezko bolak elkarri botatzen goiz ederra pasa zuten. Honela adierazi du Leire Lezetak, Udaero egitasmoa begiraleetako batek: "Harrera ederra izan du Udaeroko lehenengo ekintzak, eta guztiok disfrutatu dugu. Hala, saioa amaitzean, talde argazkia atera genuen parte-hartzaile guztiok. Datozen asteetarako

ere badugu plana: Eskoriatzatik irtenda Gatz Bidea egingo dugu egun batean, beste egun batean Lexargaratera igoko gara, eta Alabitan gaua pasatu nahiko genuke... Hala ere, eguraldiak baldintzatuta egongo gara, eta, agian, aldaketak egin beharko ditugu egitarauan. Helburua ondo pasatzea da, eta ondo hasi gara, ea datozen ekintzak ere halakoak diren eta nerabeek disfrutatzen duten".

**Aurreikusitako ekintzak**

Ekintza bakoitzean 20-30 nerabe inguru arituko diren aurreikuspenarekin, hurrenez hurren, honako ekintza hauek dituzte programatuta: uztailaren 12an, Eskoriatzatik Oñatira joango

**ASTELEHENEAN, UZTAILAREN 12AN, BIZIKLETA IRTEERA EGINGO DUTE OÑATIRA, USAKORA**

dira bizikletan, eta Usakon egingo dute geldialdia. Bertan, ausartenek erreka ur hotzean bainua hartuko dute. Uztailaren 14an, Eskoriatzatik irtenda Leintz Gatzagara igoko dira Gatz Bidea eginaz. Uztailaren, 20an, berriz, beste hainbat ediziotan egin duten surf ikastaroa izango dute Zarautzen, eta uztailaren 22tik 23ra bitarteko gaua Alabitan egingo dute.

**Hamar urtean aldatzen**

Hamar urte pasa dira nerabeentzat zuzendutako oporraldirako aisialdi programa antolatzen hasi zirenetik. Ordutik hona, irteerak izan dute protagonismoa urtero, *Gazte konkis* ekimenak ere arrakasta izan du azken edizioetan, baina aurten hainbat aldaketa izan dituzte. Esaterako, ez dituzte Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuak elkarlanean antolatu; herri bakoitzak bere eskaintza antolatu du, plazak mugatu egin dituzte, *Gazte konkis* ere ez da izango...



Aramaio The Clayton taldeko musikariak. THE CLAYTON

## 'Ostiral musikatuak' programa The Clayton taldeak irekiko du

Gaur, egubakoitza, 22:00etan eskainiko dute kontzertua musikari aramaioarrek, Santa Marina plazan

**I.B. ESKORIATZA**

Eskoriatzako Udalak *Ostiral musikatuak* izeneko programa jarri du martxan, eta egitasmoari hasiera emateko Aramaio The Clayton taldeak eskainiko du lehenbiziko emanaldia. Kontzertua gaur, egubakoitza, 22:00etan izango da, Santa Marina plazan, eta, sarrera doakoa den arren, edukiera mugatua izango da. Hain zuzen ere, 200 lagun batu ahal izango dira, gehienez, bertan.

"Martxan jarri dugun *Ostiral musikatuak* programaren barruan bi kontzertu izango dira uztailaren: bata, gaurkoa; eta bestea, irailaren 16an -Trigger-. Biak izango dira ordu eta leku berean, 22:00etan, Santa Marinan. Hala ere, egitasmoarekin jarraituko dugu irailean, eta urrian, Santa Marinan izatetik Zaldibar antzokian izatera pasako dira kontzertuak", adierazi du Aran-

txa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

**Aramaioarrek, disko berriarekin** Rock, blues eta punk ukituak dituen Aramaio The Clayton musika taldeak *Phoenix* diskoa argitaratu berri du, eta lan berrian jasotzen dituen kantuekin izango da gaur Eskoriatzan. Apirilean grabatu zuten diskoa, Bilboko Silver Recordings estudioan, eta lehenengo bideo-klipa ere argitaratu dute: Youtuben dago ikusgai -*Kendu gorbata*-. Lan horretarako, Arrasateko Perlata musika taldekoen kolaborazioa izan dute, eta, 10.000 ikustaldirekin, harrera ona izan du. Zuzenekoetan ere indar handia duen taldea dela demostratzen ari da; hori horrela, emanaldia iritsi aurretik euren musika ezagutu nahi duenak diskoa erosi dezake, Inkernun.

## OHARRAK

### Kanpoko igerilekua zabalik dago

Uztailaren 2a ezkererako erabilgarri dago Manuel Muñoz kiroldegiko kanpoko igerileku txikia, 0 eta 6 urte artekoendako.

### 'Adinik gabeko bizikletan' proiektua

Domekan, Corellako Bizikletariak *Adinik gabeko bizikletan* proiektua aurkeztuko dute, Ibarraundi museoan. 11:00etan bloke teorikoa eta 16:00etan praktikoa.

### Mugikortasun-aukerak elizateetan

Astelehenean, 18:00etan, elizateetako eskoriatzarrentzat mugikortasun-aukera bat eskaintzeko ahalegina egingo da; batez ere, autobusaren eta partekatutako taxiaren bidez.



# Ikasturtea borobiltzeko, egun-pasa mamitsua

Buztinate buztzingintza eta zeramika elkarteko kideek Euskal Buztingintza Museoa bisitatu zuten joan den zapatuan. Hala eman zioten ikasturteari amaiera nagusien taldeko kideek. Bederatzi lagun batu ziren irteera joateko, eta ondoren, bazkaria egin zuten Eskoriatzan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Buztinate buztzingintza eta zeramikako elkarteko kideek ikasturte amaierako irteera egin zuten joan den zapatuan. Hain zuzen ere, Euskal Buztingintza Museora joan ziren, Arabako Elosu herriko Ollerietara auzora. "Kurtsoa behar bezala amaitzeko txangoa egin dugu. Euskal Buztingintza Museoa bisitatzeko gain, buztzingintzaz gehiago ikasteko aprobetxatu dugu, eltzegileen lana gertutik ikusteko aukera izan genuen...", adierazi du Olatz Pagaldayk, Buztinate elkarteko kideak.

Garai bateko labetzarra ere ikusteko aprobetxatu zuten bisitan. Oinplano lauangeluarrekoa da eta bederatzi metroko altuera du. Mendeetan zehar milaka eta milaka pieza erre dira bere errailetan, 1958an lan egiteari utzi zion arte.

**Elkarte sendotzen**

"Buztinate sortu zenetik zenbait lagun errotuta gaude hasieratik, beste batzuk ikasturte bakararra egon dira, eta beste hainbat agertu izan dira klase solteren batean... Ikasturtea bukatu dugu, baina zenbait saio egingo ditugu oraindik, martxan ditugun azken proiektuak amaitzeko. Gainera, aste honetan he-



Buztinateko kideak Ollerietako Euskal Buztingintza Museoa. OLATZ PAGALDAY

## IKASTURTE AMAIERAKO IRTEERA EGIN ARREN, ZENBAIT SAIO DITUZTE ORAINDIK UZTAILEAN

rritar bat animatu da zer egiten dugun ikustera eta probatzera, eta hori ere behar dugu. Lokalean ezin gara talde handia batu, baina buztzingintza probatu nahi duen orok atek zabalik izango ditu beti".

**Ondare preziatua**

2016an Buztinate buztzingintza eta zeramikako elkarte sortu zutenetik, herritarrek ikastaroetara animatzeko lan egin dute, eta horretan segitzen dute. Horrekin batera, Zubiate labeak gordetzen duen historiari eta herriak duen altxorrari balioa eman behar zaiola azpimarratzen dute, eta, aurrera begira, ikastaroetatik haratago, erakustaldiak antolatzeke asmoa ere badute. Hala, ikastaroetan egiten dituzten zenbait pieza herritarrek ere ikus ditzaten.

# LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako Pilar kaleko bederatzigarren ataria. IMANOL BELOKI

## 'Eskuz larru denda'-ko lokala zena enkantean jarri du Udalak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, udal webgunean ikus daitezke bete beharreko baldintzak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako udalbatzak uztailearen 1ean egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zuen udal jabetzakoa den lokal baten besterenganatze espedientea hastea, enkante bidez, eta prozedura arautuko duten administrazio pleguak onartzea. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, eskaintza aurkezteko epea irekita dago, eta administrazio pleguak interesatuentzat eskuragarri daude udal webgunean. Informazioa nahi duenak 943 71 47 46 telefono zenbakira deitu dezake.

**Eskaintza bakarra lizitatzailerako**


Salmentan jarritako lokala Pilar kaleko bederatzigarren atarian dago. *Eskuz larru denda* izenez ezagunagoa. 19.266,45 euroko prezioa jarri dute baldintza moduan, beste hainbat baldintzarekin batera. Esaterako, lizitatzailerako bakoitzak ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Gainera, eskaintza ekonomikoek ezarritako prezioak izan beharko dute, ezingo dira izan oinarriko prezioa baino txikiagoak eta baztertuta geratuko dira lizitazio-prezioaz azpiko proposamenak.



BEÑAT AGIRREURRETA

## Buztinateko kideak, talde argazkian

Buztina landuz zeramikazko piezak sortzeko eta gauza berriak ikasteko, Zubiate labean astero bi talde batzen dira: nagusiarena eta haurrenena. Lokalaren edukieragatik, pertsona kopurua mugatu egin behar dute, baina buztzingintza eta zeramika probatu nahi duenak atek zabalik izango dituela azpimarratu dute beti.



Buztinateko helduen taldeko kideak talde argazkian. OLATZ PAGALDAY

## San Martin eguna ospatu dute

Iaz bezala, Goierrri auzoko Zurtitzako San Martin ermitaren egoeragatik, San Martin eguneko meza nagusia ermitaren kanpoaldean egin zuten, eguraldia lagun. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago gerturatu arren, meza nagusia entzuteko zenbait lagun batu ziren, eta ondoren mokadutxoia izan zuten.



# Bigarren kolunbarioa jarri dute hilerrian

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Geroz eta herritar gehiagok aukeratu du hildakoak erraustea. Hori dela eta, erraustak kanposantuan gordetzeko eskaria ugari egin da azken urtean. Egoera hori ikusita, Antzuolako Udalak beste kolunbario bat jarri du hilerrian. "Gorpua erraustean aldeko hautua lurperatzearena baino jende gehiagok hartzen du; hala ere, oraindik, nahiko parekatuta daude bi eskaerak Antzuolan. Baina joera erraustea dela nabarmena da", azaldu dute udal bulegoetako administrazioko langileek.

2013an jarri zuen Udalak lehenengo kolunbario bat hilerrian. "Orain, bigarrena jarri dugu, eta kostua 8.900 euro izan da. Erabilgarri dago, baina beste kolunbarioa ez da guztiz bete oraindik. Kalkulatu dugu aurten beteko dela, eta gero hasiko gara



Hilerrian jarri duten kolunbarioa. J. O.

bestea erabiltzen", argitu du Valen Moñuxek, Udaleko Hirigintza teknikariak.

Kolunbario bakoitzak 30 kutxa ditu; beraz, gaur-gaurkoz, 60 kutxa daude instalatuta bi kolunbarioetan. Hirigintza tekni-


kariak azpimarratu duenez, 2013tik gaur arte, lehen kolunbarioeko kutxa-lekuen erdiak beteta daude.

Kolunbarioaren kutxaren neurria 20x20x31 zentimetro da, eta aurreko alde granito beltzekoa du. Altzairu herdoilgaitzeko identifikazio-plakan hildakoaren izena eta abizenak edo ezizena azalduko dira, eta, horrekin batera, jaiotza eta heriotza datak ere ipiniko dituzte.

## Hamar urte luzatzeko aukera

Udal ordenantzaren arabera, ofizialki, kolunbarioa erabiltzeko epea hamar urtekoa da. Kostua, aldiz, 150 euro inguru –sarrerara ordaintzen da soilik–.

Aurtengo aurrekontuetan, bestalde, beste diru partida bat bideratu du Udal Gobernuak hilerriko hezurtegiko lanak egiteko.



IBAI LARREA

## Ekain Larrea, hirugarren

Zapatuan jokatu zen 20 urtez azpiko Espainiako 3.000 metroko txapelketa, Monzonen (Huesca). Ekain Larreak, lasterketa bikaina eginda, hirugarren postua eskuratu zuen, 8 minutu, 21 segundo eta 59 ehuneneko denborarekin. Segundo bat eta 59 ehunenekogatik, ordea, Europatik kanpo geratu da antzuolarra.

**Itzar**  
LIBURU DENDA  
ESTANKOA  
GU ERE  
ANTZUOLARREKIN!  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel. / Faxa: 943 76 60 82

**Marilina mertzeria**  
Gu ere antzuolarrekin!  
Herriko plaza 4  
ANTZUOLA  
Tel.: 677 46 63 21

**KLYKATU**  
Kalebarren 1,  
behea  
943 78 60 54  
Gu ere  
antzuolarrekin!

**martin okindegia**  
Lantegia: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35  
Gu ere  
antzuolarrekin!

Ile apaindegia  
**Lock**  
Edertze aretoa  
Germaine de Capuccini produktuak  
Laser bidezko depilazioa  
Informa zaitetz!  
Gu ere  
antzuolarrekin!  
Agosti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

**helburu**  
672 69 66 30  
Kalebarren 1 • Antzuola  
helburu@helburu.com  
www.helburu.com  
Gu ere antzuolarrekin!



# ANTZUOLA 2021 Ez Jainak

*Arduraz jokatu eta elkar zain dezagun!*



ANTZUOLAKO  
UDALA

[www.antzuola.eus](http://www.antzuola.eus)



# Denen gustuko aisialdia, prest

Jai nagusirik ez egin arren, kultura egitarau zabala antolatu dute uztaileako Antzuolan. Ekitaldiez gozatu bai, baina zentzuz jokatzeko dei egin du alkateak

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ANTZUOLA Antzuolako Jai batzordeak eta Udalak aisialdia egungo arautara egokitu dute; hala, herritar guztiei egokitutako kultur egitaraua prestatu dute uztaileako. Beñardo Kortabarría alkateak esan du ez dutela ohiko jai nagusirik egingo, eta hori kontuan hartuta arretarik ez galtzeko eta zentzuz jokatzeko mezua helarazi. "Gu zainduta, inguruak ere zainduko ditugu. Nekez irtengo gara egoera honetatik guztiok norabide berean arraun egiten ez badugu", gaineratu du.

"Antolatu ditugun ekintza gehienetan aurrez izena eman behar da. Gainera, aireztatuko tokietan izango dira emanaldiak eta COVID garaiko neurriak bete beharko dira", azaldu du alkateak.

## Uztaileko murriztu dute

Iaz, uztaileko eta abuzturako antolatu zituzten ekintzak; edozelan ere, ikusi zuten abuztuan apenas ibili zela jenderik: "Hori horrela, aurten abuzturako ez dugu ezer antolatu, eta, hain zuzen ere, uztaileko hiru

aste bukaeratan izango dira emanaldiak".

Adin tarte guztiei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte: umeek, gazteek eta adinekoek gozatzeko moduko ekintzak. "2021eko aurrekontua egiterakoan jaietarako diru partida bat utzi genuen, ez genekien eta zein izango zen egoera. Bada, jairik ez egin arren, partida horretatik bideratu dugu kultur ekintzak antolatzeko dirua; guztira, 27.000 bat euro", dio alkateak. Egoera zaila izan arren, arduraz jokatzeke eskatu du.



Sonakay taldea Aldaiko karpan. GOIENA

## Goiena telebistak, saio berezia

Goiena telebistak saio berezia eskainiko du Antzuolatik. Ohiko jaiak ospatzeko aukerarik egongo ez den arren, antzuolarren bizipenak eta istorioak jasoko ditu Maider Arregi kazetariak, zuzenean, Antzuolatik.

Uztailearen 19an emitituko da saioa, Goiena telebistan, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan. Aurtengoan Alardetik ez da ikusiko Antzuolako kaleetan, baina Goiena telebistak gogora ekarriko ditu Alardeko zenbait pasarte eta irudi. Horrez gain, erreportaje bereziak eskainiko ditu, kultura egitarauan jasotakoak, eta herriko musikarien ahotsaz gozatzeko aukera ere egongo da. Gainera, Aitor Agirianok zirikatzen jarriko ditu Antzuolako herritarrak.

# Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

*Gu ere antzuolarrekin!*



# H

SUKALDEKO ALTZARIAK

# Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com

*Gu ere antzuolarrekin!*







Liher taldeko kideak. 'DONOSTIAKULTURA.EUS'

### Sarrerak aurrez hartu

Antolatu dituzten ekintza guztiak doakoak izango dira, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia izan ezik -3 euro-. Pailazoen emanaldirako, orientazio probarako eta patrioko musika kontzertuetarako sarrerak aurrez hartu behar dira, [labur.eus/sarrerakantzuola-n](http://labur.eus/sarrerakantzuola-n) edo liburutegian.

Musikak tarte berezia izango du uztailean zehar. Azkenaldian entzutetsu egin den Sonakay taldea zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera egongo da

uztailaren 16an, egubakoitza. Eskolako patioan izango da emanaldia, 20:00etan. Talde donostiarrak flamenkoa egiten du, euskaraz; ijitoak eta euskaldunak direnez, euskal kantak flamenko estiloan kantatzen dituzte. *Sonakay* hitzak *urra* esan nahi du kalo hizkuntzan.

Bestalde, uztailaren 17an, zapatua, Liher eta Bulego taldeen emanaldiak izango dira. Liher taldeak 2015ean hasi zuen ibilbidea, Donostian. Stoner, soul eta rock doinuak sortzen dituzte. *Hemen herensugeak*

*daude* diskoa kaleratu zuten 2020an, indarkeria matxistak kolpatutako emakume baten bizipenak ardatz hartuz.

### 'Ez dot moztuko bizarra'

*Ez dot moztuko bizarra* taldeak bazkaria antolatu du uztailaren 18rako, domeka, 14:30ean. Sarrerak salgai jarri dituzte Aitz-Garbi tabernan, 18 euroren truke. Menua izango da: txorizo egosia, entsalada mistoa, oilaskoa, anana eta saltsa arrozarekin, masailak eta baserriko jogurta marmeladarekin. Uztailaren 13ra arte egongo da sarrerak erosteko aukera. "Eguraldi ona baldin badago, Kalebarrenen izango da bazkaria. Seiko mahaietan jarriko gara, segurtasun arauak errespetatuz", azaldu dute antolatzaileek.

## SONAKAY TALDEAK EMANALDIA ESKAINIKO DU EGUBAKOITZEAN, 20:00ETAN, PATIOAN

## Uztaileko kultur egitaraua

Antzuolako Udalak antolatu duen kultur egitaraua.

### Uztailak 10, zapatua

- 10:00 Orientazio jolasa.
- 17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots, patioan.

### Uztailak 11, domeka

- 09:30 Txirridularitza. Antzuola saria. Peña Aiastuik antolatuta.

### Uztailak 15, eguena

- 17:00 'Aiherra-Antzuola' murala auzolanean margotzea.
- 19:30 Jaioberriei eta helduenei ongietorria, udaletxean.

### Uztailak 16, egubakoitza

- 10:00 Txistulariekin goiz-eresia.
- 11:00-16:00/16:00-18:00 Haur eta gazteendako puzgarriak eta jolasak, Sagastin.
- 20:00 Sonakay, patioan.

### Uztailak 17, zapatua

- 09:55 'Kañoiak sutu!' txistulariekin goiz-eresia.
- 11:00 Bergarako Banda, herrian zehar kalejiran.
- 19:00 Kontzertuak, patioan: Bulego eta Liher.

### Uztailak 18, domeka

- 12:00 Kale antzerkia: 'Turistreatzen'.
- 12:00 'Kina Bingo', plazan, Anelkarrekin.

Oharra: sarrerak aurrez hartu behar dira orientazio probarako, pailazoak ikusteko eta patrioko kontzertuetarako.





**ameskua arotzak**  
*Ametsak egurrean...*

☎ 688669033    📍 Ameskua Arotzak    ✉ ameskua@outlook.es



**Gu ere antzuolarrekin!**



# Ospatu gabe ere, bizirik mantentzen den tradizioa

Herriko jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeagatik Emakunderen aitortza jaso ostean, aurten ere ez da Mairuaren Alardek egingo Antzuolan uztailan. Egoeraren arabera, udazkenean egitea posible ote den erabakiko dute irailetik aurrera

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Jaietako ikur izaten da Mairuaren Alardea urtero Antzuolan. Aurtengoa, baina, 1880. urte inguruan lehena egin eta gero, urte hauetan guztietan egingo ez duten laugarren aldia izango da. COVID-19aren ondorioz bertan behera geratu diren iazko eta aurtengo Alardeaz gain, 1936ko gerran bi urtetan ere ez zuten egiterik izan.

**Kanoiak sutuz, keinua**

Dena den, Alardea herriko jaien eta kulturaren parte dela gogoan izateko helburuarekin, kanoiak sutuko dituzte hilaren 17an, zapatua, 09:55ean, datorren ur-



2019ko alardea, Edurne Iturbe kapitaina eta Lander Domingez buruzagiarekin . I.S.

tera begira Alardeak bere osotasunean herriko kaleak hartuko dituen esperantzarekin.

**Emakunderen aitortza**

EAEko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak jasotzen dituen txostena argitaratu zuen Emakunderen aitortza; tartean, Antzuolari. Mairuaren Alardean emakumeen alde egingo lanagatik egin diote aitortza, "herriko jai parekideak antolatze bidean urrats bat gehiago egin izanagatik", hain zuzen ere.

**Tradizioa, gaurkora egokitu**

Alardearen Elkarteko kide Pilar Etxanizek adierazi du azken urtetan Alardea biziberritzeko lanak eragina izan duela herriko jai parekideak antolatze aldera: "Ibilbide bat egin dugu Alardean; ez soilik genero berdintasunean, baita kultura arteko berdintasunean ere. Lehenengo Alardea gaurkotu egin nahi izan dugu; askotan esaten da tradizioa mantendu egin behar dela, baina tradizioa gaur egun-

go balioetara egokitu barik ezin da transmititu".

Hasieran, Udalak sustatu zuen prozesu hura, eta gero, herritarrekin elkarrizketak eta mintegi bat egin zituzten. Ildo horretatik, Eusko Ikaskuntzak ikerketa bat abiarazi zuen, eta, ondorioetatik abiatuta, egin beharreko aldaketak zein ziren zehaztu zituzten. Herriko Oinarri dantza taldeak ere barne-prozesu bat egin zuen, dantza guztiek genero ikuspegia jaso zezaten.


Gaurkotze horren adibide da 2019an egindako aldaketaren ostean Mairuaren Alardeak emakumezko kapitaina izatea. Sasoi hartan erretiroa hartu zuen Jose Angel Arbulu ordezkatu zuen Edurne Iturbek.

**Udazkenera begira**

Dena den, udazkenean Alardea egitea posible izango ote den aztertzen ari direla azaldu du Lander Dominguez Alardeko kideak: "Irailtik aurrera zehaztuko dugu, egoeraren arabera. Pertsona askok hartzen dute parte bertan eta herritar ugari ere batzen dira. Ez da egun batetik bestera hartzeko erabakia".

## amaia

*Gu ere antzuolarrekin!*



**Kalitatezko produktuak**  
**Bertako produktuak**  
**Produktu ekologikoak**

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91

**oerlikon**  
**balzers**

**Oerlikon Balzers**  
**Coating Spain S.A.U.**

Antigua 2

20577 Antzuola

Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

*Gu ere antzuolarrekin!*

[www.oerlikon.com/balzers/es](http://www.oerlikon.com/balzers/es)



# "Garrantzia eman diogu estetikari hasieratik"

**XABI ARRIETA** BULEGO TALDEKO KIDEA

Azken urtean, eta pandemiaren baitan, bereziki ezagun egin den Azkoitiko Bulego taldeak kontzertua eskainiko du datorren zapatuan, hilak 17, eskolako patioan

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Hainbat urtez Passepartout izenpean aritu ostean, Bulego izenarekin hasi zuten ibilbide berria 2020. urtean Tomas Lizarrak, Jontxu Apek, Ruben Lizarralde, Itziar Beitiak eta Xabi Arrietak. Azkoitiko taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 17an, 19:00etan, eskolako patioan. **Ezohiko kontzertuak ematera ohituta dago Bulego...**

Bulegorekin hasi ginetik, kontzertu bakarria eman dugu ohiko formatuan, 2019ko martxoan, Donostian. Hori da zutik eman dugun bakarria. Esan daiteke ohitu eta guzti egin garena maskara, distantzia eta jarritako

emanaldietara. Publikoa animatuta baldin badago, azkenean, iristen zaizu, nahiz eta neurriekin izan. Hala ere, desiratzen gaude pandemia aurreko kontzertuak berreskuratzeko, eta ohiko egoerara itzultzeko.

**Denbora gutxian, arrakasta handia. Zein izan da gakoa?**

Kantu zuzenak egitea, gaur egun panoraman entzuten den musikarekin, eta hori euskaraz egitea. Letra positiboak egiten saiatu gara, nahiko garai ilunetan gaudela kontuan izanda, jendeari animo apur bat emateko ondo etortzen da.

**Zuendako, zer garrantzi du kantuak euskaraz egiteak?**

Guretzat, oso naturala da euskaraz kantatzea; azken batean, euskaraz bizi gara gure egunerokoan, bai gu, baita gure lantaldea. Iruditzen zaigu egiten gabiltzan musika mota honetan ez daudela talde asko euskaraz aritzen direnak, eta garrantzitsua dela presentzia edukitzea. Askok esaten digute gaztekeraz edo ingelesez jende gehiagorengana iritsi gaitezkeela, baina gure hautua euskarazkoa izan da betidanik.

**Passepartouten eta Bulegoren arteko ezberdintasuna nabaria da. Zergatik aldaketa?**

Erreferentzia berriak hartzen hasi ginen, musika berria en-



Bulego taldeko bost kideak, aurretik Passepartout taldean ibilitakoak. BULEGO

tzuten, eta erabaki genuen proiektu berri bat hasteko momentua zela, beste izen batekin, musika berria eginez... Nahiko naturala izan zen.

**Estetika berezia du Bulegok. Nahi-ta aukeratua izan da?**

Erreferentzia berrien ondorioa izan da. Uste dugu gaur egun musikaz harago ere arropak, tipografia, letrak, sare sozialak... dena zaindu behar dela. Sare sozialetan oso presente egotea eskatzen du, asko elikatu behar

dira. Proiektua abiatu genuetik garrantzi handia eman diogu horri eta horretan lan egin dugu.

**Datorren astean Antzuolan izango zarete, baina nolako uda duzue aurretik?**

Momentua bizitzen ari gara. Kontzertu dezente dauzkagu programatuta udarako, hilabete politak datozela dirudi; hortaz, ezin gara kexatu. Nahiz eta maskara eta eserita izan, gozatu egingo dugu, ziur.

**ERREKA**

**Antzuolatik Mundura**

[www.erreka.com](http://www.erreka.com)

Finkapen Soluzioak

Plastikoak

Sarbide Automatikoak

**Gabilondo - Arregi**

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

**KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA**

**EUSKO LABEL**

**EUSKAL OKELA**

*Gu ere antzuolatietekin!*



# Artea kalera aterako dute auzolanean

Muralgintza proiektu bat proposatu diote Udalari Oier Peñagarikanok eta Jone Larrañagak. Bertan bederatziko mural berri jaso dituzte eta horietako bat izango da izena ematen duten herritarrek margotu ahal izango dutena, eguenean, 17:00etan

**Amaia Txintxurreta** ANTZUOLA  
Aiherra-Antzuola murala –Torresoroaren eskuinetara gelditzen den pareta– auzolanean margotuko dute eguenean. Edozein herritarrek eman ahalko du izena hori margotzeko; izan ere, muralgintza proiektua aurkeztu duten Oier Peñagarikanok eta Jone Larrañagak lana erraztuta utziko dute ordurako. "Guztia markatuta utziko dugu eta auzolanean betelana egin beharko dute herritarrek", esan du Peñagarikanok. Larrañagak, bestetik, hauxe gaineratu du: "Gogoz hartuko duen eta interesa jarriko dion edozein herritarri dei egin nahi diogu parte hartzera;

umeetatik hasi eta nagusietaraino". Izan ere, adierazi dute egungo murala "zaharra" geratu dela, eta buelta bat eman nahi izan diote aurretik zegoenari.

Beste zortzi mural berri ere margotuko dituzte aurrerantzean. Beñardo Kortabarria alkateak azaldu du guztiek izango dutela Antzuolarekin zerikusia.



Kortabarria, Peñagarikano eta Larrañaga, eguenean berrikotuko duten murallean. A.T.



Goian dagoen irudia margotuko dute herritarren artean egueneko saioan. OIER PEÑAGARIKANO ETA JONE LARRAÑAGA



**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69

*Gu ere antzuolarrekin!*



**MUJIKO HARATEGIA**

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



*Gu ere antzuolarrekin!*



# "Loreek alaitasuna ematen didate"

**PILI FERNANDEZ** LORE LEHIAKETAKO PARTE-HARTZAILEA

Urte osoan balkoia askotariko lorekin apainduta izatea gustatzen zaio. 2014an irabazi zuen lore lehiaketa eta aurten ere animatuko da bertan parte hartzera

**Amaia Txintxurreta** ANTZUOLA

Aurten, 25. urtez antolatu dute lore lehiaketa. Beste urte batzuetan ez bezala, parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute liburutegian, eta gaur, egubakoitza, izango da horretarako azken eguna. Hilaren 25ean, Herriko Plazan parte-hartzaile guztien argazkiak jarriko dituzte paneletan ikusgai, 11:00etatik 18:00etara bitartean, hain zuzen. Herritarrek gustukoenera botoa emateko aukera izango dute, panelen ondoan egongo den kaxan, eta hurrengo egunean jakinaraziko dute irabazlearen izena. Pili Fernandezek 2014an irabazi

zuen lehiaketa eta aurten ere hartuko du parte.

**Gustatzen zaizu balkoia lorez apainduta edukitzea?**

Bai; izan ere, urte osoan izaten ditut askotariko loreak balkoian. Neguan sasoi horretakoak jartzten ditut eta udan aldatu egiten ditut. Esaterako, garai honetan surfiniak izatea asko gustatzen zait, oso politak gelditzen direlako, koloretsuak eta alaiak direlako. Baina egia da gero lorea azkar galtzen dutela.

**Aurten ez dituzu surfiniak jarri.**

Ez. Iaz ez zuten askorik iraun, eta aurten beste batzuk probatu nahi izan ditut. Hiru koloretako begoniak jarri ditut -

arrosak, gorriak eta zuriak-, eta zainzuri-landare berdeak ere jarri ditut.

**2014an, lehiaketa irabazi zenuenean, surfiniak izan zenituen, ezta?**

Bai; ikaragarri politak izan nituen orduan. Baina gogoratzen naiz lehiaketa pasa eta hamabost egunera guztiak galdu nituela! Sekulako penarekin, baina ezin izan nituen berreskuratu.

**Dena den, asko gustatzen zaizu loreak zaintzea.**

Gustura ureztatzen ditut, bai, eta semeak ere laguntzen dit lan horretan. Bitaminak ere ematen dizkiet tarteka, eta balkoia polit jartzea gustatzen zait, sukaldean nagoenean loreei



Pili Fernandez, begoniek eta zainzuri-landareekin apaindutako balkoian. A.T.

begiratu eta alaitasuna ematen didalako. Asko gustatzen zaizkit.

**Etxe barruan ere badituzu?**

Egongelan esaterako, hiru landare handi dauzkat. Gurasoen etxean ere beti izaten genituen, horrelakoak ikustera ohituta nago eta gustatu egiten zait. Gainera, orokorrean, asko irauten dute. Egongelako horiek hamahiru bat urte dituzte, baina sukaldekoek ere.

**Aurten ere parte hartuko duzu lehiaketan?**

Bai, izena emango dut. Uste dut lehiaketak lagundu dezakeela, gainera, herritarrek balkoiak polit jartzera. Kanpora joaten naizenean ere asko gustatzen zait lorez apaindutako balkoiak ikustea. Nafarroa aldean eta Frantziako hainbat lekutan asko zaintzen dituzte loreak balkoietan, esaterako.



*Gu ere antzuolarrekin!*

Ondarre, 9 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 62 45  
garitanosl@gmail.com





# ilaia

## ILE APAINDEGIA




Kalebarren 1, behea ANTZUOLA  
943 76 63 33  
ilaia83@hotmail.com

*Gu ere antzuolarrekin!*





# "Ohiko biharamun barik, hobeto arituko gara"

**PATXI OLABARRIA** BERGARAKO BANDAKO MUSIKARI ANTZUOLARRA

Zurrategi plazan urtero eskaintzen duten kontzertua egingo ez duten arren, gogoz dago Patxi Olabarria antzuolarra, hilaren 17ko kalejiran perkusioarekin aritzeko

**Imanol Beloki** ANTZUOLA

Antzuolako jaietan klasikoetako bat da Bergarako Musika Bandaren kontzertua. Zurrategi plazan eskaini ohi dute, baina aurten ez da halakorik egongo. Hala ere, bandaren kalejira izango da uztailaren 17an, zapatuan, 11:00etan hasita.

**Urteroko kontzerturik ez, baina kalejira formatu berezian arituko zarete, ezta?**

Kontzertuak egin daitezke da-goeneko, baina Antzuolako Udalak ez zuen nahi pilaketarik, eta kalejira egitea eskatu digu, geldiuneak eginda. Iaz ere hala egin behar genuen, baina gertuko COVID-19 kasu batengatik bertan

behera geratu zen. Urte askoan, Altzarte-Errotaberriko eraikinetik hasi gara; bertan trasteak utzi eta kalejira hasten genuen. Gero, kontzertua eskaintzen genuen, eta bazkaria egin. Eraikina bota egin dute; horrenbestez, Errekaldetik hasiko gara.

**Zer eskainiko duzue kalejiran?**

Herriko kaleak zeharkatzen ari garela *Saint die* pieza joko dugu; 30 urte baino gehiagoz Antzuolan jo izan den martxa da. Orain dela 26 urte hil zen *Naparra* antzuolarra oso banda-zalea zen, eta, pieza hori ikaragarri gustatzen zitzaionez, haren omenez jotzen jarraitu izan dugu. Antzuolarrek pieza horrekin iden-

tifikatzen dute banda. Geldiuneetan, berriz, *Antzuolako doinuak* eskainiko ditugu. Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatu zituen Antzuolako Alardeko kantuen partiturak eskatu, eta hori ere urtero jotzen dugu. Gero, Ruper Ordorikaren *Zaindu maitte duzun hori* kantua joko dugu. Gaur egungo zuzendari Enrike Txurrukak moldatu egin zuen kantua bandarako, pandemia garaian.

**Bergarako bandako antzuolar bakarra, gainera. Etxean jotzea ala Bergaran, zer nahiago? Kontuz zer diozun...**

Bi emakume bergarar ere badaude, Tzeitel eta Eider, baina An-



Patxi Olabarria, Bergarako Musika Bandako antzuolarra Zurrategin. IMANOL BELOKI

tzuolan bizi dira. Duda barik, nahiago dut Antzuolan jo. Hala ere, egun gogorra izaten da, biharamunarekin egoten garelako. Aurten, baina, ez dugu biharamun handirik izango, eta, emanaldia hobeto aterako zaigu, seguru.

**Zenbat lagun arituko zarete Antzuolan?**

Pandemiagatik ezin izan dugu zortzi hilabetez entseatu. Hala ere, hilean behin bideo bat grabatu du nork bere etxetik, eta

ekainean izan zen lehenengo emanaldia jendaurrean. 67 musikari inguruk osatzen dugu Bergarako banda, baina, entseatzeko hasi ginenetik ere, ez gara denok batzen ari. Arau zorrotzak jarri genituen, eta, egoera horrekin, 45 lagun arituko gara Antzuolako kaleetan zehar. Hilaren 17an kontzerturik ez dugu izango Antzuolan, baina Bergaran hurrengo egunean eskainiko dugu.

## Goizper Group

### Elkarlanean garatzen

Goizperren berrikuntza bultzatzen dugu merkatuari balio erantsia duten konponbideak eskainiz. Aldaketara moldatzen gara. Zure etorkizuna gure oraina da.

Goizperrek antzuolar guztiei jai zoriontsuak opa dizkie! baina gogoratu, aurten ere, arduratsu izan.

Ihiztadura

Industrialia

Bioteknologia

www.goizper.com



# Uzarragako eliza erosi duen antzuolarra

Ezagun baten bidez jakin zuen salgai zegoela; ondo pentsatu ostean, erabakia hartu zuen. "Ilusioz" agertu da erosketarekin. Utzita egon ostean, egoera txarrean daude eraikinak, eta, pare bat proiektu dituen arren, oraindik ez daki zer egingo duen

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Gipuzkoako Gotzaindegiari erosi dizkio Uzarragako eliza, abade-etxea eta gertuko lursailak Iban Iraeta antzuolarrak. Azken ziurtagirien faltan, asteon bukatu dituzte salerosketaren trramite guztiak eta ofizialki antzuolarren jabetzakoa da; eliza, abade-etxea, eskola, taberna, hilerria, plaza eta inguruko lursailak erosi ditu.

**Ilusioak mugituta**

Igeltseroa da Iraeta eta aitortu du hasieran ez zuela askorik erakarri eliza bat erostean ideiak, baina, pare bat buelta emanda, "ilusioa" piztu zitzaion:



Iban Iraeta, Uzarragako elizaren barrualdea ikuskatzen, eguaztenean. J.O.

"Ezagun batek komentatu zidan, salgai zegoela jakin zuzenean nitaz gogoratu zelako. Tokia oso polita da, historia ere badu. Gipuzkoako zaharrenetakoa da. Prezioaren berri izan, eta bueltak ematen hasi nintzen. Ilusio apur bat banuen erosteko, eta erabakia hartu nuen".

**"Egoera nahiko txarrean"**

Hainbat urtez eraikinak utzita egon direla-eta egoera "nahiko txarrean" daudela azaldu du Iraetak: "Une honetan nahiko gaizki dago dena, barruan ere jende asko ibili da, eta pintaketak daude. Eraikinen artean gaur egun okerren daudenak abade-etxea eta elizarako sarre dira. Gainerakoan, teilatua konponduta eta dena txukunduta, lan handiarekin gehiago salba daiteke".

Uzarragako guneak betidanik ur mugimendu handiak izan dituela azaldu du, eta, ondorioz, eraikinek arazo handiak izan dituzte historikoki. Horren adibide da hilerria bera: "Uzarragan eraikitako lehenengo eliza orain kanposantua dagoen lekuan zegoen, gaur egun mantentzen

dena lekuz aldatu eta ostean eraikitakoa da".

**Bertan zer egin, zehazteke**

Buruan dituen ideia guztiak oraindik ere ideiak baino ez direla argitu du Iraetak. Ez daki zer egingo duen bertan, baina badabil aukerak aztertzen: "Abade-etxearen egoera dela-eta bota egin beharko da, baina gainerakoa mantendu eta berri egin gura dut".

Kanpin itxurako bat egitea ere ez du baztertzen: "Hasierako asmoa zen edukiontziekin egindako etxolatxoak jarri eta inguruko lurretan kanpin antzerako bat jartzea. Elizaren sarreran merenderotxo bat egitea ere pentsatu dut". Hala ere, momentuz, dena "ilusio bat" baino ez dela aitortu du: "Diru asko da, eta ikusiko dugu zer egin daitekeen. Lan handia dago hau dena txukuntzeko".

**Hilerria, bere horretan**

Iraetak azaldu du Uzarragako hilerria guztiz errespetatuko dela, eta ez dutela ukituko; alegia, gaur egun dagoen moduan geratuko dela.

ak • drogeria • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • dro  
opa • drogeria • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • dro  
k • le • ria • dro • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • dro  
dro • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
ak • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
ay • droge • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
ak • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
o • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
k • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
rogeria • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa  
a • opa • lentzena • drogeria • opariak • lentzena • drogeria • opa

# Nerea

Gu ere antzuolarrekin!

☎ 659 57 50 97  
Kalebarren 13 ANTZUOLA



**Amets Berezaio**




Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura

**Gu ere antzuolarrekin!**

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92  
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

**Gu ere antzuolarrekin!**

**Aitz Garbi - Arin - Gorosti - Koxkor**

**Larrea - Mox - Ongi etorri**



# Kale berrituak 2023ko udarako

Zubieta eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko proiektua lizitazio fasean sartzeaz delako, Udal Gobernuak espero du lanak urtea bukatu aurretik hasi eta 18 hilabetean bi kaleak berrituta izatea; zehazteke dauden artean dago obrak non hasi erabakitzea

## Jokin Bereziartua BERGARA

Zubieta eta Masterreka kaleetarako urbanizazio proiektua aurkeztu zuen Udal Gobernuak martitzenean Seminarixoan. Ekaineko osoko bilkuran eta

martitzenean aurkezpenean berretsi zuen Udal Gobernuak udal aurrekontua onartu zenean hartutako konpromisoa: 2021. urtea bukatu aurretik makinak lanean izatea Zubietan edo Mas-

terrekan. Hain zuzen ere, behin betiko proiektuaren idazketa esleitu aurretik bizilagunen azken iritziak eta ekarpenak jasotzeko saioa izan zen Seminarixoko, Hirigintza teknika-

riek argi utzi bazuten ere bi kaleen ezaugarriek muga tekniko esanguratsuak sortzen dituztela.

## 18 hilabeteko exekuzio-epaia

2015 eta 2016. urteen artean enkargatu zuen Udalak bi kaleetarako proiektuaren idazketa; Zubieta kalekoa BEB Arkitektoak enpresak egin zuen –bi fasetan gauzatzea aurreikusten zena– eta Masterrekakoa, berriz, Zetabi Arkitektura Bulegoak. Orain, Udalak bi proiektu horiek bakar baten jaso eta exekuzioa proiektu bakar moduan adjudikatu nahi du; behin betiko proiektuaren idazketa eta exekuzioa esleituta eta, "dena ondo bidean", urtea bukatu aurretik hasiko lirarteke obrak. Eta 18 hilabeteko exekuzio-epaia aurreikusten denez, 2023ko uda

ingururako bi kaleek eraberrituta egon beharko lukete.

## Non hasiko dira obrak?

Herritarren eta, bereziki, auzotarren zalantza nagusien artean dago, besteak beste, obrak non hasiko diren. Udalak, baina, ez du erantzunik oraindik: "Ez dakigu, oraindik proiektua esleitu gabe dagoelako. Denok dugu argi obrak hasten direnean hainbat buruhauste izango direla bi kale horietan eta inguruan, eta horregatik egokiena da kontratazio mahaitik pasatu ostean, obra zuzendariarekin, segurtasunerako arduradunarekin eta udaltzaingoarekin batera adostea zein puntutan hasiko diren lanak. Hori bai, leku batean edo bestean hasi, asmoa da obra guztia jarraian egitea. Hau da, ahal den heinean, betiere, obra aurreratu

## Zubieta eta Masterreka: kaleen egoera gaur egun eta etorkizuneko itxuraren argazki-muntaia



### ZUBIETA KALEA

Oinezkoen irisgarritasuna bermatzea da helburuetako bat, eta, horretarako, kale osoan gutxienez metro eta erdiko zabalera bermatzea izango da behin betiko proiekturako lehentasuna; bi aldeetan ezin bada bermatu, etxe-atari gehien dituen aldeak lehenetsiko dira. Hala, aparkaleku batzuk gaitzea saihestezina izango da. Bizilagunen ekarpenen artean, Udalak "oso aintzai" hartuko du errepidearen asfalto laua izatea, eta ez inpresoa; zarata murriztea da helburua.



### MASTERREKA KALEA

Udaltzaingoak ibilgailuen joan-etorrien neurketak egiten ditu, besteak beste, kexaren bat dagoenean arazoaren larritasuna neurtzeko. Azken neurketa 2021eko ekainaren 23tik 30erakoa izan zen eta datua da 21.871 ibilgailu pasatu zirela aste horretan Masterrekatik; batez beste, 20 kilometro orduko abiaduran –Zubietan neurketak egin berri dira, eta ez dago daturik oraindik–. Bestalde, ardatza bi noranzkoko izango da obrak bukatzen direnean.



ahala kalea berriro erabilgarri utzi nahi dugu", azaldu du Hirigintza teknikari Edu Alvarezek.

### Bi noranzkoko errepidea

Azken hamarkadetan irisgarritasuna bermatzeko inbertsio esanguratsurik egiteke, bi kaleek eraberrituak izateko behar gorria dute, baina baita muga tekniko handiak ere. Izan ere, Zubieta eta Masterreka kaleak ibilgailuendako bi noranzkokoak izango dira 2023ko udatik aurrera ere, nahitaez, Deba bailara Elosuarekin eta Azkoitiarekin lotzen dituen errepidea ere badelako, besteak beste. "Bolorako sarrera eta irteera bakarra da eta semaforoa mantendu egin beharko dugu, bai ala bai. Hor ez dago marjinarik", dio Alvarezek. Maiz errepikatzen den beste eskaera bat ere azpimarratu du hark: "Aparkaleku gehiago eskatzen dituzte bizilagun batzuek, baina, kale estu horietan oinezkoendako irisgarritasuna bermatu behar badugu, bi aldeetan aparkalekurik ez da apenas kabitzen".

### Espaloiak aparkalekuen ordez

Ardatz osoan gutxieneko metro eta erdiko zabalera bermatzerik ez da izango bi aldeetako espaloietan, baina urbanizazio ikuspegitik egoera asko hobetuko dela dio Alvarezek: "Helburu nagusia da gutxienez metro eta erdiko zabalera bermatzea bi aldeetako espaloietan; estugune zehatz batzuetan ez gara gutxienez iritsiko, baina %90 baten-edo bai. Metro eta erditik gora ere izango dira guene asko, baita bi metroko zabalera ere. Gaur egun dagoen egoerarekin alderatuta aldea nabarmena izango da eta uste dut herritarrek igarriko dutela ho-

bekuntza egunerokoan; bereziki, bertan bizi direnek". Zubietako eta Masterrekako bizilagunek izan dute aukera euren ekarpenak egiteko, eta adostasuna lortu dute errepidearen zoruari dagokionez. Udalak kezak jaso ditu errepideko zoruaren inpresoa izatea aurreikusten zelako -Bidekurutzeta kalean dagoen tankerakoa, esaterako- eta horrek zarata handia ateratzen duela uste dutelako. Hala, azken proiektuan aintzat hartuko da eskaera hori. Bizilagunak bat etorri dira, aldi berean, zamalanetarako aparkalekuak erregulatzeko eskaerarekin eta baita hiri hondakinen edukiontzien kokapena berraztertzeo nahiarekin ere. Aldiz, bizilagunen artean askotariko iritziak daude, adibidez, aldi bietan espaloia jarri beharrean alde bakarrean zabalago

## BIZILAGUNEK ESKATU DUTE ZORUA LAUA IZATEA INPRESOA BEHARREAN, ZARATA MURRIZTEKO ASMOZ

## 2021EKO EKAINAREN 23TIK 30ERA 21.871 IBILGAILU PASATU ZIREN MASTERREKA KALETIK

## GUTXIENEZ METRO ETA ERDIKO ZABALERA DUTEN ESPALLOIAK DIRA LEHENTASUNA

bat jartzearekin. Edo badago, adibidez, Zubietako eskola zaharreko orubea aparkalekuetarako bideratu nahi duen bizilagunik ere. Gogora ekarri behar da 2020ko abendu amaieran Deba Bailara Kontseilu Sozialista kolektiboak Zubietako eskola zena okupatu eta berehala, Zubietako bizilagunak modu zabalean ordezkatzeko duen Zubieta Berri elkarteak Udalarari eskatu ziola "prozesu irekia" abiatzeko baita orube horretarako ere; Zubieta Berrikoek aisialdirako gune bat nahiko lukete: "Kalea berritzeko ikuspegi integraletik, orube hori berrantolatzearen aldeko apustua egiten dugu. Irisgarritasuna ziurtatu eta aisialdia lehenetsita, horretarako kale osoan daukagun gune bakarra delako".

### Aho batez, baina EAJK zalantza

Ez da aurreikusten espaloia eta errepidea altuera berean joango direnik, besteak beste, hainbat garajetarako sarbideak daudelako. Altueran joango diren zebra-bide berriak aurreikusten dira, eta baita seinalizatzen al daketak ere, eta argiteria berria jarriko dute, kontsumo baxuko LED argiekin. Azpiegituretan erabateko berritzea aurreikusten da eta sare elektrikoa zein telefonia sarea lur azpitik bideratuko dituzte -gaur egun, fatxadetatik doaz-.

Ekainaren 28ko osoko bilkuran, kreditu aldaketa garrantzitsua onartu zen lizitazio fasea martxan jartzeko, eta aldaketa aho batez onartu zen. Hori bai, EAJK zalantzak ditu epekin: "Aurrekontuetan hainbat konpromiso hartu zituzten, eta horietako asko gauzatzeko daude; horregatik, zalantzan jartzen ditugu Gobernu honen kudeaketa eta konpromisoen betetzea".

## "Apustu inportantea da, azken urteotako inbertsiorik indartsuena"

GORKA ARTOLA BERGARAKO ALKATEA

Martitzenean Seminarixoa egindako aurkezpen publikoan, proiektuaren garrantzia azpimarratu zuen Gorka Artola alkateak. **Nolako inbertsioa izango da? Lanak noiz bukatuko dira?** Apustu inportantea da, azken urte askotako inbertsiorik indartsuena izango da eta. Lehen aldiz, hiru urterako aurrekontua konprometituko du Udalak proiektu honetarako: guztira, 2.350.000 euro inguru. Hasieratik hartu genuen konpromisoa urtea bukatu aurretik lanak hasteko, eta ondoren, 18 hilabete inguruko



GOIENA

exekuzio-epea dugu aurreikusita. Dena ondo bidean, 2023ko uda inguruan obra bukatuta egongo litzateke.

### Proiektuan txertatu den bizilagunen ze ekarpen nabarmenduko zenuke?

2015 eta 2016. urteen artean idatzi ziren aurreko bi proiektuak, ikusita sekulako

beharra zegoela. Zubietan partaidetza prozesu bat egin zen, baina Masterrekan ez; hala, ulertzen genuen inportantea zela orduko dokumentua Masterrekakoekin ere kontrastatzea. Bi bilera egin dira auzotarren ekarpenak azken dokumentuan txertatu ahal izateko. Bizilagunen artean adostasun handien izan duen aldaketa eskaera izan da ibilgailuendako zoruaren akaberari dagokiona. Zarata ekiditeko, asfalto laua eskatu dute bizilagunek asfalto inpresoa izan beharrean, eta aintzat hartu dugu azken dokumenturako. Bizilagunen beste proposamen batzuk ere izan dira adostasun osorik gabekoak.

### Bizilagunengandik ze feedback jaso duzue?

Nabarmena da bi prozesu ezberdin garatu direla. Zubietako bizilagunak aspalditik zeuden aldarrikapen prozesu batean, zilegia, behar handia dago-eta kale hori berriro urbanizatzeo. Masterrekan beharrak ere oso antzekoak izanda, bizilagunen antolaketa beste egoera baten zegoen. Egoerak egoera, uste dut oso positiboki baloratu dutela behingogatik proiektua exekutatu dela jakitea.

### Obrek hainbat buruhauste eragingo dituzte...

Zalantza barik. Obra guztiek eragiten dituzte buruhausteak, baina Zubieta eta Masterreka moduko ardatz batek Bergaran eragozpen handiak eragingo dizkio herri osoari. Horregatik, lizitazio prozesuan baldintzak ezarriko dira, exekuziora eta trafikora begira kaltea ahalik eta txikiena izan dadin. Edozelan ere, argi dagoena da gerora kale egokiago batez gozatu ahal izateko baldintza zailak jasan beharko ditugula denboraldi batez.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**21**  
K  
KALIFATEA

Enpresa Registrada N°90/025

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA





Markel Barrocal eta Gorka Fernandez, Seminarioko patioan; ohitura handia dute bertan futboleko jokatzeko. JAGOBA DOMINGO

# Balioak eraikitzen eredu, futbolaz gozatzeaz gain

Pasioz bizi dute Markel Barrocalek eta Gorka Fernandezek futbola, eta, adimen urritasunarekin ere, izugarri gozatzen dute Eibarren inklusiorako taldearekin jokatzeko; Genuine ligan ederto ibili dira aurten eta asteen Donosti Cup txapelketan lehiatu dira

## Jokin Bereziartua BERGARA

Gorka Fernandezek eta Markel Barrocalek futbola dute pasio, txikitatik, eta adimen urritasuna izateak ez die euren pasioaz gozatzea eragotzi. Are gehiago, azken asteotan inoiz baino futbolariago sentitu dira. Batetik, Genuine liga barruan jokaturako Eibar Hiria txapelketa irabazi berri dute, Eibarren, inklusiorako taldearekin. Bestetik, astehenean abiatu zen Donosti Cup txapelketan ere hartu dute parte Real Sociedad eta Levante taldeen aurka. Astearen behin entrenatzen dira, zapatu goizetan; Barrocalen arabera, arlo fisikoa da gehien lantzen dutena. Fernandezek 25 urte ditu eta Barrocalek, 20.

## Ohikoak dira Seminario

Seminarioko patioan ordu asko egiten dituzte. "Astearen bi edo hiru alditan etortzen gara hona eta umeekin aritzen gara jokatzen. Txikitatik gehien gustatzen zaidana da futbola, eta ezin dut

laga. Futbola kirol hutsa baino askoz gehiago da niretzat", adierazi du Barrocalek. Hori bai, argi dauka Eibarrekin lehiatzen denean ondo pasatzea dela lehentasuna: "Ahal bada, irabaztera irteten gara, baina ez da ezer gertatzen irabazten ez bada; disfrutatzea da inportanteena. Talde oso batua gara eta asko animatzen dugu elkar".

## Bata atezain, bestea aurrelari

Gorka Fernandezi aitak sartu zion futbolaren harra, hein baten: "Aitak esan zidan futbola probatzeko, eta probatu nuenetik izugarri gustatzen zait". Eibarren zale amorratua da, eta urteko egun gehienetan Eibarren koloreak eroaten ditu

## EIBARREKIN

**IRABAZTEA "PLUS BAT" BADA ERE, ARGI DUTE ONDO PASATZEA DELA LEHENTASUNA**

soinean. Ipuruara noiz itzuliko zain ere badago, Eskozia La Brava Peñakoa da eta. Hori bai, zergatik erabaki duen atezain jokatzeko? *Erantzuleetako* bat Realeko atezain ohi Claudio Bravo izan zen: "Nire atezain faboritua izan zen eta Eibarko Irureta [Xabi Iruretagoiena] ere asko gustatzen zitzaidan. Horregatik erabaki nuen atezain jokatzeko".

Barrocal, berriz, aurrelaria da, baina argi dauka taldearendako lan egitea izan behar dela lehentasuna. "Txikitatik golak egitea gustatzen zitzaidan, baina taldearentzat lan egitea da garrantzitsua. Entrenatzaileak esaten dit lasai jokatzeko, txapelketan urduri jartzen naiz eta. Entrenatzailearen aholkuak eta gurasoenak oso baliagarriak zaizkit". Futbolaren balio onenen enbaxadoreak direlako Barrocal eta Fernandezek: umiltasuna, elkarlana eta laguntasuna; jokalaririk profesionalak badute nondik ikasi...



JARDUN

## Gustura gabiltza udalekuetan

Goiena komunitatea Jardun / BERGARA

Denbora azkar doa gustura zabiltzanean eta ondo pasatzen duzunean, eta hori ari zaigu gertatzen aurtengo udaleku irekietan. Dagoeneko joan zaizkigu lehen bi asteak; herriko hainbat txoko jolasez eta ekintzez bete ditugu.

## Emakumeak kirolean, argazkien lehiaketako gaia 31. edizioan

Azaroaren 10era arte dago Udalak Arizondo elkartearen laguntzarekin antolatutako 31. Kirol Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Aurtengo nobedade nagusia da emakume kirolarien lana bistaratzeko lehiaketara aurkezten diren argazkien gaia emakumeak kirola egiten izango dela. EAEn bizi den edozein afizionatuk har dezake parte, zuri-beltzean zein koloretan, eta 1.560 euro banatuko dira saritan. Lehen sariak, 210 euro; bigarrenak, 180 euro, hirugarrenak 120 euro; eta herriko onenari, beste 120 euro. Aurten, emakume argazkilari onenak ere 120 euroko saria jasoko du. Argibide gehiago: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

## Espazio publikoen okupaziorako araudi berrirako bilerak

Hiru saio ireki egingo dira hurrengo martitzenean, hilak 13, Irizar jauregian, terrazen edota espazio publikoen okupazioaren udal ordenantza berri-tzeko prozesuaren barruan: 09:00etan ostalariekin, 15:00etan merkatariekin eta 18:00etan herritarrekin. Herriko tabernarietako eta merkatariekin ekain bukaeran egindako inkesta digitalaren bitartez helarazi dizkiote ordenantza hori berri-tzeko ekarpenak Udalari; ekarpen horiek aztertu ondoren, beste kolektiboetako ere zabalduko zaie prozesua bileren bitartez. Udal Gobernuak espero du urte amaierarako behin betiko ordenantza gertu izatea.

## Esnaolaren filma aire zabalean ikusteko aukera hilaren 14an

Udako kultura eskaintzaren barruan, aire zabaleko zinemaz gozatzeko aukera egongo da uztailearen 14an. *Bergara 1965-1985, Serafin Esnaolaren begirada* izeneko filma emango dute, Espoiloian -euria bada, Seminarioko patioan-. Esnaola apaizak 1965 eta 1985. urteen artean *Super 8* kamerarekin grabatutako irudiez osatutako filma da.

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA



# "Bi urte berezi hauetan" eginiko lanarekin, "pozik"

2019ko ekainaren 15ean alkatetza eta Udal Gobernuaren ardura hartu zutenetik bi urte eta ia hilabete pasatu dira, eta agintaldi erdiko balorazioa egin du EH Bilduk; pandemiak "guztiz" baldintzatutako bi urteotako erronkei ondo erantzun dietela diote

**Jokin Bereziartua** BERGARA

2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeak irabazi ostean, ekainaren 15eko osoko bilkuran hartu zuen EH Bilduk Bergarako alkatetza, Gorka Artola buru. Bi urte eta hilabeteren ostean, agintaldi erdiko balorazioa egin du EH Bilduk, bideo baten bidez. Hasteko eta behin, Gorka Artola alkateak azpimarratu du COVID-19ak "guztiz" baldintzatutako "bi urte berezi" izan direla: "Atzera begira jarriz eta balantzea eginda, uste dut positiboa izan dela. Jakin dugu egokitzen egoera berrira eta Bergarak behar zuen erantzun hori ematen".

Eta erantzun hori lortzeko "talde sendoa" dutela nabarmendu du Artolak: "Bateratua eta ilusioz dabilena. Orain dela bi urte besteko edo ilusio eta indar handiagorekin lanean diharduena. Bergararekin eta bergararekin konprometitua eta datozen bi urteetan ere borondate berarekin jarraitu nahi duena".



Agintaldirako 'Izan, Bizi, Ekin' planaren aurkezpena, otsailaren 21ean. J.BEREZIARTUA

## "Pertsonak erdigunean" jarrita

Alkatearen arabera, pertsonak erdigunean jarri dituzte agintaldi hasieratik: "Bai pandemia sasoiaren eta baita orain ere. Orduan, elkartasun sarearekin, aisialdi eragileekin, kultura

eragileekin, enpresariekin, merkatarik eta ostalariarekin, ahalik eta eragile gehienekin lanean jardun dugu esparru guztietan, eta, batez ere, zaurgarrienei erantzuna emateko. Eta egokitzen saiatu gara bai udal zerbitzuak

eta baita kanpora begirako eskaintza ere. Bai kirol arloan, hezkuntza ikuspegian, aisialdian eta kulturean. Alde horretatik, uste dut lan handia egin dugula eta hori helarazi dugula beste hainbat esparrutara ere".

## "Inguruarekin konprometituta"

Nagore Inurrategiren arabera, "inguruarekin konprometituta" dagoen Gobernuak da EH Bildurena: "Indar berezia egiten dugu interes orokorra eta tokian tokiko beharren arteko oreka topatzen, beti erraza ez izan arren. Auzoak erdigunera ekarri ditugu eta hainbat interbenzio egiten ari gara herritarren bizimodua hobetzeko, hala nola baserri-bideak konpondu eta mantenduz eta Uberako eskola-etxea auzotarrei lagaz". Inurrategik, era berean, herrigune jasangarri baterantz jotzeko hartu dituzten neurriak aipatu ditu: "Berrantolaketa egin dugu, gehienezko 30 kilometro orduko abiadura muga legeak eskatu baino lehenago ezarrita, Oinezbusaren aldeko apustua eginda, eta bizikletendako aparkalekuak egokituta".

## Antolaketa berriaz harro

Bestalde, Ainhoa Lete zinegotziak zehaztu du bergararren aukera berdintasuna bermatzea dela euren "oinarrizko printzipioa". Horren adibide moduan jarri du Letek kirol egokituaren eskaintza handitu izana eta euskara

ikastea merkatzea. Horrez gain, memoriaren lanketan ere jarri du arreta alkateordeak: "Aurrea egiteko atzera begiratzea beharrezkoa da eta memoria historikoa berreskuratzeko bidean gerrako umeei omenaldia egin diegu Intxortarekin batera, eta frankismoaren kontrako kereila Estrasburgora eroan dugu". Bestalde, udal batzordeen antolaketaredu berriarekin harro dago EH Bildu; gogora ekarri behar da hamar batzordetik gora izatetik hiru batzorde osatzera pasatu direla: Lurralde, Antolaketeta eta Herritarrak.

## "Herritarrekin elkarlanean"

Amaitzeko, Herritarren arloko arduradun Ekaitz Aranberrik bi urte hauetan herritarren partaidetzaren bidez landutako proiektuak aipatu ditu: "Hau dena egiten gabilta herritarrekin, elkarlanean. Gure egiteko modua delako. Parte-hartze prozesuetan bai, baina baita egunerokotasunean ere. Hamaika adibide ditugu: *Bergara 2030 Egin herrixa* plan estrategikoa; azoka biziberritzeko prozesua; turismo plana, Bizipoza eguna, BK Erek hartzarmena berritzea...".

## HERRITARREKIN ELKARLANEAN LAN EGITEN JARRAITUKO DUTELA DIOTE: "GURE EGITEKO MODUA DA"

## Seda: rock indartsua, axolagabe eta eskarmentu handiarekin

Berumuga zikloaren barruko bigarren kontzertua izango da Virginia Imaz buru duen taldearena, Espoioian (22:00)

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Jakinekoea da uztailako Berumuga zikloak ohikoak ez diren musika estiloak programatzea dela helburua; betiere, kalitatea ardatz. Eta gaur Espoioiko agertokira (22:00) igoko den taldea ez da salbuespena izango: Seda. Jardín Inferno, Toro y la Niña del Frenesi, Doctor Deseo eta halako taldeetan parte hartu eta gero, Virginia Fernandezek Seda proiektuari ekin zion 2020an. Taldekide ditu Mikel Caballero baxuan (Gatibu), Felix Landa gitarran (Extremoduro), Galder

Creo baterian (Penadas) eta Pit Flanagan (Rubia, Garbayo) eta Martin Guevara (Capsula) gitarrak jotzaileak. Gainera, Joseba B. Lenoir gitarrak jotzailea ere ondoan izan du Fernandezek zuzeneko emanaldietan.

## 'The Belly' diskoa aurkeztera

*The Belly* diskoarekin etorriko da Seda Espoioira. Bilboko Silver Recordings estudioetan grabatua eta Martin Guevarak ekoiztua, disko zaindua da alderdi guztietan; rock talde baten sendotasuna eta punk jarrerara,



Seda taldea promozio argazkian, Virginia Fernandez buru duela. SEDA

eskarmentu handiko musikariaren eskutik. Virginia Fernandezek proiektu propioa da, "aspaldian" sortu nahian zebilena. Urte batzuetan agertokietatik kanpo egon ostean, inoiz baino indartsuago dator bueltan Fernandez.

Berumuga zikloari bi kontzertu falta zaizkio: uztailaren 16an Ipar Irlandako Sinead Savage & The Shu-Shu's taldea eta, hilaren 23an, bukatzeko, AEBtako Josh Hoyer & Soul Colossal taldeak.

## OHARRAK

### Garagardo dastatzea

Uztailaren 13an izango da, San Lorentzen (19:00), Mikel Irazabalen eskutik, euskaraz. Izena eman behar da aldezturirik: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

### Kartzela zaharra

The Clayton eta John Dealer & the Coconuts taldeek kontzertua emango dute uztailaren 15ean, 18:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko Bergarako Pol-Pol eta Aretxabaletako Kixkor tabernetan, bost eurotan.

### Erakusketa Aroztegin

Euskalurbex elkartearen *Iraganari begira* uztailaren 11n itxiko dute; bertan behera lagatuko lekuen argazkiak.





2019ko ekainetik 2021eko ekainera jaiotako neska-mutikoetako batzuk eta haien gurasoak, zapatuko ekitaldiaren ostean. I. S.

# Ohiko jairik izan ez bada ere, giro ederrean joan da aste bukaera Elgetan

Ferixa Nagusiko jaiak beharko zuketen egunetan hainbat ekimen izan dira herrian. Ahal den neurrian gozatu dute elgetarrek. Arauak mantentzeko moduko ekintza sorta programatu ostean, Udalak balorazio positiboa egin du

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA Barikuan eman zioten hasiera jaien ordez Udalak iragarritako ekintzen egitarauari. 11:00etan, puzgarriak eta jolasak jarri zituzten, eta egun osoan jardun zuten haurrek jolasean. Adinaren arabera banatu zituzten guneak: txikienak plazan aritu ziren eta nagusiagoak, kantxan. "Protokoloak zorrotz bete ziren, eta oso-oso gustura gaude, alde horretatik. Eguzkiak gehien jo zuen unean puzgarri batzuk ezin izan ziren erabili, beroagatik, baina, gainerakoan, gustura ibili ziren denak", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak.

Eguerdian, harri-jasotze erakustaldia egin zuten, frontoian, Imanol Albizu *Goikoetxe*-k eta Karmele Gisapolak. 40 bat lagun aurrean jardun zuten, eta pozgarria izan zen herriko harakina berriz ere plazako lane-

tan ikustea. Arratsaldean, berriz, linea edo bingo egiten saiatu ziren erretiratuak, Espaloian. Ez dute pandemia garaian ia ekitaldirik eduki, eta, neurriak beteta bada ere, berriz elkartzeko aukera izan zuten.

## Zapatuan, esna-deia

Arrasateko gaiteroen bisita herri osoan sumatu zen. Kalez kale ibili ziren zapatu goizean. Eguerdian, berriz, harrera ekitaldia jaso zuten 2019ko ekainetik hona jaiotako hogeitak neska-mutikok. Talde argazkiak ere ez ziren falta izan. Azkenik, iluntzean,

**"OROKORREAN, ARAUAK NAHIKO ONDO MANTENDU DIRA, SALBUESPENAK SALBUESPEN"**

Burrunba elektrotzarangak egin dako emanaldian 40 bat lagun elkartu ziren.

## Domekan, azoka eta bertsoak

Domekan, nola ez, azoka egin zen. Pozik ekoizleak eta pozik bisitariak. "Egia esan, ilusio handiz hartu genuen azokari berriz ekiteko Elgetako Udalaren erabakia. Beti zaindu izan dute asko azoka hau; ze ekoizle, nongoak, ze produktorekin... Eta halako azoka zaindu bat berriz martxan jartzea poz handia da", esan zuen Antzuolako Pikunietako baserriko Josebe Blancok.

Udalak ere egun horien inguruko balorazio positiboa egin du. "Orokorrean, arauak nahiko ondo mantendu dira, salbuespenak salbuespen", esan du alkateak. Hurrengo urtean jaiak ospatzeko moduan egotea da esperantza.

## Askotariko hitzorduak herrian



Baserritarren eta artisauen azoka, domeka goizean. U.I.

**Baserritarren eta artisauen azoka** Hamabost bat postuk osatu zuten domeka goizean plazan egindako azoka. Deba bailarako ekoizleak izan ziren guztiak, eta askotariko produktuak eskaini zituzten. Ekitaldi jendetsuenetakoa izan zen.



Erretiratuak bingoan aritu ziren bariku arratsaldean. IMANOL SORIANO

**Bingoan, aspaldiko partez** 45 bat erretiratu elkartu ziren, barikuan, Espaloian. Bingoan egin ostean, gustura entzun zituzten Arkaitz eta Agurtzane trikitalariak. Domekan urteko kuota kobratuko dute, 11:00etatik 13:00etara, Ozkarbin.



Mozorroren jaitziera egin zuten hainbat kuadrillak egunean. L.Z.L.

**Eguenean, mozorroak kalean** Udalak antolatutako ekintzarik izan ez bazen ere, egunean hainbat kuadrilla mozorrotuta irten ziren. Brindisik eta alkate txikirik gabe, baina mozorro jaitziera espontanea egin zuten hainbat lagunek Salbador kalean behera.



# "Liga zorrotza izango da datorrena, ilusioz nago"

**ANDONI UGARTE** FUTBOL JOKALARIA

Futbol Federazioak berrantolatu egin du Bigarren B Maila eta bi liga desberdin jokatu dute taldeek denboraldi berrian; Calahorran arituko da gazte oñatiarra

**Oihana Elortza** OÑATI

Oviedon egin ditu azken hiru urteak Andoni Ugartek, Realetik hara joanda. Eta Calahorran arituko da denboraldi berrian. Oporrez disfrutatzen, Azkoagainen elkartu da Mireia Bikuña lankidearekin.

**Zenbat denbora Azkoagainera etorri barik?**

Jokatzera etorri nintzen azken egunetik, urteak pasako ziren. Hemen egon izan naizenean, tarteka, etorri naiz Preferente Mailako taldea ikustera, baina azken bi urte hauetan, esaterako, etorri gabe nengoan.

**Belar naturalarekin, gainera, ez zenuen jokatu, ezta?**

Partidu bakarren bat, agian, bai, baina Realera joan nintzen sasoi hartan egin zuten hemengo zelaiaren aldaketa, eta ez; Ibarako hartxintxarra ezagutu dut Oñatin egondako denboran. **Zer moduz joan da azken denboraldia?**

Aurreko denboraldia eta hasiko dena bata bestearekin elkartu diren sententzioa dugu askok. Denboraldi-aurrea lehenago hasiko da, eta, egungo protokoloarekin, denboraldia luze joango den inpresioa dugu. Baina, egia esan, pribilegiatuak gara, gure egunerokotasunean nahiko normal aritu ahal izan garelako. Gorabehera asko izan ditugu ligan, lesioak eta zigorrak tarteko. Talde nahiko gaztea genuen eta mailara egokitzea kosta egin zitzaigun, eta, luzera, eragina izan du horrek; etxetik kanpo kosta egiten zitzaigun partidua irabaztea, adibidez. **Mailaz jaitzi da Oviedo. Izan du horrek zerikusirik hartu duzun erabakiarekin?**

Han bukatu egiten zitzaidan kontratua. Ez ninduten elkarrean etorkizuneko planetan ikusten eta beste nonbaitera joateko behartuta ikusi nuen neure burua. Calahorrako erronka ilusioz ikusten dut, jokatzeko



Andoni Ugarte, Azkoagainen futbol zelaian. MIREIA BIKUÑA

ko gogoz nago. Azken urteetan ondo ibili da eta sortu berri den liga honetan tokia lortu du. Kategoria gogorreko liga izango dela iruditzen zait. Euren asmoen berri eman zidatenean, ez nuen zalantza handirik izan joateko. **Futboleko jarraitzeko asmoa eta gogo duzu, beraz.**

Bai, noski. Futbolariaren ibilbidea ez da luzea izaten, baina oraindik badut adina, eta kanpora joateko edo batera edo bestera mugitzeko erraztasuna ere bai. Gainera, ez dago etxetik oso urrun, edozein asteburutan etortzeko moduan, eta hori ere aldeko puntu bat da. **Talde asko gelditu ziren kategorian, igoerak izan zirelako baina jaitzierarik ez, eta berrantolaketan egin du Federazioak. Non kokatzen da Calahorra?**

Bigarren B Maila berregituratu egin dute arrazoi horregatik, eta esan daiteke bi liga desber-

**"CALAHORRAK BERE ASMOEN BERRI EMAN ZIDANEAN, EZ NUEN ZALANTZA HANDIRIK IZAN"**

dinetan banatu dutela. Eta Calahorra Lehen Federazio Mailan egongo da; hogeiko bi talde egongo dira hor. Bigarren Federazio Mailan talde gehiago izango dira, aurretik ezagutzen zen Bigarren B Mailako estiloa duena. Asko eskatuko du liga horrek.

**Talde indartsuenak, batetik, eta ahulagoak, bestetik?**

Hori da. Berandu hasi zen denboraldi hau liga berrantolatetarako izan da, eta egindako kirol merituei garrantzia eman zaie.

**Izan duzu lehen kontakturik talde berriarekin?**

Aurretik nirekin jokatu duen lagun bat badut taldean eta harekin egin dut berba. Beste bizpahiru ere ezagutzen ditut, baina elkarrekin denboraldi-aurrean izango dut lehen harreman zuzena.

**Nola ikusten du kanpotik euskal futbola?**

Momentu onean dagoela uste dut. Real ondo ari da, eta Amorebieta ere bai, adibidez. Finala ere bi talde euskaldunek jokatu zuten, eta iruditzen zait baloratzen ari direla euskal futbola.



A.A.

## Adur Aldea, Bizkaiko txapelduna

Adur Aldea oñatiarra eta Peio Gurrutxaga durangarra dira Bizkaiko eskuz binakako kadete mailako txapelketak. Uztailaren 2an jokatu zuten finaleko partidua, lurretako pilotalekuan. Hain zuzen ere, 8-22 irabazi zuten. Josetxo Areitio du entrenatzaile Aldeak lurretako Olaburu taldean, eta banakako txapelketan ere hartu du parte.

## Sardui, Petti eta Zabalegi entzuteko sarrerak, salgai

Et Incarnatus orkestrarekin batera, Alex Sardui, Petti, Mainer Zabalegi eta Jurgi Ekiza etorriko dira Oñatira uztailaren 18an. Urmuga egitasmoaren barruan izango da. Zuzeneko musika emanaldia plazako frontoian egongo dute, 18:30ean; Zubikoa kiroldegian, eguraldia txarra bada. Sarrerak dagoeneko salgai daude [www.urmuga.eus](http://www.urmuga.eus) webgunean, 20 eurotan. Aurretik, 13:00etan, Alos Quartet taldeak joko du, Urbian.

Uztailaren 13an abiatuko da aurtengo Urmuga proiektua Euskal Herriko urak bitan banatzen dituen muga naturalean barrena, eta hilaren 18an iritsiko da Oñatira.

## Kai Nakai, Borova eta Basaguren datoz Trianako jaietara

Asteburuan dira Trianako jaiak. Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte, terrazaren irekierarekin, eta domekara bitartean egingo dituzte ekitaldiak; hainbat musika emanaldi tartean. Gaur gauean, esaterako, herriko gazteen gitarra-jotzea egongo da eta bihar, 22:30ean, Kai Nakai eta Yogurihna Borova. Umeendako marrazki lehiaketa eta mus zein txirriindularitza txapelketak ere egongo dira bihar. Azken musika emanaldia domekan izango da: Jon Basaguren etorriko da, 13:00etan. Arratsaldean, berriz, umeendako magia saioa izango da. Trianako jaiak Goiena plazan ospatuko dira, azken urteetan moduan.

## Plazaz Plaza pilota txapelketan, Uxue Osés bihar Oñatin

Plazako frontoian jokatu da bihar, zapatua, Plazaz Plaza pilota txapelketako partidua. Eta Aloña Mendiko Uxue Osés izango da, gainera, pilotarietako bat. Amaia Aldai izango du lagun eta Laia Salsamendi eta Oihana Orbegozo aurkari. "Jokatu izan dut plazako frontoian; Oñatiko txapelketan, adibidez. Publikoan, gainera, ezagunak egongo dira.

Urduri samar ere banago, baina jokatzeko gogoz", dio Osese. 19:00etan izango da eta harmaitarako txartelak momentuan bertan banatuko dituzte. Hilaren 15etik 18ra Bartzelonan izango da Osés, eta txapelketa horretako bere hirugarren partidua jokatu du han.

Txapelketako partiduen aurretik, beste partidu bat egongo da. Lehiatuko dira Madalen Etxegarai eta Leire Galeano Maddi Berrocalen eta Miriam Arrazaren kontra.



# "Berriz jendearen aurrean jotzeko gogoz gaude"

**IÑAXIO IBARRONDO MUSIKA BANDA KO ZUZENDARIA**

Uztailaren 24an du kontzertua musika bandak Lazarragan; Ibarrondoren azkenetakoa izango da. Errosario Egunekoa izango du azkena; Aitor Biaini pasako dio batuta

**Oihana Elortza OÑATI**

Pandemiagatik denbora batez geldu egon ostean, uztailaren 24an egingo du kontzertua, aspaldiko partez, Oñatiko musika bandak, Iñaxio Ibarondo (Oñati, 1942) zuzendari duela. Udalak antolatutako *Esk-ult-ura* egitasmoaren barruan izango da.

**Horrenbeste hilabeteren ostean, berezia izango da kontzertua?**

Urtean hamasei bat emanaldi egiten ditugu, normalean, eta sei bat pieza jo bakoitzean; 90 bat pieza inguru urtean. Eta saiatzen naiz bi urtean piezarik ez errepikatzen. Oraingoan, berriak entseatzeko denborarik ez dugu izan, eta jendeak ondo ezagutzen dituenak joko ditugu.

**Bazen garaia, ezta?**

Denbora asko egin dugu kalean jo gabe, bai, eta badugu gogoia, denok gura dugu normalitate batera bueltatu eta jendearen aurrean kalean jo.

**Nola antolatu zarete azken hilabeteetan?**

Batetik bestera mantendu behar diren distantziak direla-eta gure ohiko lokalean ez gara sartzen. Aurreko astean, Larrañako frontoian entseatu genuen, baina oihartzuna handia da, ez da toki egokia guretako. Pandemia garaian, parrokiaren aurrean egin genituen entsegu batzuk, parrokoari baimena eskatuta, eta hara bueltatu gara. Egoera normaldu arte han egingo ditugu entseguak, astean bi, betiko moduan. Tal-



Iñaxio Ibarondo klarinetearekin. O.E.



IÑAXIO IBARRONDO

1949. Makurtuta dagoen mutikoa da Iñaxio; bere atzean, batutarekin, aita, Antonino Ibarondo, eta ezkerretik hasita lehena, aitajauna, Felix Ibarondo.

deko kideek lan handia egin dute egoerara egokitzen.

**Zenbat lagun zarete bandan?**

60-62. Batzuek utzi ere egin dute, lanera edo bizitzera beste herri batera joan direlako edo adinagatik, adibidez. Eta, tarteka, musika eskolatik etortzen dira musikari gazteak. Harreman zuzena dugu musika eskolarekin.

**Zeuenak dira instrumentuak eta arropak?**

Instrumentuak, normalean, bakoitzak berea ekartzen du, aurretik erosita zuelako, ikasteko. Arropak denondako izaten dira; norbaitek banda uzten badu, adibidez, hemen uzten ditu arropak eta berriari eskaintzen dizkiogu, ondo izanez gero erabiltzeko.

**Noiz sartu zinen zu bandan?**

6 urte nituela. Aita eta aitajau-na bandako kide ziren eta urte

batzuetan hirurok batera egon ginen bandan; txikitatik bizi izan dut giro hori. Soldaduska ere banda militarrean egin nuen, eta, Oñatin etena egon zenean, Bergarako bandan jo nuen. Bizimodu osoa egin dut bandari lotuta.

**Eta noiz zuzendu zenuen lehen emanaldia?**

Eten baten ondorioz, 1979an birsortu zen Oñatiko banda. Corpus bezperan izan zen, oraindik Corpus Eguna eguenetan ospatzen zen sasoi hartan. Plazan ginen, kalejira hasteko gertu, 30 musikari eta neu. Bat-batean, atzeko ilaran zegoen musikari batek "batutia!" oihu egin zidan. Ez nuen batutarik, ahaztu egin zitzaidan. Kontzejupera joan, eta han zeuden etxafuegoetako baten makila

## 'Kuardro bat, melodixa bat' pieza

Oñatiko musika banda eta San Migel parrokiako abesbatza zuzentzeaz gain, konposatu ere egiten du Iñaxio Ibarondok. Pieza asko, esaterako, mendi bueltaren bat egin ostean konposatu ditu. Mendizalea da bera, eta mendira egindako irteerak inspirazio iturri izan dira askotan berarendako; horien artean, adibidez, Pirinioetako Orhi mendira egindakoa.

Baina konposatu dituen piezen artean badu bat berezia, eskaera bitxi baten ondorioz egindakoa. "Agustin Ugarte musikaria margolaria ere bada, asko gustatzen zaio margotzea. Behin, emaztearen jaiotetxea, baserria, margotu zuen koadro baten. Ez zidan ezer kobratu edo hartu. Trukean nik konposatutako pieza bat hartuko zukeela gustura esan zidan. Eta horrelaxe egin nuen: 'Kuardro bat, melodixa bat' du izena berarendako egindako piezak. Birritan-edo jo dugu, gainera".

Iñaxio Ibarondori berari ere gustatzen zaizkio margoak, koadroak. Dio musikaria ez balitz margolaria izango zela. "Badut lagun bat, nire adinekoa, niri erakustera etortzen dena egiten duen pintura bakoitza. Begira jartzen naiz, eta nire iritzia ematen diot. Egindako koadro hori gelditzen da, begiratzeko. Musika edo poema bat, berriz, behin eta berriz entzun edo irakurri behar duzu gustatzeko edo hausnartzeko".





UDAL ARTXIBOA. ARZUAGA

1980. Iñaxio Ibarondo musika banda zuzentzen Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan, urte hartako Erretiratuen Egunean.



GOIENA

2013. Oñatiko musika bandaren kontzertua San Migel egunean Lazarraga lorategian, herritarren aurrean.

apurtu eta haren zati batekin zuzendu nuen emanaldi hura. Aurretik, 15-16 urterekin-edo zuzendu izan nuen hainbatetan. Gure aitak tuba jotzen zuen, eta, batzuetan, dantzaldietan, musikari jartzen zen tuba jotzen, eta niri eskatzen zidan zuzentzeko. Aitajaunak ere tuba jotzen zuen, anaiak danborra eta nik, berriz, klarineta.

#### Noizkoa da Oñatiko banda?

Estandartean 1908. urtea agertzen da, baina aurretikoa da, XIX. mendekoa.

#### Noiz sartu ziren emakumeak?

80ko hamarkada hasieran, oker ez banago. Bospasei neska sartu ziren batera.

#### Bandaz gain, parrokiako abesbatza ere zuzentzen duzu azken 53 urte hauetan.

Bai. Egia da bandako entseguak elizkizunak baino beranduago bukatzen direla eta, ondoren hiruzpalau txikito hartzeko tartea izaten dudanez, haiekin gehiago ibiltzen naizela kalean, baina talde biak familiakotzat ditut.

#### Zer eta zenbat eman dizu zuri musikak?

Asko. Hala ere, pozgarria bezain pisutsua ere bada banda. Borondatez egiten dugun lana da, horrek dakarrenarekin, baina denok jarri dugu asko gure aldetik eta beti izan dut aurrera egiteko gogo.

#### Berriz jaiotzen gero, musikaria izango zinateke berriz?

Ez, margolaria. Musika behin eta berriz entzun behar da gustatzeko, zaila da musika ulertzea edo gustatzea.

#### Baina jendeak disfrutatu egiten du musikarekin ere.

Bai, bai, baina esan gura dut musika asko egiten bada ere, joan ere asko egiten dela.

#### Eta noiz arte jarraituko duzu? Pentsatu duzu erreleboan?

Errosario Egunean utziko dut. Taldetxo bat ibili da lanean eta eurei ere jakinarazi diet. Aitor Biainek jarraituko du gero, Iñigo Ugartek eta berak hasiko dute etapa berria.

#### Nolakoa izatea gurako zenuke?

Bide hori eurek egin behar dute. Hala ere, abesbatzarekin dugun harremana ez galtzea gurako nuke nik.

# Hamalau ortu gehiago daude baratze parkean

Duela zazpi urte hasi ziren San Martingo baratze parkea erabiltzen, eta 88 ortu daude gaur egun; partzela batzuk gelditzen dira libre oraindik, eta interesa duten herritarrek izena eman dezakete udaletxean. Lau urterako dira esleipenak

## O.E. OÑATI

Handitu egin dute San Martin auzoan dagoen baratze parkea. Hamalau ortu gehiago daude maiatz amaiera ezkerreko: 88, guztira. Partzela guztiak ari dira erabiltzen, baina libre ere badaude batzuk, eta, inork interesa edukiz gero, izena eman dezake udaletxean.

Baratze parkeko ortu eta eskaera kopurua parekatua izan da hasieratik. "Itxarote-zerrenda ere egon da inoiz, eta, pandemiaren ondorioz, ortua izateko interesa gehitu egin da. Parkeko zati bat ohiko erabiltzaileek erabiltzen zuten, euren ortuetan toki asko hartzen zizuten barazkiak landatzeko, adibidez, eta zati hori lantzea, pasilloa egitea eta ur depositua jartzea erabaki genuen, gogoia zuten beste herritar horiei ere aukera emateko. Egundak gelditzen dira partzela batzuk libre, eta erabiltzaileek erabiltzen dituzte hutsik ez egotearen, baina,



San Martingo baratze parkea. O.E.

ikusiz gero jendeak interesa duela, eurei esleitzen genizkieke. Horregatik, ortua izateko gogoia duten herritarrek animatu egingo nituzke izena ematera", azaldu du Oñatiko Udaleko Ingurumen zinegotzi Asier Iraetak.

## Gipuzkoan eredu

Berez, lau urterako esleitzen dituzte ortuak, baina orain hartu dituztenek hurrengo esleipenera arte erabili ahal izango dituzte, gero baldintza beretan egon daitezzen erabiltzaile guztiak. Orduan eskaerak gutxiago badira, bakoitzak bere ortuarekin jarraitu ahal izango du, baina, eskaerak gehitzen badira, baliteke partzelen zozketa egin behar izatea. Egungo baratze parkean ez dago ortu gehiago egiteko tokirik; egitekotan, beste gune batean egingo lirakeke, gorago.

Duela zazpi urte hartu zuten ortua hor lehen erabiltzaileek, eta orain arteko esperientzia positiboa izan dela adierazi du Iraetak. Gipuzkoako beste herri batzuetan dauden baratze parkeekin konparatuz, eredu hartzen dute Oñatikoa, bere esanetan, "jarraipen eta txukuntasun aldetik, eta txabolak eta pasilloak dituela ikusita".

## 'TicketBAI' zer den eta nola egin azalduko dute eguaztenean

Datorren urtetik aurrera derri-gorrezkoa izango du jarduera ekonomiko bat duen edonork bere fakturen berri zuzenean Ogasunari bidaltzea. Horretarako, egokitu egin behar dituzte kutxa erregistratzaileak, ordenagailuak eta pisuak, adibidez. Hala, prozesu horren guztiaren berri emateko eta zalantzak argitzeko, bi informazio-bilera egingo dituzte datorren astean: hilaren 14an, 14:00etan eta 20:00etan, zinema aretoan. Gualbi aholkularitzako zuzendari Fernando Gutierrez Garatek emango ditu azalpenak; *TicketBAI* programara egokitzeko zer egin behar den eta horretarako dauden epeak, besteak beste.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

## Hobe guran

Gizakiok, etengabe, bizitza hobe baten bila ari gara. Ez gara konformatzen daukagunarekin. Gogo hau bere izaerari lotuta dago eta gizakiok aurrerapausoak ematen saiatzen gara, nahiz eta askotan ez dugun asmatzen eta ez ditugun gure helburuak betetzen. Geure esku dauden erabakietan ez badugu beti asmatzen, zer esan erabaki garrantzitsuenak guregan ez daudenean. Zorritzarez, euskaldunok ohituta gaude gure asmo eta helburuak bete gabe bizitzen. Bi inperioren menpe egotearen ondorioak dira. Beraiek emandako legedi nagusia betetzera eta beraiek idatzitako historia ikastera behartzen gaituzte. Euskal Herriaren aldeko historialariek idatzitako liburuen kontakizunak ez dira irakasten, eta, honela, ez da harriztekoa gure ikasleak eta herritarrek, orokorrean, geure historian ezjakinak izatea. Menpekotasun honen adibide dira, besteak beste, epaileek euskarari buruz hartu berri dituzten erabaki larriak, bai Irungo kasuan, bai Frantzian. Legeak beharrezkoak dira gizarteko bizitzan, baina ez dira onartuak, "kanpotik" inposatuak eta herritarren nahien kontrakoak direnean.





'Arieta', Lehen Mailako partidu batean. EIBAR KE

# "Behetik gatozenok kasta erakusten dugu futbol zelaian"

UNAI ARIETALEANIZBEASKOA EIBARKO JOKALARIA

**FUTBOLA** Kategoria gorenean debuta eginda, datorren denboraldian Bigarren Mailan saiatuko da talde armagineko hamaikakoan bere tokia egiten aurrelari bergararra

**Hasier Larrea** BERGARA

Joan den sasoiko lau partidutan egin zuen Jose Luis Mendilibarrekin *Arieta*-ren (Bergara, 1999) aldeko apustua, eta bigarren zatietan pizgarri bezala zelairatu. Talde berean jarraituko duen arren, beste erronka bat du orain aurretik, Bigarren Mailan jokatuko baitu entrenatzaile eta jokalar berriekin.

**Nola bizi izan duzu denboraldia?**

Niretzat ikasteko urtea izan da, polita benetan. Denboraldi-aurrea lehen taldearekin egin arren,

Eibarren harrobiko taldearekin ere, Vitoriarekin, aritu naiz jokatzen, Hirugarren Mailan. Goian jokalaria falta zirenean deitzen ninduten entrenatu eta, kasu batzuetan, partiduak jokatzeke. Hala, Elxen, Alavesen,

**"INORK EZ ZUEN SINISTUKO, IGOERA LORTU BERRITAN, EIBARREN LEHEN MAILAKO IBILBIDEA"**

Real Madrilen eta Granadaren aurka jokatzeke zortea izan dut. Kontrara, egonkortasuna falta izan zait bi taldeetan.

**Emaitzak falta izan zaizkizue aurtentzen Eibarren.**

Egia da; hala ere, atzera begiratuta, sari bat bezala ikusten dut aurtentzen bizitakoa.

**Zaleak zenbateraino dira garrantzitsuak?**

Zerbaitegatik esaten da hama bigarren jokalaria direla. Duela sei urtetik naiz klubeko bazkide, ondo ezagutzen dut Ipuruan

sortzen den giroa. Aurtentzen jokatuak neurketak oso desberdinak izan dira, entrenamenduak ziruditen; inor begira ez egotea, kanpoko presiorik ez sumatzea... Arraroa egin zaigu. **Jaitsiera egunean loreak bota zizkizuten aurkari guztiak.**

Gogoan dut Eibarren igoera, duela zazpi urte. Kadete mailan nengoen orduan, eta guztiontzat izan zen sorpresa. Ondoren jatzakoa ere sinestezina izan da. Nork esango zuen hainbeste denboraldi egingo genituenik elitean? Sekulako balioak dituen herri txikia da Eibar; behar bada, horregatik erakutsi digute horrenbesteko begirunea.

**Mendilibarren itzala kanpotik dirudiena bezain luzea izan al da?**

Eibarrek maila mantendu duen gehiegi sufritu ez badu, hori entrenatzailearen aginduak jokalariek zelaian bete dituztelako izan da. Ekipo guztiak sinistu du beti bere esanetan.

**Orain, beste ezagun bat, Gaizka Garitano, egongo da aulkian.**

Gauzak ondo egin ditu bere ibilbidean. Nire lana gustatzen bazaio, aukerak izango ditut minutuez gozatzeko. Harrobikook badakigu emaitza pertsonalak lortzeko lan gehiago egin behar dugula. Bestalde, Lehen Mailatik Bigarrenera aldea ez da hain handia; denboraldi-aurreak markatuko du, hein batean, ze rol izango duan.

**Beste bi euskal taldeekin lehiatuko zarete.**

Ezagutzen ditut Sanseko eta Amorebietako zenbait jokalar. Talde bizkaitarrean Aitor Arregi bergararra dago, gainera. Auzo berekoak gara biok!

**Aldagelan, ordea, hutsuneak izango dituzue, ez al da hala?**

Normala den bezala, talde erdik egin du alde, Lehen Mailan jokatzen jarraitu nahi dutelako. Plaza horiek betetzeko, hemendik eta abuztua bukatu arte fitxaketa ugari egingo ditu klubak, iazko tokira itzultzeko helburuarekin. Orain bertan, Quique Gonzalez eta biok gara aurrelari bakarrak.

**Sergi Enrich eta Kike Garcia joan egin baitira.**

**"TALDEA NIRE GOLEN AURRETIK DAGO; DENA EMATEN DUT ZELAIAN, ETEKIN KOLEKTIBOAGATIK"**

Eurengandik ikasi dut, bereziki. Gero, sekulako pertsonak ezagutu ditut talde barruan; baten bat nabarmentzearen, Yoel Rodriguez atezaina.

**Batzuek ondo aprobetxatu dute egonaldia, ezta?**

Bryan Gilek, adibidez, sekulako denboraldia egin du, Espainiako selekzioan debutatzeraino. Proiektzio eta etorri handia dauka, igartzen zaio urrun iritsi nahi duela.

**Ez da klubaren asmoa izango kanpoko talentuak erakartzetik bizitzea, hala?**

Azken urtean etxeko lauzpabost jokalarik jaso dugu talde nagusiarekin debutatzeko bultzada; esango nuke ez dela halakorik ikusi azken zazpi urteotan. Ikusten da, poliki-poliki, harrobiari garrantzi handiagoa ematen diotela. Udan etxeko zortzi jokalarik osatuko dugu liga aurreko prestaketa Garitanorekin. **Zergatik irteten dira hainbeste euskal jokalar elitean?**

Athleticek, Realak, Amorebietak eta halako klubek ikusi dute etxekoa lehenesteak emaitza onak dakartzala. Prestatzaileek lan handia egiten dute harrobiaren alde, eta, jokalariei momentua iristen zaigunean, konfiantza ematen digute. Badakite kanpokoak izateak ez duela esan nahi hobeak direnik, bertakook kasta handia erakusten baitugu.

**Zu zeu zer-nolako jokalaria zara?**

Borrokalaria naiz, taldeagatik dena ematen duen aurrelaria. Guztiaren aurretik dago lana, eta gero, irtengo dira gauzak hobeto edo okerrago. Nahiago dut ekipak lan txukuna egitea nik neuk golak sartzea baino.

**Noiz arte ikusiko zaituztegu Atxabalen entrenatzen?**

2021/22 denboraldian zehar, gutxienez, Arrasateko Garagartza eta Gesalibar auzoen arteko futbol zelaietan arituko gara astean zehar. Bien bitartean, aurrera egingo du Areition erakitzen ari diren kirol-hiriaren proiektuak. Klubak ez du 2023a aurretik bertara lekualdatzea aurreikusten.

**Futbolarien kirol-ibilbidea laburra dela kontuan hartuta, garrantzia ematen diezu ikasketei?**

Noski, horregatik nabil Mondragon Unibertsitatearen Oñatiko Campusean Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasten. Gradu Amaierako Lana, hain justu, Areitioko kirol-hiriaren inguruan idatzi dut.





2018ko Antzuola sariaren hasieran, txirrundulariak plazatik irteten. GOIENA

## Uztaileko klasikoen moda ez da pasatzen

**TXIRRINDULARITZA** Iñaki Lete gogoan, Peña Aiastui elkarteak 75. aldiz antolatuko du afizionatuen mailako Antzuola saria. Lasterketa domekan, 09:30ean, abiatuko da, Herriko Plazatik; bihar arratsaldean, juniorrak Arantzazuko 51. igoeran lehiatuko dira

**Hasier Larrea** ANTZUOLA 2019ko aldirako diseinatutako ibilbidea errepikatuko dute aurturten, iazko etenaren ostean, Antzuola sarian parte hartuko duten 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrundulariek. 119 kilometroan bi aldiz igoko dute Deskargako mendatea, eta behin Asentziokoa. Tartean, Urretxu, Oñati, Udana, Bergara, Angiozar

eta Arrasatetik pasako dira lasterkariak.

Horien artean egongo dira Eulen taldeko Asier eta Andoni Azkarate arrasatearrak eta Unai Cueva oñatiarra. Inguruko probetan ez ezik, Frantzia aldean ere aritu dira azkenaldian lehiatzen. Iaz ez bezala, aurtengo udan "lasterketetan zentratuta" ibiltzeko modukoa izango dela

aurreikusten du Andoni Azkaratek, "proba politak" baitituzte aurretik Euskal Herriko txirrundulari afizionatuek.

Peña Aiastuikoeak 100 lasterkeratik gora espero dituzte Lehendakari probako lehia puntuagarrarian. Egunean bertan 30-40 boluntario ibiliko dira lanean: "Uzarragako igoera bezala, domekakoa ere ondo irteteko".

## Europako atleta onenen artean ari da lehiatzen Eneko Carrascal

**ATLETISMOA** Jauzi hirokoitzean eta luzerakoan parte hartzen dihardu, Tallinn-en, 23 urtez azpiko kategorian

**Hasier Larrea** ARRASATE

Junior eta maila absolutuaren arteko kategorian, 23 urtez azpikoan, egokitu zaio azken hiru denboraldietan Eneko Carrascal atleta arrasatearrari lehiatzea. Ibilbide horri amaiera bikaina eman nahi dio asteburu honetan Europako txapelketan: "Aurturten, aurrerapausoa eman dut, oso ondo nago gorputzez eta buruz, eta ea oporretara zapo onarekin joatea lortzen dudan". 20 eta 18 urtez azpikoetan parte hartua dauka Europa mailan, baina lehen aldia du 23 urtez azpikoetan.

Realeko jauzilaria Espainiako selekzioak hautatua izan da, eta Tallinnera (Estonia) joateko baldintzak bete ditu aurturten, Donostian lehia ofizialean marka minimoak gainditu eta Espainiako txapelketan sasoi onean zegoela erakutsita; hain zuzen, urrea eskuratu zuen jauzi hiru-

koitzean (16,02 metro) eta brontzea luzera-saltoan (7,44 metro).

Baina horiek ez dira Carrascal-en markarik onenak, martxoan Madrilen 16,14 metroko jauzi hirukoitza eta maiatzean Donostian 7,73 metroko luzerako jauzia egin baitzituen. Hala, bi modalitateetako finalerako sailkatzen saiatuko da; atzo arratsaldean zen jokatzeko luzerako sailkapen proba, eta finala gaur jokatu da, 18:30ean. Salto hirukoitzeko lehen fasean, berriz, bihar eguerdian hartuko du parte, eta finala domeka goizean lehiatuko dute. Bi finaletan egon nahi du, eta hori lortzen badu, "hamabi finalisten artean zortzigarren postutik aurrera" sailkatzen saiatuko da.

Datorren denboraldian, berriz, maila absolutuan, "markak hausten dabilzan atletekin" lehiatuko da arrasatearra.

## Ezagutzaren abantaila baliatuko du Kortazarrek munduko proban


**MENDI LASTERKETAK** Kilometro bertikala eta maratonia izango ditu gaur eta etzi Lleidako Vall de Boi

**H.L. ELGETA**

Hirugarren aldiz jarraian neurituko dituzte munduko mendi-lasterkari lehiakorren indarrak toki berean, eta hirugarrenez egongo da bertan Oihana Kortazar elgetarra Espainiako selekzioarekin. 2012an, kilometro bertikaleko proban urrea eta 42 kilometroko ibilbidean brontzea eskuratu zituen; eta 2016an, berriz, laugarren gelditu zen azken proba horretan.

Maratoiaren ibilbidea "aldiari" aldatzen dutela dio Kortazarrek, eta jadanik izan du joan-eturriari neurria hartzeko aukera, duela bi aste egon baitzen Vall de Boiko gailurretan entrenatzen. Aldiz, kilometro bertikala "beti berdina" izaten dela eta Anboton ibili da asteon modalitate horretako igoera prestatzen.

Korrikalariak aurtengo Espainiako txapelketa eta Kopako



Kortazar, entrenatzen. BORJA IBAN

lehen proba irabazteagatik lor-tu du munduko selekzioen aurka lehiatzeko eskubidea. Bere taldean bi probatan parte hartuko duen emakumezko bakarra izango da: "Gogotsu nago, azken urteetako lesioak atzean utzi eta onena emateko prest".

### Beste 50 urte betetzera

Gazte mailako Arantzazuko igoerak mende erdia bete zuen duela bi urte, eta, iaz ezin izan zuten antolatuta, 51. edizioa izango da aurtengoa.

Aloña Mendi Kirol Elkarteak txirrundularitza sailak urtean zehar antolatzen dituen sei hitzorduetako bat da bihar 16:30ean Urrintxo jatetxean hasiko dena: "Eskolarteko, kadeteetako, afizionatuetako eta

ziklo-kroseko proba bana egiten dugu, eta gazteen mailako bi", aipatu du Xabi Murgiondo antolatzaileak. Ziklista gipuzkoarrez osatuta egongo da, batez ere, tropela, eta Bergarako zein Oñatiko ordezkariak bermatuta egongo da:

"Bailarako zortzi lehiakide inguru joango dira; maila ona ematen ari dira, orokorrean, baina azpimarratzekoa da Aimar

Erostarbe eta Danel Casais egiten ari diren denboraldia".

69 kilometroko probako azken zatian igoko dira Arantzazuko auzora txirrundulariak, eta aurretik Arregiko maldan izango dute ze puntutan dauden jakiteko aukera, Bergaratik eta Arrasatetik pasa ostean.

Aloña Mendikoeak 25 gradu inguruko tenperatura aurreikusten dute biharko: "Lasterketa jokatzeko perfektua".



# Rap doinuekin gozatzeko aukera Usondo parkean

Iker Hiriart 'HRT' eta Sady Ayastui 'K-PO' bergararrak, Joanes Unamuno 'El Negro' donostiarra eta Elena Caballero Villanueva 'La Basu' musikariak izango dira bihar, 21:30ean, Usondo parkean egingo duten rap jaialdian; 200 lagunendako tokia dago

## Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Euskal Herriko musika eszena aldatzen ari da, garai bateko rock eta punk doinuek lekukoa hartzen ari dira bestelako musika estiloak; horien artean, rap mugimendua. "Rap kantariak beti arraroak izan gara, eta bada garaia gauzak pixka bat aldatzeko eta aukera berriak emateko. 20 urte baino gehiago daragu guk rapa egiten; izan ere, folklorea maite dugu, baina baita bonboa eta kutxa ere", dio 'La Basu' bizkaitarrak.

Debagoienean ere ari dira estilo horretako formazioak sortzen; Iker Hiriart 'HRT' eta Sady Ayastui 'K-PO' dira horren adibide. Goienak Bergarako Udalarekin elkarlanean antolatutako 'Herrikik herrirako kultura moka-dua' izeneko saioan hartu zuten parte, eta "irrikaz" daude estreinako kontzertua jaioterrian egiteko. Honela dio Hiriartek: "Plazer handia da guretzako; beraz, espero dut 'K-PO'-k eta biok gure onena ematea eta publikoarekin konektatzea. Orain dela urte batzuk, oso zaila zen horrelako ekitaldiak gurean ikustea, baina gaur egun rap mugimendua indar handia ari da hartzen, eta horrek asko pozten nau. Kartelari dagokionez, oso konpletua iruditu zait, ho-



Sady Ayastui 'K-PO' eta Iker Hiriart 'HRT', Seminarixoa egindako saio baten. GOIENA

nako arrazoi hauengatik: lehenik eta behin, herrikoei taularen gainera igotzeko aukera eskaini digutelako; eta, bigarrenik, 'La Basu' ere izango delako. Alegia, neska gutxi daude rap mugimenduan, eta aukeraketa ezin hobea iruditu zait".

## Itxialdian, lehen rap kantuak

Askotariko estiloak gustatzen zaizkio 'HRT'-ri, baina azken hamar urteetan, bereziki, rap estiloa du gustuko, eta itxialdian ekin zion rap kantuak idazteari, jolas moduan. "Lagun

batzuei pasatu nizkien gero, eta, gustatu egin zitzaizkionez eta lotsarik eta beldur eszenakorik ez dudanez, aurrera egitea erabaki nuen. Gasteizko Chalo VG ekoizlearen Sky Sound estudio-ira jo nuen, eta han grabatu ditut sare sozialetan ikusgai dauden kantuak eta bideoak. 'K-PO'-k eta biok aurretik ezagutzen genuen elkar, eta, hark ere musika egiten eta kantuak idazten zituenez, egindakoak erakutsi nizkion; harrezkero, bidelagun gara".

Hamabost minutuko saioa egingo dute Bergarakoek jaialdia

hasteko. "Bi abesti berri oparituko ditugu, datozen hilabeteetan Youtuben eta Spotifyn -HRT izeneko kanalean- argitaratuko ditugunak; horietako bat abesteko Chalo VG lagun izango dut taularen gainean".

## 'El Negro' eta 'La Basu' gero

Bergarako familia duen Joanes Unamuno 'El Negro'-k hartuko du lekukoa gero; Hiriarten esanetan, egun Euskal Herrian dagoen puntako rap kantaria: "Orain dela lau hilabete hasi nintzen bere musika entzuten, eta asko flipatu nuen. Zapatuan aurkeztuko duen 'Focus' bere azken diskoa izugarria iruditu zait. Bi estilo nahastu ditu lan horretan: letra oso beltzak edo makarrak eta errealitatea, baina estilo melodikoarekin".

Laukote formatuan izango da, berriz, 'La Basu'-ren emandialdia: DJ Ibai, Alas Glow, bigarren ahotsean eta Iñigo Elexpuru baterian izango ditu lagun. "Bere abestietan gizarteak barneratu behar dituen mezuak transmititzen ditu, hala nola feminismoarekin lotutakoak", gaineratu du 'HRT'-k.

## Aurrez gonbidapenik ez

"Jendea iritsi ahala parkera sartzen joango da, eserlekuak bete arte. Jaialdiaren eremuan maskara jantzita izatea derrigorrezkoa da, eta baita segurtasun-distantziak gordetzea ere, eta debeatuta dago erretzea", dio Kultur teknikari Maider Osak.

**SARRERA DOAN DA;  
200 LAGUNENDAKO  
TOKIA EGONGO DA  
ESERLEKU HORIEK  
BETE BITARTEAN**

# Euskal Herriko mito eta ipuin zaharrak, bihar gozagarri

Arantzazuko Gandiaga I Topagunean ordubeteko bi saio egingo dituzte: 17:00etan eta 18:30ean

## A. Aranburuzabala OÑATI

Jose Migel Barandiaranek jasotako kondaira mitologikoak ezagutzeko eta giro goxo eta magikoan zapatu arratsaldean familiar igarotzeko proposamena egin du Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak.

Maitane Aizpurua 'Marimunduko' ataundarrak, Jentilbaratza Kultur Elkarteko kideak, ordubeteko saioan askotariko istorioak kontatuko ditu. "Euskal Herriko hainbat lurraldetako istorioak izango dira, modu ezberdinetan kontatuta; 'Marimunduko'-k bi ipuin kontatuko ditu eta saioa borobiltzeko, bestelako pertsonaia mitologiko gehiagoren laguntzarekin, beste istorio bat antzetzeko du. 4 urtetik gorakoentzako saioak izango dira, baina helduentzako ere gozagarriak direnak", azaldu du Aizpuruak Goiena telebistako 'Hemen Debagoiena' saioan.

## Izena eman behar da aurrez

Bi saio izango dira: 17:00etan eta 18:30ean. Aurrez eman behar da izena; sarrera lau euro da. Izena emateko eta informazioa jasotzeko, deitu 943 78 28 94 edo 699 33 51 83 telefono zenbakietara edo idatzi 'Arantzazu@gipuzkoanatura.eus' helbidera.

## 'IKERGAZTE'

### GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 14AN, EGUAZTENEAN, 21.00ETAN ETA 23.00ETAN  
EUSKAL IKERTZAILE GAZTEEN GAINEKO ERREPORTAJEA



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# "Arriskuan jarri izan dut argazki-ekipoa sarritan"

**AITOR BENGEOA 'POLI' ARGAZKILARIA**

Musikazalea da eta "milaka" argazki ditu; horietatik 22 aukeratu ditu herriko Arkupe aretoan duen bildumarako; uztailearen 30era bitartean dago erakusketa ikusgai

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETAK

Punk-rock taldeak ditu, bereziki, Aitor Bengoa *Poli*-k gustuko, eta, orain dela bost urtetik, kontzertu askotara eramaten du argazki-kamera.

**Honen guztiaren atzean kontzertu asko; nola egin duzu aukeraketa?**

Hori izan da lanik zailena. Hiru laguneren artean egin dugu aukeraketa eta oso zaila izan da iriztiak bateratzea; bazterkin pila bat egin ditugu azken bilduma osatzeko. Taldeak ez errepikatzen saiatu naiz, eta enkoadraketa ezberdinak erakusten ere bai: plano itxiak, zabalagoak...

**Denak dira koloretan, baina zuri-beltzean ere badituzu, ezta?**

Bai, eta gustatuko litzaidake beste erakusketa bat egitea halakoekin. Koloretako argazkiekin egitea erabaki nuen oraingoan; ikusiko duzuen moduan, kolore bizi-zalea naiz.

**Argazkiak ateratzeko orduan gustuko talderik baduzu?**

Pila bat! Jokoa ematen dute talde asko daude-eta, asko mugitzen den abeslaria dutelako, adibidez.

Etxeke taldeei dagokienez, Arkada Social, Des-kontrol, Guilty Brigade, Desakato, Brigade Loco...

Eta atzerrikoen artean, adibidez, Baboon Show taldearen oso zalea naiz eta NOFX taldearen argazkiak ere erakutsi ditut.

**Prestaketa berezirik egiten duzu?**

Ezagutzen ditudan taldeak dira, gehienetan, eta, horregatik, momentu bereziak zeintzuk izan daitezkeen harrapatzen saiatzen naiz. Dena dela, argazkiak ateratzen hasi aurretik, lehenago taldea ikustea gustatzen zait, prest egoteko gero.

**Musika estilo batekoak guztiak.**

Bai; normalean, punk-rock kontzertuetara joaten naiz, *makarra* musika asko gustatzen zait.

**Gizonezkoak dira, gehienbat, argazkietako protagonistak. Dagoen musika eszenaren erakusle?**

Hala da, bai; emakumezkoen talde gutxi daude oraindik ere.



Aitor Bengoa 'Poli', Arkupen duen erakusketan. MIRARI ALTUBE

## "OSO GUSTUKO DUT BATERIAREN ATZEAN EGOTEA, TALDEA ETA PUBLIKOA BATERA HARRAPATZEKO"

Hala ere, badituz batzuk, baina bilduma honetan bi bakarrik daude: Ana Curra eta Cecilia (Baboon Shown).

**Halako argazkiak ateratzeko, musikariengandik oso gertu egon behar duzu. Eurek jakiten dute zu han zaudela?**

Saiatzen naiz beti beltzez jantzita joaten, ahalik eta gutxien igartzeko han nagoela. Musikariek jakiten dute han nagoela, noski, akreditazioa eurek ematen didate eta. Zortea daukat akreditazioa izaten dudalako beti, eta horrek taularen gainean eta aretoko beste toki askotan ibiltzeko aukera ematen dit, eta horrela lortzen dut gero ikuspegi ezberdinetako argazkiak ateratzea. Oso gustuko dut, esaterako, bateriaren atzean egotea, asko gustatzen zait ikuspuntu hori, taldea eta publikoa batera ateratzeko.

**Eta musikariek eskatzen dizkizute?**

Mundu hau oso traketsa da, dena doan gura dute. Eurek jotzearen dirua jasotzen dute, baina argazkilariorik dirua eskatzea ez zaie askori gustatzen. Beste batzuetan, musikariek eskatzen didate kontzertura joateko, aurrez aurrekontu bat adostuta. Hasieran hainbat oparitu nituen, baina kontua da argazkien atzean gastu batzuk daudela; izan ere, Bartzelonara, Madrilera, Kantabriara... joaten naiz, eta horrek esan gura du erregaia, lo egiteko tokia... ordaindu behar ditudala.

**Pandemia sasoiaren ez da kontzertu askorik izan; joateko aukerarik izan duzu?**

Asteburu guztietan ibili naiz, zortea dut akreditazioak lortzeko. Dena dela, publikoa eserita egoteak xarma asko kentzen du -jendearen keinuak, saltoak...-. Arriskuan jarri dut argazki-ekipoa sarritan, baina hala behar du barrutik argazki onak ateratzeko!

**Libururik argitaratzeko asmorik?**

Ez litzateke gaizki egongo! Baina guztiaren atzean dirua dago; beraz, norbait laguntzeko prest izanez gero, zergatik ez, ezta?

Goiena Klubaren txokoa

**Goienakideko uztaileko zozketak!**



**Bi lagunendako bi gauetarako egonaldia Altsasuko San Pedroko Bidea landa hotelean**

Parte hartzeko sariaren izena: Egonaldia

**Sarrerak**

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
GASTU-ERAKUNTZA

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Eskatu: Merkatariak produktuak

**PARTE HARTZEKO:**


**Posta elektronikoa:** klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sarriaren aretoa" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. **"goiena app"-a / zozketa atalean.** Parte-hartzearen artean egongo da zozketa.

Indarrez gero 1070 157000 lagunen artean zozketatzen dira sarriaren aretoa. Sarriaren aretoa zozketatzen denean, indarrez gero 1070 157000 lagunen artean zozketatzen dira. Sarriaren aretoa zozketatzen denean, indarrez gero 1070 157000 lagunen artean zozketatzen dira. Sarriaren aretoa zozketatzen denean, indarrez gero 1070 157000 lagunen artean zozketatzen dira. Sarriaren aretoa zozketatzen denean, indarrez gero 1070 157000 lagunen artean zozketatzen dira.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**SANTA ANA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorofun atala eta hartu parte!  
Parte hartzeko azken eguna: uztaileak 13



KLUBA Jateketa  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



DESKARGATU GOIENA  
APP BERRIA!

**BAZKIDETZA KUOTA: 30€**  
Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Armaio - Aretxabaleta - Eskoriatza. 35-38 urteko bikote bat gara eta, printzipioz, hurrengo ikasturterako etxe bila gabilta. Deitu konpromisorik gabe! 652 76 33 46 edo 665 74 40 85

Arrasate edo Aretxabaleta. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar duغو errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 663 40 92 67

Arrasate. Bikote arduratsua gara eta etxebizitza behar duغو errentan, prezio onean, ahal bada erdigunean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 680 87 38 66

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Orduka, pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 688 77 23 33

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusi eta umeen zaintzan, garbiketa lanetan eta abarrean jarduteko prest dagoen emakumea naiz. Telefonoa: 602 50 50 02

Arrasate. Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukan emakumea abuztutik aurrera lanerako gertu. Gidabai-mena eta erreferentzia onak. Orduka, gauetan zein etxean bertan bizi izaten. 680 87 38 66

Arrasate. Etxe barruan bizi izaten lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 643 41 45 38

Arrasate. Garbiketarik egingo nituzke, orduka. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Asteburuetan lan egin nahi dut; umeak edo pertsona nagusiak zaintzen, garbiketala lanetan. 626 91 49 04

Debagoiena. Goizetan nagusiak zainduko nituzke. Berekala hasteko moduan. 602 32 06 58

Debagoiena. Emakume euskalduna naiz eta hainbat lanetan jarduteko prest nago: pertsona nagusi edota umeen zaintzan, garbiketa lanetan, fabriketan, zerbitzari lanetan. 656 79 28 37

Debagoiena. Emakume euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. 634 81 54 93

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu nagusiak eta umeak orduka zaintzeko. 620 23 58 15

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsonen zainkarako edo garbiketarako lan egitea gustatuko litzaidake. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 642 49 94 09

Debagoiena. Etxeko langile, pertsonen zainketa edo garbitzaile bezala lan egiteko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 641 44 16 30

Debagoiena. Hainbat lanetan jarduteko prest nago: eraikuntzan, tabernetan, pertsona nagusien zaintzan. 612 28 05 29

Debagoiena. Lanean hasteko prest nago; pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiketa lanetan. 602 02 63 03

Debagoiena. Mutila garbiketan, nagusiei laguntza ematen, banaketan edo bestelako lanetan jarduteko gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 643 68 73 46 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko paperak egunean ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 80 27 53

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketarik egiteko gertu nago, etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketan, lisa-tzen eta ume zein nagusien zaintzan aritzeko gertu. Baita ospitalean ere. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska arduratsua naiz, esperientzia duena, eta garbiketetan zein ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Berekala hasteko gertu nago eta ordutegi aukera guztiekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 12 28 56

Debagoiena. Neska arduratsua orduka edo egunean zehar lan egiteko gertu. Soziosanitario, etxeko langile eta lehen sorospen ikasketak daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653 36 85 80

Debagoiena. Orduka garbiketa eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Legezko agiriak daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 65 32 00

Debagoiena. Orgak gidatzen lan egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zaintzen eta legezko prest nago baita ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona arduratsua naiz eta lan egiteko prest nago: tabernetan zerbitzari bezala, pertsona nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603 58 06 85

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen eskarmentu handia duen emakume euskalduna naiz eta lan egiteko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen gauz lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko paperak egunean ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago; gauz orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659 90 85 13

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzaile bezala esperientzia daukat eta lan egin nahi dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsonen zainketa lan egingo nuke, baita garbiketetan ere. Trebetasuna duen pertsona naiz. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 36

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Titulazioa daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 72 88 97

Debagoiena. Soziosanitario eta legezko agiriak dituen emakume prest nagusiak zaintzeko. Orduka, gauetan eta baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska lanerako gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 65 32 00

Debagoiena. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketala lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. 671 16 54 60

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita asteburuetan ere. 604 37 70 41

Etxeak garbitu. Etxeak, behebarruak, garaieak, etab. garbitzeko prest. Pertsona helduei lagundu edota haurrak zaindu. 669 19 26 50

Oñati. Neska gertu umeak zaintzeko uztailean. Bai goiz eta bai arratsalde. Interesatu bazeude, idatzi zenbaki honetara 636 73 64 40

Zaintza eta dendari lanak. Uda honetan Bergaran haurrak zaintzeko edota dendan lan egiteko prest dagoen neska gazte euskalduna. 634 40 86 24

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Gure alabari euskara eskolak emateko irakasle bila gabilta. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 609 18 61 42

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra. Land Rover Defenderra behar dut baserri-rako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, makuratu, edota kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK


703. EMAN

Katakumeak opari. Hilabetezko katakumeak ematen dira opari. Bi hilabete-ekin entregatuko litirateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 667 94 52 12

Katakumeak opari. Hilabetezko katakumeak ematen dira opari. Bi hilabete-ekin entregatuko litirateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 31 02 61

Txakurkumeak opari. Griffon Korhals arrazakoa da ama eta artzain alemaniarra aita. Interesatuok whatsapp jarri harremanetan zenbaki honetan: 685 72 83 34

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ARRASATEKO BIG BAND TALDEAREN KONTZERTUA

'Bereziak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



IKER ESKIBEL ZIKLISTARI ELKARRIZKETA

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

Table with 3 columns: EGUBAKOITZA, 9; ZAPATUA, 10; DOMEKA, 11. Lists TV programs for each day.

IRAGARKIA JARTZEKO:

- Contact information for advertising: 943 25 05 05, SAILKATUAK@GOIENA.EUS, WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK, and a list of services.

- ORDAINTZEKO ATALAK: List of services offered by GOIENA, such as advertising and consulting.

Real estate advertisement for BERGARA, listing various properties for sale (ETXEBIZITZAK SALGAI) with details on location, size, and price.

Advertisement for GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA, featuring 'IKERGAZTE' ERREPORTAJEA 'Ikerkuntzatik euskaraz argiten' and 'IKERGAZTE' ERREPORTAJEA 'Ikertzatik euskaraz argiten'.



URTEURRENA



**Conchita Alberdi Urquia** 

2020ko uztailearen 2an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurren meza domekan izango da, uztailearen 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko uztailearen 9an.

URTEURRENA

**Antoni Etxeberria Sagasta** 

1937-06-13 / 2020-07-10

Urteurren meza domekan izango da, uztailearen 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Gugandik joan zara baina gurekin jarraitzen duzu. Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik betiko maiteko zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko uztailearen 9an.

URTEURRENA

**Jose Antonio Garitano Umerez** 

'Anton'

2020ko uztailearen 28an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurren meza domekan izango da, uztailearen 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko uztailearen 9an.

ESKER ONA

**Conchi Castelo Martin** 

Juan Etxeberriarteunen alarguna

2021eko ekainaren 24an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko uztailearen 9an.

ESKER ONA



**Urrategi Elorza Uranga** 

Rikardo Larrañagaren alarguna


2021eko uztailearen 2an hil zen, 74 urte zituela.

Lurra utzi du enborrak  
Erein ondoren hazi emankorrak  
Landare horietan bizirik darrai  
Zure argi hilezkorrak.

Eskerrik asko bihotzez momentu gogor honetan gurekin izan zareten guztioi.

Bergaran (Angiozar), 2021eko uztailearen 9an.

ESKER ONA

**Jose Luis Onsoño Abad** 

2021eko uztailearen 1ean hil zen, 76 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko uztailearen 9an.

OROIGARRIA

**Felix Uribebarria Osoro** 

*Esku bat zuk, beste esku bat guk, onenean eta txarrean, beti elkarrekin, maitasunez eta irribarrez,*

*bizitzan aurrera eginez. Zure bihotzean, gure bihotzean, beti elkarrekin bat eginez.*

Zure bilobak: Markel, Julen, Lide, Ekhi, Ainara eta Asier. Aretxabaletan, 2021eko uztailearen 9an.

OROIGARRIA



**Felix Uribebarria Osoro** 

Arrasateko zure kuadrillako lagunak ez zaitugu ahaztuko.

Arrasaten, 2021eko uztailearen 9an.

OROIGARRIA

**Rafael Zulueta Zulueta** 


2021eko uztailearen 2an hil zen, 83 urte zituela.


*Beti izango zaitugu gogoan.*



Txantxiku-Txoko elkarteko zure lagunak. Oñatin, 2021eko uztailearen 9an.

OROIGARRIA



**Juan Ramon Berecibar Uribarren** 

'Txaparro'

2020ko uztailearen 9an hil zen, 62 urte zituela.

*Urtebete pasa da zu gabe, baina egunik ez zutaz gogoratu gabe. Maite zaitugu.*

Etxekoak. Arrasaten, 2021eko uztailearen 9an.

OROIGARRIA



**Francisca Cortazar Garro** 

2021eko uztailearen 1ean hil zen, 91 urte zituela.

*Saminak itzali du zure argia zure bihotzaren zabaltasuna izango da gure izpia. Eman diguzuna eskertuz jarraituko dugu bidia. Eskerrik asko.*

Altuna familia. Arrasaten, 2021eko uztailearen 9an.

**Oroilore** BABESLEA

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37





## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

### 1. Ignaziotar Bidearen lehen etapa

Loiola-Antio ibilaldia eginda bukatu zuten aurreko astean Arrasateko Sasoibideko lagunek ikasturtea. Eguaztenero eta eguenero egin dituzte paseoak.

### 2. 100 urte bete ditu

Aretxabaletako Lauri Bolinagak etxeokoen ospatu zuen mendea: seme-alabekin, birlobekin eta birbilobekin. Umorerik ez zaio falta, eta osasuntsu dago.

### 3. Bihar ezkontuko dira

"Yasmina eta Iker, heldu da zuen eguna! Zorionak, bikote! Oso ondo pasa bihar. Maite zaituztegu. Muxu eta besarkada bana Kenarren eta Alaineren partetik".

### 4. 50 urte ezkontuta


Rosarito Aranzabal eta Jabier Belastegi bergarrek etxeokoen ospatuko dute, bihar. "Zorionak! Besarkada handi bat, familiaren partetik, eta gozatu eguna. Merezki duzue!".

### 5. 65 urte ezkontuta

Angiozarko Maximo Arantzabal eta Elgetako Miren Lorea Villar 1956ko uztailaren 7an ezkontu ziren. "Zorionak! Musu handi bat, familia osoaren partetik!".




## ZORION AGURRAK



ONATI  
**Luka Galdos**  
Uztailaren 14an, 11 urte. Zorionak, Luka! Muxu handi-handi bat danon partetik!



ONATI  
**Olaia eta Amets Molinero**  
Uztailaren 13an, 10 urte. Zorionak, bikote. Etxeko eta lagun arteko bizipoza zarei. Muxu erraldoi bana.



ARRASATE  
**Uxue Nalda Gonzalez**  
Uztailaren 12an, 9 urte. Zorionak, Uxue! Irtsi da eguna. 9 urte betetzen dituzula! Muxu erraldoi bat zure familiaren partetik eta bereziki, Guguren besarkada handi eta maitagarri bat jaso! Askok maite zaitugu, potxola.



ONATI  
**Izar Alzelai Berrocal eta Ion Alzelai Zubia**  
8 eta 45 urte uztailaren 11n eta 14an. Zorionak, bikote! Ondo zelebratu zuen urtebetetze egunak. Patxo handi bat familixa danaren partetik.



BERGARA  
**Martin Lazkano**  
**Bilbao**  
Uztailaren 10ean, 7 urte. Zorionak, Martin! Esku bateko bost hatzak eta beste eskuko bi, zenbat dia? Besarkada handi bat, maitxia!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa


Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



ONATI  
**Urko Garitano Urzelai**  
Uztailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure eguna. Muxu erraldoia amatxoren, aitatxoren eta Hegoiren partetik. Askok maite zaitugu!



BERGARA  
**Oihane Gonzalez Alegre**  
Uztailaren 9an, 9 urte. Osintxu. Zorionak, printzes. Oso ondo pasatu, familia osoaren partetik.



ONATI  
**Eñaut Biain Agirrezabalaga**  
Uztailaren 9an, 7 urte. Zorionak, Eñaut, familixaren partetik eta muxu handi bat!



BERGARA  
**Ekaitz Unamuno Marzan**  
Uztailaren 9an, 10 urte. Zorionak, Ekaitz! Egun on-ona pasatu eta asko disfrutatu, etxekoaren partetik!



ONATI  
**Alix Biain Ugarte**  
Uztailaren 9an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, Alix! Ondo pasatu eguna eta 10 tirakada belarririk, lagun eta familixako danen partetik!



BERGARA  
**Anne Osuna Igartua**  
Uztailaren 8an, 6 urte. Zorionak, pitxin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo erraldoi bat familia osoaren partetik! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



BERGARA  
**Lur Cuadros Uribesalgo**  
Uztailaren 8an, 7 urte. Eguzkiari zazpi buelta aurten! Oso ondo pasatuko dugu zure egunian. Zorionak eta muxuak familia osoaren partetik. Askok maite zaitugu, "bitxita".



ESKORIATZA  
**Alexander Julen Maturana Sheen**  
Uztailaren 7an, 5 urte. Zorionak!




ARAMAIO  
**Maren Muñoz Lopez de Bergara**  
Uztailaren 7an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako. Patxo erraldoi bat familiakoen eta, batez ere aitatxoren, amatxoren eta Aiurren partetik. Ondo pasatu zure egunean.



BERGARA  
**Nahia Medina Soria**  
Uztailaren 7an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna, zure familiako guztion partetik. Askok maite zaitugu. Segi horrela. Muxu asko zuretako.



ARRASATE  
**Ibai Madinabeitia Lasa**  
Uztailaren 5ean, 2 urte. Zorionak, sagutxo! "Di" urte bete dituzu eta laister "boxt"! Bi muxu potolo, etxeko danon partetik!



ONATI  
**Andoitz Biain**  
Uztailaren 4an, 34 urte. Zorionak, Andoitz, familixaren partetik. Oso ondo pasatu eguna.



ONATI  
**Alaia Zuloaga Aranburu**  
Uztailaren 3an, 6 urte. Zorionak, maitte! Urte askotarako! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoaren partetik!



ARETXABALETA  
**Ekain Nuñez Belategi**  
Uztailaren 2an, urtebete. Zorionak, "Pototin". Urtebete bat gure bizitzak alaitzen. Askok maite zaitugu!



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 9

**OÑATI Odol ateratzea**

Udako oporren aurreko azken deialdia. Donostiako deirik jaso ez dutenek aurrez eman behar dute izena: 943-00 78 84.

*Enpresagintzan, 16:30etan.*

**ELGETA Saskibaloi saioa**

8-11 urte artekoendako azken saioa, Bergarako saskibaloi taldekoen eskutik.

*Elgetan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA UDAREN batzar orokorra**

Bukatu den denboraldiaren kirol balorazioa egingo dute eta zuzendaritza batzorde berria aukeratuko dute, besteak beste.

*Arkupen, 18:30etan.*

**OÑATI Trianako jaiak**

19:00etan, terrazaren irekiera; 19:30ean, presoen aldeko elkarretaratzea; 20:00etan, bertso saioa; eta 22:00etan, herriko gitarrista gazteen emanaldia.

*Goiena plazan.*

**ARRASATE 'Mikra' ikuskizuna**

Berdinki taldearen zirku ikuskizuna, Udazabal egitarauaren baitan.

Edukiera mugatua.

*Biteri plazan, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'Korterraza' film laburren jaialdia**

Edukiera mugatua.

*Kanpoko frontoian, 22:00etan.*

**ESKORIATZA The Clayton taldea**

Rock, blues eta punk doinuak jotzen ditu Aramaioko taldeak. Edukiera mugatua.

*Santa Marina plazan, 22:00etan.*

**BERGARA Seda taldea**

Virginia Fernandez buru duen talde bizkaitarren emanaldia, Berumuga egitarauaren baitan. Edukiera mugatua.

*Espolioan, 22:00etan.*

**ARETXABALETA 'Jumanji: siguiente nivel' pelikula**

Aire zabaleko emanaldia. Edukiera mugatua.

*Herriko Plazan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 10

**BERGARA Hockey txapelketa**

Bergara Hiria saria eta hiruko txapelketa jokatu dira.

*Labegaraletan, 09:00etan.*

**ANTZUOLA Orientazio jolasa**

Sarrerak hartu behar dira aurrez.

*Zurrategi plazan, 10:00etan.*

**OÑATI 'Oñati: muino ugariko tokia' bisita gidatua**

Herrigunetik gertu dauden parajeet gozatzeko aukera, erdiguneko historia ezagutzuz. Izenak emateko: 'infoturismo@debagoiena.eus' edo 943-79 64 63.

*Turismo Bulegoan, 10:00etan.*

**OÑATI Espeleoabentura, Arrikutzen**

18 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00.

*Arrikutzen, 10:30etan.*

**ARRASATE Arrasate ezagutzeko bisita gidatua**

Historiaren, industriaren eta eraikin garrantzitsuenen gainean egingo dute berba: 10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar zen izena.

*Herriko Plazan, 10:30etan.*

**OÑATI Trianako jaiak**

11:00etan, umeendako marrazki saioa; 12:30ean, sari banaketa; 15:00etan, ilinti kafea; 16:00etan, 41. mus txapelketa; 16:30ean, gazte mailako Arantzazura Igoera ziklismo proba; eta 22:30ean, Kai Nakairen eta Jogurina Borovaren kontzertuak.

*Goiena plazan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**

Parrokia eta unibertsitate zaharrak ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena, Turismo Bulegoan.

*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI Euskal Herriko mito eta ipuin zaharren kontaketa**

'Marimunduko'-ren eskutik, Jose Migel Barandiaranek jasotako kondaira mitologikoak ezagutzeko aukera. Familiendako emanaldia.

*Gandiaga Topagunean, 17:00etan.*

**ANTZUOLA Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia**

'Amaren intxaurrek' ikuskizuna egingo dute, edukiera mugatuarekin.

*Eskolako patioan, 17:30etan.*

**OÑATI 'Plazaz plaza' txapelketako partidua**

Amaia Aldai-Uxue Osés bikotea Laia Salsamendi-Oihana Orbegozo bikotearen kontra.

*Plazako frontoian, 19:00etan.*

**BERGARA Rap kontzertua**

Iker Hiriart eta Xady Ayastui; La Basu; eta El Negro oholtza gainean.

*Usondo parkean, 21:30etan.*

## DOMEKA 11

**ARRASATE 'Galarrako kobak' bisita gidatua**

09:00etan euskaraz eta 11:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar zen izena.

*Meatzerreka elkarteko aparkalekuan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA 'Aretxabaletako uretsen ibilbidea' bisita gidatua**

XIX. mendeko bainuetxeen ibilbideko iturri mineralak ezagutzeko. Izena emateko: 'infoturismo@debagoiena.eus' edo 943-79 64 63.

*Udaletxean, 09:00etan.*

**ANTZUOLA Antzuola Txirrindularitza Saria**

Iñaki Leteren omenezkoa, Peña Aiastuiren eskutik.

*Antzuolan, 09:30etan.*

**ELGETA Xalbadorpe elkarte: urteko kuota**

Ordainketa eskuz egiteko aukera, gaur, 11:00etatik 13:00etara.

*Ozkarbi elkartean, 11:00etan.*

**ARAMAIO Pilota partiduak**

Lau eta erdiko txapelketako finalerdiak eta San Martin kopako finalak jokatu dituzte.

*Pilotalekuan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA 'BIZIKletan' proiektuaren aurkezpena**

Mugikortasun jasangarriaren inguruko aurkezpena. 11:00etan



YOGURINA BOROVA

**OÑATI Yogurina Borova eta Kai Nakai**

Yogurina Borovak kabaret ikuskizuna egingo du, eta Kai Nakaik musika urbanoa oinarri duen 'Baimenik gabe' diskoa aurkeztuko du. Debalde, baina edukiera mugatuarekin.

*Bihar, zapatua, Oñatiko Triana auzoan, 22:30etan.*

teorikoa eta 16:00etan erakustaldi praktikoa.

*Ibarraundi museoan, 11:00etan.*

**BERGARA 'Gora kasete' ikuskizuna, umeendako**

Eidabe taldearen eskutik.

*Labegaraletan, 12:00etan.*

**BERGARA 'Irganari begira' erakusketa**

Euskal Urbex-en erakusketa ikusteko azken eguna da gaur.

*Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.*

**OÑATI Trianako jaiak**

13:00etan, Jon Basagurenen kontzertua; 19:00etan, 'Amarru' ikuskizuna Tor magoarekin; eta 21:30ean, 'Xolonpo'-ren omenezko etxafuegoak, jaiak bukatzeko.

*Goiena plazan.*

## ASTELEHENA 12

**ARRASATE 'Udaixe': arraun surfa**

12-17 urte arteko gazteendako ekintza. Izena, aurrez.

*Landan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA 'Udaero': Usakora bizikletan**

Nerabeendako. Izena, aurrez.

*Gaztelekuan, 15:30etan.*

**ESKORIATZA 'Movilidad sostenible' hitzaldia**

Izenak emateko: 'mail@vicvivero.net' helbidea. Edukiera mugatua.

*Ibarraundin, 18:00etan.*

## MARTITZENA 13

**ARRASATE 'Udaixe': hondartzara irteera**

12-17 urte arteko gazteendako ekintza. Izena, aurrez.

*Autobus geltokian, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Musika kontzertuak Poli-ren eskutik' erakusketa**

Aitor Bengoaren bilduma, hilaren 30era arte ikusgai.

*Arkupen, 11:00etan.*

**OÑATI Adineko pertsonak elkar ezagutzeko kafe-hitzordua**

'Begirada Adia' egitasmoaren baitan.

*Pake Lekun, 17:00etan.*

**BERGARA Umeendako zeramika ikastaroa: lehenengo eguna**

Buztinzale Zeramika Elkarteko eskutik. Hurrengo saioak egingo dituzte hilaren 15ean, 20an eta 22an.

*Zabalotegiko txiki-txokoan, 17:00etan.*

**BERGARA Garagardo dastatzea**

Edukiera mugatua. Aurrez eman behar da izena.

*San Lorentzo auzoan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Gizakien seme-alabak' filma**

Alfonso Cuaronen pelikula, 'The Children of Men' izeneko liburuan oinarrituta.

*Antixean, 22:00etan.*



## EGUAZTENA 14

**ESKORIATZA 'Udaero': Gatz bidetik ibilaldiak**  
Nerabeendako. Izena, aurrez.  
*Gaztelekuan, 10:30ean.*

**OÑATI 'TicketBAI'-ri buruzko informazio bilera**  
Azalpen teorikoak eta aplikazio praktikoa ezagutzeko batzarrak: 14:00etan eta 20:00etan.  
*Zinema aretoan.*

**OÑATI 'Emakume taldeak gatazka osteko testuinguruetan: ezaugarriak, erronkak eta zailtasunak' hitzaldia**  
Itziar Mujika ikertzaileak egingo du berba, online. Izena emateko: 'm.mesonero@iisj.es'.  
*Online, 16:00etan.*

**BERGARA Odol ateratzea**  
Udako oporren aurretik egingo den azken ateratzea. Irekia.  
*Oxirondon, 16:30ean.*

**ANTZUOLA AKERen batzar orokorra**  
17:30ean lehen deialdia eta 18:00etan bigarrena.  
*Torresoroan, 17:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera.  
*Oxirondon, 18:00etan.*

**ARRASATE Julen Alonso eta Trigger taldea**  
Udazabal egitarauaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Usaetxe plazan, 19:00etan.*

**ARETXABAETA 'Piraten istorio bat' kale antzerkia**  
Erre Produkzioak taldearen keinu bidezko antzezlan da: arina, dibertigarria eta familian gozatzeko modukoa.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**BERGARA Zinema emanaldia**  
'Bergara 1965-1985. Serafin Esnaolaren begirada' eta 'Tiempos modernos' pelikula emango dituzte. Edukiera mugatua. Eurria bada, Seminarioko karpan.  
*Espoloián, 19:00etan.*

## EGUENA 15

**BERGARA 'Kotoiaren emakumeak' erakusketa**  
Garai bateko Algodonerako emakume langileen omenezko bilduma. Urriaren 11ra arte ikusgai.  
*Laboratoriumen, 10:00etatik aurrera.*

**ANTZUOLA 'Aiherra-Antzuola' murala auzolanean margotzea**  
Irekoa, herritar guztiendako.  
*Antzuolan, 17:00etan.*

**ANTZUOLA Jaioberriei eta helduenei ongiatorria**  
Udal ordezkariak parte hartuko dute.  
*Udaletxean, 19:30ean.*

**ARAMAIO 'Aitxa kopla hori!' saioak**  
Irati Anda, Manex Agirre, Xabier Antia eta Orlando Arreitunandia bertsolariak eta Mikel Goikouria eta Unai Mendibil musikariak egongo dira Eli Plazaolaren gaiei hitzak eta musika ipintzen. Edukiera mugatua.  
*Parkean, 20:00etan.*

**BERGARA 'Kotoiaren emakumeak' erakusketa**  
Garai bateko Algodonerako emakume langileen omenezko bilduma. Urriaren 11ra arte ikusgai.  
*Laboratoriumen, 10:00etatik aurrera.*

## EGUBAKOITZA 16

**OÑATI Traste zaharren bilketa eta garbigune ibiltaria**  
Herritarrek utzitako materiala jasoko dute egun osoan.  
*Olakua auzoan, 10:30etik 21:00etara.*

**ANTZUOLA Puzgarriak eta jolasak**  
Edukiera mugatuarekin. Orduetgia izango da: 11:00-14:00 eta 16:00-18:00.  
*Sagastin.*

**ANTZUOLA Sonakay taldea**  
'Sonakay zuekin' diskoa aurkeztuko dute. Edukiera mugatuarekin.  
*Eskolako patioan, 20:00etan.*

## ZINEMA

### GASTEIZ

#### BOULEVARD

**Viuda negra**  
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 16:10, 19:35. Egunero: 17:15, 18:15, 19:00, 20:15, 20:40, 21:15, 21:50. Egunero, martitzena izan ezik: 17:45. Martitzena: 20:40.

**A todo tren**  
Egubakoitzetik domekara: 16:00. Egunero: 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00.

**Fast & Furious 9**  
Egunero: 17:00, 18:00, 20:00, 21:00. Egunero, martitzena izan ezik: 22:00.

**Spirit**  
Egunero, egubakoitza izan ezik: 16:00, 18:00. Egubakoitza: 16:00. Astelehena,

martitzena eta eguena: 17:00.

**Expediente Warren**  
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 22:25. Astelehena, martitzena eta eguena: 22:00.

**Cruella**  
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 16:30. **Despierta la furia**  
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:15.

**4 chicos y esto**  
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 16:00.

**Un lugar tranquilo 2**  
Egunero, egubakoitza izan ezik: 20:00.

**Operacion Camaron**  
Egunero: 17:15, 19:45, 22:15.

**Tom & Jerry**  
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:00. Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 16:00.

### GORBEIA

**Raya y el ultimo dragon**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

**Cruella**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:15. Domeka: 11:45, 17:15.

**Expediente Warren**  
Egunero: 19:45, 22:00.

**Un lugar tranquilo 2**  
Egunero, domeka izan ezik: 20:25, 22:30. Domeka: 12:00, 20:25, 22:30.

**Operacion Camaron**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:30, 19:45, 22:00. Domeka: 12:00, 17:30, 19:45, 22:00.

**Spirit**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:30, 19:45, 2:00. Domeka: 12:00, 17:00, 18:50, 22:00.

**Fast & Furious 9**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:00, 18:00, 19:45, 22:30. Domeka: 11:45, 17:00, 18:00, 19:45, 22:30.

**Las cosas que hacemos**  
Egunero: 22:00.

**4 chicos y esto**  
Egunero, domeka izan ezik: 19:50. Domeka: 12:00, 19:50.

**La viuda negra**  
Egunero: 17:50, 20:45, 22:30. Egunero, domeka izan ezik: 17:00, 19:35, 22:10. Domeka: 11:4, 17:00, 19:35, 22:10.

**A todo tren, destino Asturias**  
Egunero, domeka izan ezik: 16:45, 17:30, 18:40, 19:30, 20:35, 21:30. Domeka: 12:00, 16:45, 17:30, 18:40m 19:30, 20:35m 21:30, 22:30.

### FLORIDA

**Raya y el ultimo dragon**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Tom & Jerry**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Cruella**  
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:05. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:05.

**Operacion Camaron**  
Egubakoitza: 20:30, 22:30. Zapatua: 12:00, 20:30, 22:30. Domeka: 12:00, 20:30. Astelehenetik eguenera: 20:30.

**La vida de los demas**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:40, 22:30. Domekatik eguenera: 19:40.

**Spirit**  
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 16:50, 18:40. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:50, 18:40.

**Fast & Furious 9**  
Egubakoitza: 16:50, 19:35, 22:20. Zapatua: 12:00, 16:50, 19:35, 22:20. Domeka: 12:00, 16:50, 19:35. Astelehenetik eguenera: 16:50, 19:35.

**El robo del siglo**  
Egunero: 19:45.

**Las cosas que hacemos**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 22:00. Domekatik eguenera: 17:20.

**A todo tren, destino Asturias**  
Egubakoitza: 17:00, 18:50, 20:40, 22:30. Zapatua: 12:00, 17:00, 18:50, 20:40. Astelehena, eguaztina eta eguena: 17:00, 18:50, 20:40. Martitzena: 17:00, 19:40.

**Miss Marx**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 21:50.

## KRITIKA


### Mandibulas

Zuz.: Quentin Dupieux. Herr.: Frantzia (2020). Herr.: Frantzia (2020). Aktoreak: Gregorie Ludig, David Marsais, Adele Exarchopoulos. Iraupena: 77 minutu.

## Erotasuna eta errealismoa

### ANTONIO ZABALA

Frantziako 'Mandibulas' filmak azaltzen digun istorioa oso bitxia da. Ganora gabeko bi mutilek, negozio bat egiteko, auto zahar bat lapurtzen dute, eta maletategian euli erraldoi bat topatzen dute. Hori ikusita, bikoteak euliari irakatsi nahi izango dio, hari etekina ateratzeko. Heziketak irauten duen bitartean, eulia ezkutuan gordetzen ahaleginduko dira. Ikusten den moduan, filma komedia burugabea da. Dena den, horrela izanda ere, zuzendariak normaltasun itxura eman nahi izan dio komedia burugabeari. Ematen du zuzendariak bi pertsonaia nagusien ikuspuntua mantendu nahi duela. Euren, egiten dutena normala iruditzen zaie. 'Mandibulas'-en, erotasunaren eta errealismoaren arteko



kontraste bat sortzen da. Proposamenaren abiapuntua originala da, baina, filmak aurrera egin ahala, zuzendariak ez daki egoerei eta bidean aurkitzen dituzten pertsonaiei etekinik ateratzen. Komediak erritmo barnekoia eta gag eta egoerei komikotasuna aurkitzeko ahalmena behar du, eta, kasu honetan, ez da halakorik gertatzen. Dena laua eta

monotonoa da. Komedia batek gatza izan behar du. Ez da aspergarria egiten, iraupena ordu eta laurdenekoa delako, baina ez dauzka komediak batek izan behar dituen ukitu gozagarriak. Dena den, badira filmari grazia eta balioa topatu dioten zinema-kritikariak. Horregatik, akaso, onena, pelikula ikustea da, eta nork bere iritzia ematea.





AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## 'Diluitzen'

Ez naiz konspirazio teorien zalea, baina gurean zerbait dagoela esango nuke. Shock egoerak aproposak dira aldaketak ezartzeko eta pandemiak aukera ematen du oharkabean mezuak moldatzeko. Iruditzen zait Euskal Autonomia Erkidegoko telebista eta irrati publikoek, gaztelarazkoek bereziki, *ahaztu* egin dutela Euskadiren izaera historikoa, nolabait esatearren.

Adibide asko daude eta ia egunero azaltzen dira, gaia edozein dela. Aipatutako komunikabideetan EAEko Labi bezain etxekoa da Lurralde Arteko Kontseilua eta horregatik ez da zehaztu behar kontseilu espainiarra dela. Batzuetan, lurraldetzat Estatua hartzen da: "Dagoeneko ehunetik gora dira genero indarkeriaren biktimak". Bestetan, argitu beharrean dago barrutia EAE dela: "Atzokoa x. lan istripua izan zen Euskadin".

Euskal Herriari ematen zaion tratamenduak ere atentzioa deitzen du. Paradigmatikoa izan zen joan zen urtean, Estatuko komunitateen konfinamendu perimetrala bertan behera geratzean, "Kantabriara eta Nafarroara joan ahal izango gara" bezalakoak entzutea.

Balizko operazio horrek izenik balu, agian, *Diluitzen* deituko litzateke.

GOIENA OKM GIDA

# "Nirea lentzeria-denda izango zela argi nuen"

BEA ETXABE BEA LENTZERIA-DENDAKO ARDURADUNA

Betidanik nahi izan du bere lentzeria-denda propioa izan Etxabek. Produktuekin apur bat arriskatzea gustatzen zaio; lehoiabar-larruazala da arrakasta handien duena

Jone Olabarria ARRASATE

Hogeita bi urte daramatza Bea Etxabek bainujantziak, tangak eta pijamak saltzen. Aretxabaletarra izan arren Arrasaten du denda, eta ez da arrasatearrak bezero hobeak direlako, baizik eta herriko komertzioan esperientzia zabala duelako. Gaur egun, Ibai-arte merkatarik elkarreko lehendakaria da.

**Lentzeriari dagokionez, nolakoak gara debagoiendarrak? Klasikoak ala ausartak?**

Nire publikoa adin ertainekoa da, orokorrean, baina denetik daukat. Niri asko gustatzen zait genero arriskatuagoa ekartzea, eta, hortaz, denetik eta denendako izaten dut.

**Arrakasta handien zerk du, baina? Lehoiabar-larruazaleko kule-roek, estanpatuek, arrakasta dute, asko saltzen ditut. Sekulakoa da; ekarri eta ekarri ibiltzen naiz. Beti agortuta daude. Aretxabaletarra zara, baina denda Arrasaten. Bezero hobeak dira?**

Nire negozioa jarri aurretik Arrasaten egiten nuen lan, arropa-denda batean. Argi nuen lentzeria landu nahi nuela, eta nire denda jartzerakoan Arrasateren alde egin nuen, aurretik ezagutzen nituelako bezero asko



Bea Etxabe, Arrasateko Iturriotz kalean duen lentzeria dendan. M.A.

## Probatzeko jantzi, eta etxera eraman

"Behin, bezero batek bikini batzuk probatzen ari zela etxera eraman zuen jantzita, konturatu gabe. Gaietik gona jarri eta joan egin zen. Gauzak jasotzen ari nintzela beheko parte bat falta zela ikusi, eta pentsatu nuen, seguru norbaitek eraman duela konturatu gabe. Bezeroa etxera heltzean jabetu zen, eta, larrituta, nire amari deitu zion, ez zuelako nire telefono zenbakirik. Trankil egoteko esan nion, ez larritzeko, uste baino ohikoagoa izaten dela".

eta herriko komertzioen dinamika. Nire amak urte askoan lan egin du Lasagabasterren. **Zuk zeuk zure produktu bat hautatu beharko bazenu... zein?**

Zelako galdera zaila, ez dakit erantzuten. Niri barruko arropa eta lentzeria ikaragarri gustatzen zait, horregatik jarri nuen denda; hortaz, ezin dut aukeratu. **Bainujantzia edo bikini harro erakusteko toki bat?**

Hemen gertuan, Ondarretako hondartza gustatzen zait asko. Bestela, Huelva dut oso gustuko. Bertara joaten gara oporretan, Antillara.

**Hortaz, hondartzaren eta igerilekuaren artean...**

Hondartza, zalantza barik, argi daukat. Igerilekuan hotel batera-edo joatean ere egoten naiz, baina itsasoa eta mendia asko gustatzen zaizkit.

**Aretxabaletan hondartzarik ez, baina zer plan duzu gustuko herrian?** Paseoan ibiltzea, bueltatxo bat eman eta mendira joatea.

**Internetek nola eragin dizue? Zertan igarri duzue?**

Min handia egin digu. Bezeroek baloratzen dute herriko dendetatik egiten dugun lana, baina Internet hor dago, ezin dugu ukatu.

**Zerk ematen dio balioa gertuko komertzioari, herrikoari?**

Konfiantzazko tratua; etxera eraman daiteke probatzeko, adibidez. Bezeroa ezagutu eta badakigu bere gustua zein den. Asko dugu eskertzeko; herritarren erantzuna bikaina izan da garai zailenetan ere.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

*Arrasatekoak gara*

ikusmen azterketa  
**DOAN**

Otalora Lizent. 18  
Tel: 943 79 29 95  
ARRASATE

www.multiópticas.com

R.F.S. 91720